

"Krisiak erakutsi digu aldatu beharra daukagula"

Kristina Elkoro  
Enpresare taldeko lehendakaria | 9



Egun borobila Erramu Zaturako

Goizean goizetik zabalduko dute ferria, Bergaran, bihar | 16

John Anduezak 'San Ferminetan, Lesakan' eleberria aurkeztu du | 30



'Herritar Topaketak' egingo dituzte Eskoriatzan, bihar | 5



150 dantzari elkartuko dira bihar Arrasaten, Dantzari Egunean | 33

## TORRESOROA LASTER EROSOAGO

Aste Santu osterako gertu izango dira Antzuolako Torresorua auditoriumeko harmailak; 100.000 euroko aurrekontua izan dute. | 26



Langileak harmaila berriak jartzeko lanak egiten; harmaila teleskopikoa dihardute eraikitzen, 167 aulki izango dituena. | JAGOBA DOMINGO

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Itxaropentsu gaude biomasa proiektuarekin, onuragarria da"

RAMON AJURIA  
Aramaioko alkatea | 24



# Bi herri handienetan, populazioa behera

Arrasaten, Bergaran eta Leintz Gatzagan jaitsi egin da bizilagun kopurua | 2

APIRILAREN 28RA ARTE, PARENTESIA

Astelehenean argitaratuko dugun zenbakiaren ondoren, hurrengo GOIENA apirilaren 28an, astelehena, argitaratuko dugu. Ondo izan!

## SINADURAK

Auzobide | 7  
JUAN MARTIN ELEXPURU

7 | Euskararen erabileraz  
GOIATZ ARANA

Gora emakumeon borroka! | 24  
ANDERE ARRIOLABENGOA

40 | Zientzia fikzioa  
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7  
ELKARRIZKETA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 28  
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

943 71 48 45

**Hemen**  
GARBIKETAK  
[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

ŠKODA Spaceback berria

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

ŠKODA

# Biztanle gutxiago izango dituzte herriek, eta adineko gehiago

Azken urteotan Arrasatek eta Bergarak biztanleak galdu dituzte, eta hori da joera; gainera, 65 urtetik gorakoak gehiago dira 20 urte artekoak baino

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Guztiok dakigu Arrasate dela biztanle gehien dituen herria Debagoienean, baina zenbat ditu? Eta gure herriak haziz doaz ala biztanleak galduz? Kanpotik etorritakoak ere gero eta gehiago dira, baina zenbat gehiago? Galdera horiek guztiak eta gehiago erantzuteko datuak jaso ditugu han eta hemen.

Debagoienak (Aramaio barne) 64.450 biztanle ditu egun (orain dela 10 urte baino 961 gehiago) eta Arrasate da gehien dituen herria (22.078), baita etorkin gehien ere (1.376). Horren atzetik dator Bergara (14.815) eta etorkinak ere milatik gora ditu egun (1.081). Bi herriok, baina, galdu egin dituzte biztanleak azken

hamar urteotan; Arrasatek, 809 lagun gutxiago ditu, eta Bergarak, 94. Arrasateri dagokionez datu esanguratsua da, kontuan hartuta azken 10 urteotan 968 etorkin gehiago daudela herrian. Debagoieneko herririk txikienak, Leintz Gatzagak ere galdu egin ditu biztanleak; 2004an baino lau herritar gutxiago ditu orain, 244.

Gainerako herri guztiak hazi egin dira azken hamar urteotan. Herri txikiak gutxi: Aramaio 33 lagun gehiago ditu, Elgetak 110, eta Antzuolak 166, eta zerbait gehiago Eskoriatzak, 204.

Xabier Aierdi (Zeberio, 1957) soziologo eta EHUko irakaslearen esanetan, etorkinen eraginez da igoera hori: "Azken urteotan Eus-

kal Autonomia Erkidegoko biztanleriak gora egin badu, immigrazioaren saldo positiboa tartean egon delako izan da. Saldo begetatiboa (jaiotzen eta heriotzen arteko saldoa) negatiboa izan da. Eskerrak immigrazio etorri izan den, horrek mantendu baitu biztanleriaren igoera urria. Beraz, aurreikusi litekeenaren arabera, immigrazioaren gorakadarik ez badago, biztanleria, gutxi bada ere, jaisten joango da".

Bi herri dira gurean asko hazi direnak: Oñati eta Aretxabaleta. Oñatik 11.318 biztanle ditu egun orain dela hamar urte baino 615 gehiago, eta etorkinei dagokienez, 233 gehiago. Aretxabaletak, ostera, 7.018 ditu, 740 gehiago; eta etorkinak, 308 gehiago. Hain zuzen,



Oñatiko plaza martitzen arratsaldean. | MIREN ARREGI

bi herri horiek dira konfort indize handienetakoa dutenak EAEn. Konfort indizeak neurtzen ditu etxebizitzaren ezaugarriak (azalera, gela kopurua...) eta ekipamenduak (gasa, igogailua...), eta Debagoiena indize handia duten eskualdeen artean dago. Hala ere, Aierdik ez du uste horrek

zeresan handia izan duenik biztanle igoeran: "Konforta Gipuzkoa osora zabaldu litekeen ezaugarria da, Gipuzkoa herrialde oso aberatsa baita, eta gainera barne-ezberdintasun eskasenekoa. Populazioa mantendu edo gora joan izana, egoera kontu bat izan daiteke, baita sare kontua ere.

## Zerbait aldatzen ari da Uribarrin

### Aukera berriak!

Izan haien berri gure webgunean

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

ONGI  
ETORRI

Zatoz eta hitz  
egingo dugu

600 902 224

Bista ederrak  
Atikoak 198.000 €-tik  
hasita



UTE URIBARRI  
sukia GEDI




### BIZTANLE KOPURUA HERRIZ HERRI

	ARRASATE	BERGARA	OÑATI	ARETXABAETA	ESKORLATZA	ANTZUOLA	ARAMAIO	ELGETA	LEINTZ GATZAGA
<b>2004</b>	22.887	14.909	10.703	6.278	3.890	2.040	1.519	1.015	248
<b>2014</b>	<b>22.078</b>	<b>14.815</b>	<b>11.318</b>	<b>7.018</b>	<b>4.094</b>	<b>2.206</b>	<b>1.552</b>	<b>1.125</b>	<b>244</b>
<b>Gizonezkoak</b>	10.950	7.372	5.613	3.440	2.087	1.119	816	569	133
<b>Emakumeak</b>	11.128	7.443	5.705	3.578	2.007	1.087	756	556	111

ITURRIA: UDALAK

### ETORKINAK DEBAGOIENEAN



ITURRIA: UDALAK

Hau da, alde zuzeneko ezarriak dauden tokietara joaten dira atzetik datozenak, batez ere migrazio mugimenduak direnean. Bertakoen mugimenduetan edo etxegintzan inbertitu egin delako edo eta tokiko lan-aukera bereziak eman direlako izan liteke, baina zehaztasun horietarako detaile asko hartu beharko genuke kontuan". Aretxabaletaren kasuan, Arrasateetik joandakoen boladaxoa egon da urte batzuetan.

Debagoieneko datuok Gipuzkoako joerarekin bat datoz; hau da, igoera motela. Euskal Autonomia Erkidegoak 2.178.949 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean, 2011ko azaroko zentsuan baino 866 gutxiago; Bizkaia 2.599 gutxiago zituen eta Arabak 988 gutxiago. Gipuzkoak, ostera, 2.681 lagun gehiago. Aierdiren esanetan, ez da igoera esanguratsua: "Halaxe tokatu da". Eta gaineratu du: "Agiar, hipotesi modura, industria hobeto mantendu da eta orduan emigrazioak ez ditu bultzatu, edo immigrazioak etorri dira asistentzia sistema erakargarriagoa eduki dezakeelako, baina urte bateko edo biko aldaketa puntualek ez dute garrantzi handirik. Ikustekotan, azpiko tendentzia ezarriak errepertatu behar dira".

#### Etorkinen eragina

Kanpotik etorritakoek hiri eta herri handietara jotzeko ohitura dute bertan daudelako industria-guneak eta lan aukerak. Hori horrela, gurean ere herri handienek jaso dute etorkin gehien, Arrasatek eta Bergarak, batez ere. "Gure gizartea oso industria- la da, nolabaiteko prestakuntza duen populazioa erakartzen du, eta gainontzekoentzat toki gehiegi ez dago", Aierdiren esanetan.

Etorkinek, gainera, zeresan handia izango dute populazioaren hazkuntzan, batez ere jaiotzak gutxitzen hasita daudelako: "Jaiotzetan gorakadaxoak egonda ere,

### Datuak motzean

#### 713.818 GIPUZKOAN

Gipuzkoak 713.818 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean, 2012an baino 1.721 gehiago. EAEk, ostera, 2.836.159 zituen, 2012an baino 1.500 gutxiago. Aurrekusi dute datozen urteetan jaisten joango direla kopuru horiek.

#### 2006AN HIRU MILIOI 1897.

urtean milioi bat pasatxo biztanle zituen Euskal Herriak (1.054.769), eta 109 urte geroago, 2006an, 3 milioi biztanle pasa; iaz abenduan, ostera, 3.130.679.

#### XIX. MENDEAN 25.000

1897an Debagoienak 25.396 biztanle zituen (Aramaio barne) eta herririk populatuena Oñati zen 6.082 lagunekin.

#### 65 URTETIK GORAKOAK

EAEan %20,2 dira 65 urtetik gora dituztenak, eta Debagoienean %22,74. Italia eta Alemania bakarrik daude portzentaje horien gainetik. Leintz Gatzagan %54,92 dira; Arrasaten, %24; eta Bergaran, %23,16.

#### 20 URTE ARTEKOEN PORTZENTAJE TXIKIA

Debagoienean %22,74 dira 20 urte artekoak, eta gehien Antzuolan daude, %22; ondoren, Aretxabaletan, %20,35 hain zuzen.

#### ETORKIN GEHIEN ARRASATEN

Egun etorkin gehien dituen herria Arrasate da baina portzentajeari dagokionez Bergarak gehiago ditu, %7,30; hurrengo da Arrasate, %6,23rekin, eta hirugarren Leintz Gatzaga, %6,15ekin.

#### SEME-ALABARIK GURA EZ

Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen artean %21ek ez dute seme-alabarik izan gura, 2001ean %5 ziren hori ziotenak.

#### LANGABEAK Debagoienean

3.808 langabe daude; 1.799 dira gizonezkoak eta 2.009 emakumezkoak. Jarduera ekonomikoari dagokionez, zerbitzuetan daude langabe gehien, 2.027, eta ondoren industrian, 1.174.

migrazioek dute egun garrantzi handiagoa. Beraz, migrazioak gelditu egiten badira, biztanleriak behera egingo du. Gaur egun, etorkinak kontratatzen dituztenak familiak dira batik bat, ez enpresak. Beraz, immigrazioek familiek duten konfiantza ekonomikoarekin zerikusi handia izango dute; familiek uste badute euren premiak -zaintza, etxeko lanak, haurren zaintza, dependentsia...-asetzeko norbait kontratatu behar dutela, biztanleria mantendu egingo da; bestela, gutxika bada ere, beherantz joango da".

#### 65 urtetik gorakoak gehiago

Eta jaiotzen jaitsierak eta bizi itxaropenaren igoerak populazioaren zahartzea dakar. 65 urtetik gorakoak 14.301 dira Debagoienean, populazioaren %22,74. 20 urte artekoak, ostera, gutxiago, 13.369, populazioaren %21,25. Eta hori erakusten du adin-egiturak, lehen piramide bat zen (ume eta gazte asko, adineko guxi), orain zuzen antzeko forma du.

Herriz herri aztertuz gero herririk txikienak, Leintz Gatzagak, du populaziorik zaharrena, erdia baino gehiago (%54,92) direlako 65 urtetik gorakoak; 20 urte artekoak, ostera, %18,44. Eta atzetik Arrasate dator, %24 dira 65 urtetik gorakoak. Arrasatek du, gainera, 20 urte bitarteko portzentaje txikiena, %16,28.

Sarritan larritzeko datuak direla esan arren, Aierdiren esanetan populazioaren zahartzea ez da arazo moduan ikusi behar. "Honek ez du hondamendi ekonomikoaren irudia zabaldu behar. Gaur egun, populazio horrek dauka egoera ekonomiko hobereana, patrimonioa ere bai, eta sektore ekonomiko garrantzitsua bilakatzen ari da" dio. Adinekoak premia eta behar bereziak dituzten taldeetat hartu izan dira sarritan baina Aierdik uste du hori ez dela zuzena: "Zahartzaroarekin irudi eta metafora okerak erabiltzen ditugu. Baina zahartzarora gero eta osasun hoberekin heltzen da jendea, urte askoan luzatzen da bere bizitza eta kontsumorako beste sektore berri bat bilakatzen ari da. Horrez gain, seme-alaben onurarako egiten dituzten transferentziak aztertu beharko genituzke. Ez dira arazo, konponbide baina, sarri askotan".

Aldaketa horiek guztiek zalan-tza barik herrien itxuran eragina izango dute. Izan ere, hazkuntza jaitzi egingo da. Bestalde, populazioaren zahartzeak herritarren beharrak aldatu egingo ditu eta behar horiek asetzeko eran antolatuko dira herriak.

### XABIER AIERDI SOZIOLOGOA

## "Demografoek diote beste adin-egitura baterantz abiatu garela"

Soziologian eta Zientzien Politikan eta Kazetaritzan lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean, Soziologiako irakaslea da.



#### Krisiaren eragina handia da populazio datuetan?

Ez, oraingoz. Datu demografikoak astiro mugitzen dira; beraz, ezin dezakegu honetaz ezer definitiborik esan. Bakarrik dakigu immigrazioak urritu direla. Gero, gerokoak!

#### Proiekzio demografikoen arabera, 2013tik 2026ra 100.000 lagun galduko ditu EAEk. Herri guztietako joera izango da hori?

Adiskide batek esaten du: aurreikuspenak zailak direla, batez ere etorkinuenak. Proiekzioak baino ez dira, nahiz eta sinesgarriak diren. Ikusiko dugu, baina gorantz ez dugu egingo. Hortik aurrera, hor konpon!


#### 2006an 3 milioi biztanleria iritsi ginen Euskal Herriari; 2013an, 3.130.679ra; goren-era iritsi gara eta orain beherantz hasiko gara?

Nekez gaudituko dugu zenbaki hori. Ez oso beherantz, ezta gorantz ere. Hemen herri gisa zenbat eragin dezakeen izaten da ardura, baina ikusi egin beharko dugu zelan gartzatzen den...

#### Aurreikuspenen biztanleria jaitsiera arazo bihurtzeko Euskal Herriari eta batez ere herrietan?

Hori da aurreikuspen guztiek diotena, baina demografo ugari ez dela garrantzizkoa diote; eta demografoei kasu handia egin behar zaie, ez baitute arinkerietan ibiltzea gustuko. Intuitiboki biztanleria jaitea galera modura ikusten da, beti gorantz ezagutu dugu eta. Demografoek beste adin-egitura batera abiatzen garela diote, eta sozialki, politikoki eta ekonomikoki aipatzen diren arriskuak -pentsioak, osasun kostuak...- ez direla esanguratsua esaten dute. Ikusi egin beharko...

### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PROIEKZIOA



ITURRIA: EUSTAT

## Fagorren gaineko eskaintza zehatzak, maiatz hasieran

Likidazio plana aurkeztu dute administrazio konkurtsalek; atzo (eguna) aurkeztu zuten

U.M. | DEBAGOIENA

Donostiako 1. Merkataritza-epaitegiko Pedro Jose Malagon epaileari aurkeztu diote Fagor Etxetresnen eta Edesaren gaineko likidazio plana. Orain, 15 eguneko epea du epaileak planaren gaineko erabakia hartzeko. Ondoren, alegazioak aurkezteko epea irekiko da eta, gero, eskaintza zehatzak aurkezteko. Une horretan, edozeinek egin ahal izango ditu eskaintzak Fagorren aktiboengatik, eta eskaintzok zehatzak izan behar dira. Epeak begiratuz, beraz, eta Fagorretik konfirmatutakoaren arabera, maiatz hasiera ingurura arte ezin izango da eskaintza zehatzik jakin.

### Kataluniarren interesa

Aldi berean, dena den, eta zenbait komunikabidek argitaratzen

dutenez, Kataluniako CNA taldea 16 milioi euroko eskaintza egitekotan da Fagor Etxetresnen Garagartza eta Eskoriatzako lantegiak erosteko. Komunikabide horiek diotenez, CNA taldeak 500 lanposturi eustea proposatzen du. Kataluniako CNA taldeak etxetresnak egiten ditu eta Cata, Nodor eta Apelson markak ditu. Komunikabideetan argitaratu denez, esandako bi lantegiez gain, Aspes, Splendid eta Edesa markak nahi ditu, eta Fagor marka egosketa, hotz eta garbiketa lerroetarako esplotatzeko eta modu eskusiboan erabiltzeko baimena 30 urterako.

Bestalde, albiste hau idaztean oraindik argitaratu barik zeukan Malagon epaileak Cevitalen eskaintzaren gaineko erabakia. Frantzia gaur (barikua) dute erabakitzeke eguna.



Arrasaten eskuak koloreztatuta esan zuten "aski" dela. | JON BEREZIBAR

## Euskararen aurka "aski" dela esan diote Espainiari

U.M. | DEBAGOIENA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren deialdiz, Carlos Urkixo Espainiako Gobernuaren ordezkariak "euskararen normalizazioa geldiarazteko abiatutako erasoaldia" salatu dute euskaltzale ugari asteon.

Arrasaten, elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan, eta eskuak koloreztatuta, "aski" dela irudikatu zuten. Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan ere egin zituzten protestak.

### Eskoriatza eta Oñati

Hala, euskara normalizatzeko, erakundeetan hizkuntza babestuko duten neurrien beharra plazaratu dute, Espainiako Gobernuaren ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta 46 udalen hizkuntza irizpideen aurka aurkeztutako neurrien harira. "Hainbat udali, tartean Eskoriatzakoari, indarrean dituzten euskara

planak bidaltzeko eskatu die", salatu du Kontseiluak.

Bestalde, asteon, eskaera judiziala jaso du Oñatiko Udalak kirol arloko jarduerak antolatzeke emango duen diru laguntzan hizkuntza eskubidea urratzen duelako. Horixe da, behintzat, Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuaren ordezkariak, sinatuta dagoen eskaerak jasotzen duena.

Oñatiko Udalak orain 20 egun ditu dokumentazio guztia aurkezteko eta abokatua eta prokuradorea izendatzeko. Udal kontratazioengatik ere jasota du eskaera judiziala udalak (ikus. 19. orria).

Besteak beste, Oñatiko Gobernuak, azpimarratu du euskara erabiltzea "legezko eskakizuna" dela eta gogora ekarri du "antolamendu juridikoak euskara eta gaztelania jotzen" dituela "ofizialtzat EAEen zein Nafarroako zati handi batean".

Elena Laka | Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

# "Horrenbeste indar metatzen dituen mugimendu gutxi dago Euskal Herrian"

► Zapatuan izendatu zuten Topaguneko lehendakari, Gasteizen

► Euskaltzaleen mugimendua inoiz baino beharrezkoagoa dela dio Lakak

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Zapatua ezkerreko Elena Laka da Euskaltzaleen Topaguneko, hau da, euskara elkarten federazioko lehendakari. Jaiotzez eibartarra den eta Bergaran bizi den abokatua Eibarko... eta *Kitto* euskara elkarte kide da; bost urtean Topaguneko zuzendaritzako kide ere izan da, eta ezaguna dugu, Goienako kolaboratzaile ere badelako.

### Zelan hartu duzu izendapena?

Pozik, ilusioarekin, eta ohore moduan ere bai. Baina oso hunkigarria eta ikaragarria izan dira kanpotik jaso ditudan adierazpenak, babes mezuak, zorionak... Aurretik esan izan balidate, ez nuen sinestuko, baina leku guztietatik ari zaizkit halakoak iristen, eta erabat eskertzekoa da, baina, aldi berean, horrek ardura pixka bat ere ematen du, zelako espektatibak sortzen diren eta zer egin ahalko dugun... baina hasteko, pozik.

### Zuzendaritzako kide izan zara. Orain, zure zereginak asko aldatuko dira?

Bai; gainera, bi urteko etena izan dut zuzendaritzako kide moduan. Orain, lehendakari moduan bueltatzen naiz eta ardurak desberdinak dira, egitekoak ere bai... baina asko errazten du egon izanak eta etxearen ezagutza edukitzeak.

### Norantz doa Topagunea?

Lau urteotan hausnarketa prozesu oso inportantea egin du, bidea nondik joango den, zer egin nahi dugun, zer izan nahi dugun eta zertarako gauden... hori kongresuetan adostasun handiz onartuta dago. Helburu nagusia da euskaldunentzat espazioak irabaztea. Nahi duguna da euskal hiztunen komunitatea indartu, sendotu eta zabaltzea, eta horretarako bideak ipini. Helburua da jendeak geroago eta espazio/toki gehiago izan ditzan euskaraz bizi ahal izateko. Eta euskaraz bizitze hori Euskal Herrian gauza normala izan dadila. Bitartean, ze prozesu segituko dugun horretarako? Gure bideak dira gizartean adostasun handia lortzea, hortik aurrera egiteko eta irabazita ez ditugun espazio horietara ere iritsi ahal izateko. Elkarlanean dihardugu euskalgintzako gainerako erakunde askorekin, uste dut asko dugula eskaintzeko. Erakunde publikoekin ere elkarlanean dihardugu. Uste dut hor ere asko dugula emateko. Solaskidetza EAEen ona da, Nafarroan ez da horren ona, baina asko zabaltzea Tokikomekin, hedabideekin... eta uste dut baditugula baliabideak, eta Topagunea oso indartsu dago-



Elena Laka, Goiena telebistako platoon, elkarriketaren ostean. | UBANE MADERA

## "Euskaraz bizitzea Euskal Herrian normala izatea da gure helburua"

## "93 bazkide gara, elkarteak, eta ia 20.000 herritar ditugu elkarteetan"

## "Euskara elkarten mugimenduak gizartean eragiteko oso une egokia da"

### la horri guztiari aurre egiteko. Zapatuko batzarrean, orain arteko ibilbidearen berri ere eman zen; zelan egin da indartsu Topagunea?

Elkarteek topaguneari eskatzen zioten zuzendaritza, lidergoa, zentralitatea euskalgintzan... eta hori eskuratzen gabilta, eta gaur egun bagara nor, solaskide moduan aitortuta gaude edozein tokitan, eta gaur egungo gizartean Topagunea kontuan hartzeko erakunde indartsua gara.

### Kide kopurua ere indartsua da.

Bai. 93 bazkide gara, elkarteak. Ia 20.000 herritar ditugu elkarteetan. Euskal Herriko hegoaldeko lau lurraldetan banatuta daude elkarteak, Iparraldearekin ere bagabilta, eta, beharbada, epe laburrean izango dira bertako elkarteak ere gure kide. Uste dut mugimendu gutxi daudela Euskal Herri mailan

horrenbeste jende, elkarte eta indar metatzen dituztenak eta indar hori aprobetxatu egin beharra dagoela gure helburuetarako.

### Topaguneko ze baliabide ditu bere asmoen aurre egin ahal izateko?

25 langile inguruko taldea da eta 1.400.000 euroko aurrekontua du. Murriztu egin da aurreko urteetatik, 2013a oso urte gogorra izan delako, bereziki, herrigintzan dabilen erakundeendako. Hala ere, Topaguneko oso ondo jakin du baliabideak kudeatzen, fondo propioak baditu eta %60 autofinantzaketatik lortzen du. Eta uste dut inpaktu ekonomikoari dagokionez, lanpostuetan eta gainerako zerbitzuetan, eta industria moduan ere oso kontuan hartzekoa dela.

### Jaurkitutako V. mapa soziolinguistikoa aurkeztu du asteon. Zertan eragin dezake Topaguneko emaitzetan?

Euskaltzaleen mugimenduak gizarteari eskaintzeko duena inoiz baino beharrezkoagoa da mapa soziolinguistikokoaren emaitzak ikusi ondoren. Hain zuzen, mapa horretatik ondorioztatzen dena da Administrazioaren garaiaren ondoren, gizarte antolatuaren garaia dela herria euskalduntzeko. Bi eragileak, Administrazioa eta herri mugimendua, (Topagunea) elkarrekin aritu behar dira euskara esparru ez formaletara eramateko, euskal hiztunengan euskararekiko atxikimendua eramateko. Orain arteko jardunak erakutsi digu euskaraz jarduten duen hizkuntzaren aldeko mugimenduren bat dagoen inguruetan, hizkuntzaren presentzia alor gehiagotara zabaltzea egin dela, euskal hiztunen komunitatea trinkotu egin dela. Oso une egokia da euskara elkarten mugimenduak euskal gizartean modu antolatuan eragin dezaten.



Amaia Pavon, MUko irakaslea, azalpenak ematen. | EDURNE BALTZATEGI

## Arizmendiren bideo-lehiaketarako izen-ematea, hil amaierara arte

EDURNE BALTZATEGI | DEBAGOIENA

Abian da BHKlip bideo-lehiaketaren seigarren edizioa. Bailarako DBHko 3. eta 4. mailetakoei eta batxilergoko ikasleei begira antolatzen den lehiaketa horretan parte hartzeko, bi minutuko bideo labur bat egin behar da taldean. Aurtengo gaia *Trukatuta ere, berri da* da eta bi sari banatuko dira: epaimahaiaren saria eta ikuslearen saria. Irabazleei bideokamera digital bana emango zaie. Parte hartzeko epea apirilaren 30ean bukatzen da.

### Iritzi kritikoa sendotzeko

Arizmendi Ikastolak antolatzen du lehiaketa Goiena, Huhezi, AZK eta Bagararen lankidetzarekin.

Goiena komunitatean sortutako blogak egiten du, berriz, lehiaketaren jarraipena eta Huhezik eta Bagarak formazio saioekin laguntzen dute. Izan ere, iaz bezala, aurtengoa ere Huheziko Aretxabaletako fakultatean formazio saioak izan dituzte lehiaketan izena eman duten ikasleek Bagarako ordezkarien eta Ikus-entzunezko Komunikazioko irakasleen eskutik.

Lehiaketarekin, Arizmendi Ikastolak eta lankidetzan dihardutenek gazteengan ikus-entzunezko hizkuntza suspertu nahi dute, gizarte hobetzeko egitasmoen berri izan dezaten, haietan sakonduz euren iritzi kritikoa ere sendo dezaten.

## Giza eskubideak eta bakea, besteak beste, aztergai

Eskoriatzan 'Herritar Topaketak' deitu dituzte euskal preso eta iheslarien aldeko sarea osatzeko

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Siglak atzean utzi nahi ditugun euskal hiritarrak gara giza eskubideen alde egiteko elkartu garenak. Hau ez delako gutxi batzuen ardura. Giza eskubideak denon ardura dira. Eta alderdikeriak alde batera utzi behar direlakoan gaude bakea erabat gauzatzeko bidean aurrera egin nahi bada. Horregatik norberaren etxearen gozoa utzi eta plazan gaituzue konponbide baten bila egin beharreko lanean".

San Telmoko adierazpenaren abiapuntua da hori, eta askota-

riko arloetako herritarrek bat egin dute harekin, presoen giza eskubideak errespetatzeko eskatzeko. Martxoan egin zuten aurkezpena Donostian eta biharkoa (zapateria) da ildo horretan egin duten lehen hitzordua, Eskoriatzan egin ere, giza eskubideen alde ahalik eta sare "indartsuena eta eraginkorrena" osatzeko helburuarekin, hain justu.

### "Gutxieneko" batzuen beharra

Hori horrela, *Giza Eskubideak. Konponbidea. Bakea* leloarekin herritarrak gonbidatu dituzte

Eskoriatzako Huhezi fakultatean egingo dituzten topaketetara. 10:00etan hasiko dira hausnarketak jardunaldiok.

Besteak beste, antolatzaileek uste dute giza eskubideen aldeko bide horretan, euskal preso eta iheslarietako dagokienez, "gutxieneko batzuetan behintzat" ados jarri beharra dagoela; adibidez: "Euskal preso eta iheslarien eskubideek errespetatuak izan behar dute. Beraien ingurune sozial afektibotik gertuen dagoen espetsuan zigorra betez, gaixotasun larriak dituztenen kaleratzeari bide emanez eta bizi osorako zigorra ahalbidetzen duten neurriak indargabetuz. Presoak bezala iheslariak eta deportatuak ere. Haiek herrira daitezen bideak bilatu behar direlakoan gaude. Horretarako giza eskubide hauek urratzen dituzten legeak aldatu behar badira, alda daitezela".

## Erabakitze eskubidearen aldarrikapena

"Erkidegorako estatus berri bat lortu beharra. Herri bat osatzen dugu, berez erabakitze eskubidea dagokigu", hori azaldu du, besteak beste, Maria Eugenia Arrizabalaga legebiltzarkide jeltzaleak Oñatiko batzokian.



## J.J. Zarranz neurologiako katedraduna Jakiundeak jakitun izendatuko dute

Jakiundeak, zientzia, arte eta letren akademiak, urteko lehen ohiko batzarra egingo du Bergarako Olasto dorrean gaur, barikua. Besteak beste, akademiako kide berrien hautaketa gauzatuko da. Ezagutza eta artearen alorreko 58 kideez antolatutako ordezkariak nabarmena elkartuko da eta egitasmo berriak jakinaraziko dituzte.

# DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIK \*A

# BATXILERGOAK

IKASTETXEAK

ATE IREKIAK

Arrasate Institutua ARRASATE

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Arte Batxilergoa

Maiatzaren 6an  
18:00etan

Ipintza Institutua BERGARA

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Maiatzaren 6an  
18:30ean

Zuazola Larraña Institutua OÑATI


- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Maiatzaren 7an  
18:00etan  
(Zuazola)

Zure etorkizunerako aukera guztiak

izena emateko epea zabalik maiatzaren 5etik 15era

Guztion eskola guztion artean



# Gorbeiak Karibetia

eraman nahi zaitu  
oportetara

**SARTU: [centrocomercialgorbeia.com](http://centrocomercialgorbeia.com)**

ETA IRABAZI BIDAIA BAT

# PUNTA CANARA

(aste bat bi pertsonarentzat, guztia barne hartzen duen erregimenean\*)

2014ko apirilaren 11tik maiatzaren  
18ra balio duen promozioa.



(\*) Baldintzak ikusteko sartu:  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)



## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
goiena.net/komunitatea/



## Auzobide

**A**rrisku-kirolak maitte ditzuzula? Ba ez joan Himalaiara sherpekin, edo Urduñara parapentiakin, edo Bentako tren-zubi barrira gomazko tirantiek. Joan Bergararik Sanjuan-Ubera aldera kaminotik oinez. Ikusiko dozu zelako emozioa! Zelako zarraria Amillagako iturri parian kamioi bat aurretik etortzen bajatzu. Zer egingo dot, erre kara salto ala toriatzeko kapia etara eta pasia emon? Eta adrenaliniak topera igoko dotsu Elortza Boluko aldapan, eta malaletxiak belarririk urtengo dotsu Uberara ailegau orduko. Baina hala eta be pozez zorutzen, bizirik ailegau zarelako.

Eta orain pentsau goialde horretan bizi zarela eta eskolara edo lanera oinez edo bizikletan joan nahi dozula. Edo pasia da bat emotera, osasunandako ona dala eta. Ez behintzat etxetik urten testamentua eta ostientzeko papalak egin barik.

Ez dakigu burua nun zeuken kamiño hau egin zeubenak.

Autuen galtzaria eta burdinazko hesixa. Oñezkuak eta bizikletak, hor konpon. Eta goguan izan bihar da San Juan-Ubera aldian 300 bat lagun bizi direla, 30 bat lantegi be badarela, eta bide txukun bat balego (berdin da gorrixa edo berdía) jende askok erabiliko leukela.

Gainera, egixa esanda, Bergarak daukan urteera politena baillara hau da; ez dozue konparauko. Goiz-buelta bat egin nahi dozula Zupide-Amatiño-San Juan, edo puxkat luzatuta, Basalgo-Larrosin-Ubera... Eta zela itzuli herrira gero?

Asko aurreratu da aspaldixan. Plazentziatik Eskoriatzaraino edo Oñatiraino joan leike gaur bidegorriz. Antzuola eta Angiozar be "bideratuta" ei dare, entzuten danez. Ubera-San Juan geratu da mundutik aparte. Auzobide izeneko plataforma bat sortu da bi auzoetako eta kaleko jentia. Badakigu Udalak eta Diputazioak begi onez ikusten dabela asmua, baina bultzadaxo bat biharko dabela be bai. Udaberri honetan kontzentraziño bat egiteko asmua dago. Etorri! Han ikusiko dogu elkar.

## USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

## Euskararen erabileraz

**N**ire kasuaz hausnartzera eraman nau V. Mapa Soziolinguistikoa. Euskara izan da nire hizkuntza beti: etxean, lagunartean, eskolan eta lanean. Unibertsitatea eta nire egungo etxea dira salbuespenak. Gazteleraz egin nituen Ikus-Entzuzeko Komunikazio ikasketak, nahiz eta hizkuntza hori inork irakatsi ez. Nire hiztegia ez zen, noski, erdal hiztunena bezain oparoa, baina moldatu nintzen. Eta gaur, gazteleraz egiten dut bikotekidearekin; katalana da. Erosotasunagatik izan da; aitortu behar dut. Seme bat bidean da, ordea, eta garbi daukagu: euskaraz egingo diot nik eta katalanez aitak, eta gaztelerak etxeko eta gure arteko hizkuntza izateari utziko dio. Bestela ere ikasiko du. Bai, horixe!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Men(p/d)ekotasuna

Maialen Odriozola  
eibar.org/blogak/odriozola/

Beste gauza baten bila ari nintzela, Marc Masip psikologoaren hitzekin egin dut topo gaur nahigabe (interneten gaitza: askotan alde batetik bestera saltoka ibiltzen naiz, azkenean, zerren bila ari nintzen ere ahaztu arte).

Kontuak kontu, arreta deitu dit elkarrizketaren titularrak:

"Teknologiaren esklabo egin gara", dio psikologoak.

Bertan, teknologiaren mendekotasunak eragindako nahasmenez hitz egiten du, norbanakoaren gaixotasun eta gizarte (ia) osoaren desoreka gisa.

Hemen elkarrizketa [Interneten dago lotura], irakurri nahi izanez gero.

Beste edozein mendekotasunekin gertatzen den bezala, azkenean, sarearekiko atxikimendua (etengabe konektatua egon beharra) izebergaren tontorra baino ez da.

Txantxetan edo erabiltzen dugu guk hitza gure artean:

"Mugikorrari adikzioa diozu... (zuk utzi eta bi

minututara hori aurpegiratu dizuna dago pantailari so eta hatzak teklatuan dantzan)", "mahai gainean utziko ditugu denak eta mugikorra begiraten duen lehenengoak ordaintzen du erronda (taberna giroan; inoiz bete ez dugun mehatxua, bestalde)".

Baina nago mendekotasunaz baino menpekotasunaz ari garela, eta horretan nintzela duela pare bat aste *El Pais* egunkarian irakurritako artikuluak etorri zait burura:

Dan Dennett filosofoaren hitzak interneten balizko kolapso baten inguruan.

"Sarea erori egingo da, eta izu-boladak ezagutuko ditugu. Gure aukera bakarra lehen 48 orduak bizirik irautea da. Horretarako, salbamendu-txalupa bat eraiki behar dugu".

Interneten sorrerarekin (ia) desagertu den erakunde sareak (elizak, kongregazioak, elkarte sozialak...) berreskuratu behar ditugula egoera horretan bizirik irauteko nabarmentzen du Dennettek.

404 global horrek harrapatzen banau zer egingo dudan pentsatzen jarri naiz.

Hasteko, ezingo nizuen hau kontatu.

Auskalo zer pasatuko den, agian, arrazoi izango du baina oso txarra naiz etorkizuna imajinatzen (edateko urik gabe geratzen bagara, Palma hondoratzen bada edo *Goenkale* amaitu).

Horregatik, benetan arreta deitu didana filosofoak esandako hurrengoa da:

"Zoragarria da internet baina kontuan hartu behar dugu inoiz ez garela zerbaitekiko hain mendekoak izan. Inoiz. Pentsatzen jarriz gero, nahiko ironikoa da honaino ekarri digun horrek harrizko arora eraman gaitzakeela". (Konexiorik gabe, akabo men(p/d) kotasunak... badu kaosak tentagarritik zerbait bestalde...).

## Errugabetasun ustekizuna

Bixente Serrano Izko  
berria.info/blogak/bixente/

Jainkoak libra zaitzala epaile fededunengandik!

Hain zuzen, errugabetasun ustekizunik ez, jatorrizko bekatua ikusiko dizute lepoan.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal  
**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Urbane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Inaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Cordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritza diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

## Ezker Anitza-IUk uko egiten die inposizioei

Juan Luis Merino

(Eskoriatzako Ezker Anitza-IUko zinegotzia)  
Eskoriatza

Epai batek Eskoriatzako Udala behartu du udaletxeko balkoian eta osoko bilkuren aretoan Espainiako bandera jartzera. Bada, Ezker Anitza-IU ez dago ados epai horrekin, inposizio hutsa delako eta PPren Gobernuaren ordezkari Carlos Urquijoren inportu politiko bat delako.

Eskoriatzan soluzioa behar duten gai ugari daude, eta Ezker Anitza-IUk uste du horiek direla herritarren interesekoak: pertsona asko langabezian (269), etxegabetze-mehatxu bat baino gehiago, zerbitzu publikoetako murrizketen eragina osasun eta hezkuntza alorretako kalitatean, gure herriarentzat etorkizun bat bilatzea garapen-bide berriak zabalduta... Gai horiek kezkatzen gaituzte egunero-egunero. Udaletxeko balkoian Espainiako bandera edo ikurrina egotea ez zegoen lehentasun horien artean, gai horri irtenbidea topatu zitzaion-eta aurretik. Bere egunean erabaki zen bandera guztiak kentzea udaletxeko balkoitik, eta egun berezietan bakarrik jartzea; ekaineko

jaietan, adibidez. Horrela, lortu da 30 urtean liskarrik ez egotea Eskoriatzako herritarren artean banderen kontuagatik.

Ezker Anitza-IUren ustez, PPren eta haren ordezkariaren jokaera guztiz arduragabea izan da gai horretan. Soluzio bat zegoen, eta arazo bat sortu dute. Ez dira konturatzen herriak bere egiten ez dituen sinboloek zatiketa sortzen dutela eta inposizio moduan hartzen direla. Bandera bat inposatzeak -kasu honetan espainola- ez du esan nahi propio moduan hartzen denik.

Ezker Anitza-IUkoontzat, Espainiako Estatuaren gaur egungo bandera ez da gurea. Legezketasun errepublikanoren aurka altxatu zirenen bandera da. Diktadura frankistaren eta erregimen haren oinordeko monarkiaren bandera da. Ezker Anitza-IUk ez du "banderen gerran" parte hartuko, Eskoriatzarentzat lehentasunezkoak diren beste gai batzuk bigarren mailan geratuko lirakeelako. Eta oportunitate politikoa erabili duenaren inposizioa guztiz gaitzesten dugu; mota horretako neurriekin gauza bakarra lortu gura du hark: Espainiako eskuin osoaren espazio elektoral hartzea.

Eskoriatzak ez du gura Espainiako Gobernuaren ordezkaria hona etortzea amorrua sortzera, herritarrengan guztiz normalizatua zegoen gai baten gainean. Horregatik, eskatzen

dugu gure herriari ezarritako kanpo inposizioek ez dezatela liskarra eta banaketa ekarri. Gure esku dago; horren alde egingo du Ezker Anitza-IUk.

## Botiken kopagoa ezabatu

Itziar Usandizaga Galarraga

(Duintasuna, Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkarte)  
Bergara

Azken ohiko osoko bilkuran Bergarako udalbatzari gure kolektiboan ondoeza azaldu genion berrordainketaren inguruan eta berau aho batez onartua izan zen.

Ez horrela San Joxepe Elkarteko Zuzendaritza Batzardeak. Ezin dugu ulertu mozioarekin bat egin nahi ez izatea. Beraien jarrera ulertezina egiten zaigu, bertako kideak zuzen-zuzenean kaltetuak direlako. Eta ezin dugu ulertu urteko bazkideen batzarrean ez aipatzea Osakidetzak martxan jarri duen kanpaina. Eta berarekin bat ez egitea; hau da, 18.000 euro/urteko baino gutxiago kobratzen duten pentsionistek kobratsatuak izango direla adieraztea, eta haiek bultzatzea, jarrera aktiboa hartuz, anbulatorioetan horretarako jarri dituzten zirkularrak betetzera.

Guk botiken kopagoari repago deitzen diogu; izan ere, aurrez ondo ordainduta ditugu.

## Gizarte leloa

Jon Otero Uribarren

Arrasate

Izenburu gogorra, baina egia da; horregatik gabiltza gabiltzan moduan azken 50 urteetan. Espainiako Estatuan sortu zen telebista, 1958an, gutxi gorabehera. Garesti zen eta emisio txikikoa, kate gutxi, bi 70ean. Nire etxean 71n erosi zuten, 6 urte nituela; gogoan dut zorionak alde egin zidan garaia izan zela. Etxe txiroetan garai hartan erosi zuten. Eztanda bat izan zen. Ez da kasualitatea 68ko maiatza hura, berau hedatu izan zenean gertatu izana.

Lelotzen du gogoia telebistak; umeak bakarrik ez, baita nagusiak ere. Jendeak asko maite du telebista. Kritikoak dira batzuk programa batzuekin, baina denok, %99k dute *kaxa tontoa* etxean. Horrela ezin da aurrera egin. Morboa da telebista, zabor hutsa. Herri lelotuak ez du funtzionatzen ekonomian. Telebista herri xeheak erosi zuenetik, *kasualitatez* ekonomian langabezia arazo dugu. Badaramagu 40tik gora urte langabezia, 2003ko arnasalditxo pasajeroaz, gutxi gorabehera.

Ni haurra nintzenez, taberna batzuk sonorizatu gabeak ziren, ez telebista, ez disko. Oso alaia zen taberna haien giroa, abestu egiten zuten txikiteroek, eta berba ozenki, herri giroa erabat,

aitak eramaten ninduenan. Sortu ziren diskotekak, droga, giro artifizialak ugaritu, noraeza, ingelesez musikarekiko lotura arrotza.

Eta irratia. A ze hirukotea. Telebista, irratia eta disko. Jainkoari eskerrak kasetea desagertu da. Nire nerabezaroan agure-atso batzuek zioten irratia eten zuela familia giroa eta elkarrizketa, kontu kontari ibiltze hori. Nire etxean, zorionez, ez zen irratia askorik jartzen, baina egon zen sasoi eta ordu konkretu bat.

Zergatik maite ditu herriak giroen, gizatasunaren distorsionatzaile horiek? Ez dakit. Baina gizakiak ez du sinesten fedez deabruaren existentzian. Deabrua zerbait espirituala da, gure pentsamendu txarretan daramagu, baina gorpuztu daiteke. Zaila da azaltzen. Hiru gailu horiek debekatu behar dira osasun psikikoa barneratu dezan herriak. Gizatasunaren bidea, sano, horiek gabeko giro sozialetan, etxeetan, tabernetan... bizitzea da. Ilusio fantasma hori desagerrarazi behar dugu, mundu osotik. Herriaren aurka?

Lelotasunaren aurka? Ez dakit, oso konplikatu ikusten dut herria goxo konbentzitzea.

Adibide bat: hemen debekatzen badira hiru gailu horiek, langabezia desagertuko da. Ekonomia? Bai, erlazioa du kulturarekin. Aktiboago bihur dezagun herria, bila dezagun bere indarra. Sormena aurrera!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Debagoiena zuzenean

Gertuko kontuak, bertatik bertara

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**



Kristina Elkoro | Enpresare taldeko presidentea eta Elay enpresako ordezkaria

# "Enpresare sortu dugu Bergara, Antzuola eta Elgetako industria sektorea berraktibatzeke"

- ▶ Inguruko enpresa gehienek ez dutela esportatzen azpimarratu du Enpresare taldeak
- ▶ Enpresa txikietan "hausnarketa eta nazioartekotzea" bultzatzea da lehentasuna

ENEKO AZKARATE | ANTZUOLA

Bergara aldeko enpresak berrindartzeko sortu berri den Enpresare taldeko presidentea da. Horretaz gain, Elayko ordezkaria. Bi erakunde horien gainean dihardu; izan ere, Antzuolan, Mexikon eta Txinan lantegian dituen Elay taldea albiste da egunotan, zientzia eta fabrika uztartzen dituen proiektu bategatik.

**Zer da Enpresare?**

Jatorria da aurreko agintaldian Bergarako Udalaren ekimenez egin zen hausnarketa estrategikoa. Industria sektorearen egoera eta krisiak eragindako jardura ekonomikoaren jaitsiera izan zen aztergaietako bat. Hausnarketa eta kezka horren ondorioz, agintaldi honetan sortu zen Enpresaren Foroa eta hortik etorri da Enpresare. Bergarako Udaleko, enpresetako eta hezkuntzako ordezkariak daude bertan, eta baita Debagoieneko Mankomunitatekoak ere. Horretaz gain, kontseilariak deritzenak ere badaude, erretiroa hartu duten pertsonak, baina sektorea ondo ezagutzen dutenez, asko eman dezaketenak.

**Ze helburu dauka?**

Helburu nagusia da Bergara, Antzuola eta Elgetako industria sektorea berraktibatzea. Helburu handia da, baina uste dugu premiazkoa dela agente ezberdinak elkarrekin aritzea Bergara aldeko industria sektorea indartzeko, berpizteko eta, ahal bada, berriak sortzeko.

**Zein da Bergarako, Antzuolako eta Elgetako enpresen egoera eta premia nagusia?**

Taldea osatu zenean, enpresa ehunaren diagnostikoa egin genuen. Ondorioa da Bergara eta inguruko enpresa gehienak 50 langile baino txikiagoak direla. Horixe da errealitatea: enpresa osagarri txiki asko dago Bergaran eta inguruan. Bestetik, diagnostikoak erakutsi zigun enpresa gehienek ez dutela esportatzen eta merkatu nagusia dela Hego Euskal Herria edo Estatu Espainola. Errealitate hori aintzat hartuta hasi gara lanean.

**Aurtengo kudeaketa planean zeri eman diozue lehentasuna?**

Enpresetan hausnarketa estrategikoa egitera eta nazioartekotzea lantzerako. Lehen urratsak egiten hasi gara, bi ildotan: batetik, enpresa txikietan hausnarketa bultzatzea; bestetik, nazioartekotzea.

**Astlehenean jardunaldia egin zenuten Bergarako Migel Altuna Lanbide Heziketa institutuan. Zerarako?**



Kristina Elkoro oraingo eguaztenean Antzuolako Elay enpresaren lantokian. | ENEKO AZKARATE

Batetik, formazio mailan, enpresak eta eskola gerturatzeko prozesuan, Migel Altunak eskaintzen dituen aukerak ikus ahal izan genituen. Bestetik, Mankomunitatearen aldetik, enpresei laguntzeko ze diru laguntza dauden azaldu genuen. Azkenik, guretako oso garrantzitsua dena, Bergarako bi enpresa txiki nazioartekotzea zela egin duten azaltzeko aukera izan genuen. Mujika Kautxoak eta Segur Torlojugintza dira enpresa horiek. Lehenengoa hamahiru laguneko lantegia da, baina Errumaniar zapi laguneko beste lantoki bat dauka. Besteak, Segurrek, hau ere hamahiru laguneko, ez zuen ikusten kanpoan lantokirik zabaltzeko aukerarik, baina nazioarte mailako kontsorzio bateko kide da eta horren bidez lortzen du Europar saltzea, Europako hainbat feriatan parte hartzea eta baita bisita edo bidaiak komertzialak egitea ere. Gero, bestetik, enpreson arteko harremanak bultzatu eta sinergiak bilatzea ere bada Enpresaren beste helburu bat. Elay, esaterako, Mexikon dago eta badugu esperientzia bat. Hango merkatua ezagutzen dugu. Horretan lagun diezakegu.

**Higgs bosoiaren aurkikuntzan lagundu du Elayk eta hori dela-eta ekitaldi berezia egin duzue lantegian Jakiunderekin batera.**

1999an hasi genuen proiektua. 2006ra arte egon ginen CERN izeneko proiekturako piezak egiten. 6 milioi pieza egin genituen. Genevan tunel berezi bat egiteko balio izan zuten pieza horiek. Proiektua garatzeak lan handia eragin zien hemengo injineruei. Jakitun ginen garrantzitsua zen zerbaitean parte hartu genuela, baina ez genuen jakin hori saltzen. Aita Jose Luisek, askotan azpimarratzen zuen hori, hau da, ikerketa garrantzitsu baten parte hartu genuela, baina ez genuela jakin hori nabarmendu eta saltzen. Baina Higgs bosoi aurkitu zenean tunel horretan, berriro ere ekin genion gaiari eta nahi izan genuen nabarmendu egin-

dakoa, bai etxe barruan, lantokian, eta baita kanpoan ere. Jose Luis Etxenikerekin harremanetan jarri zen aita eta Jakiunderen bitartez gaia kanpoan eta langileen artean azaldu nahi izan dugu.

**Elay Debagoieneko enpresa erreferentziakoetako bat da. Zein da, une honetan, haren egoera?**

Krisiak eragin handia izan du gure enpresan. 2009an igarri genuen bereziki. Hura izan da urterik txarrena, ze 2008an fakturazio errekorra izan genuen -eta. 2009an, ostera, gure jardueraren erdira jaitsi ginen, %40ko EREa egin genuen, soldata murrizketa... 2011n hobera egin genuen, baina krisiaren ondorioak nabariak dira: lan gehiago egin behar

dugu gutxiago irabazteko, komertzial alorrean asko borrokatu behar da... Gure sektoreko enpresa askotan antzekoa da egoera.

**Krisiak aldatzeko balio izan dizue?**

Bai. Hausnarketa egin dugu eta barneratu dugu gauzak beste era batera egin beharra dagoela. Eta aldatu beharra daukagu, bereziki, efizientziaren aldetik. Horretarako, antolaketa ere hobetu beharra daukagu. Horretan dihardugu, aldaketa prozesu sakon baten. 2013a, oraindik ere, ez da urte ona izan. Salmentaren aldetik, 2011 eta 2012a baino eskasagoa izan da. Salmenta txikiagoak izan arren, emaitza hobea izatea dugu helburu. Egia esan, zaila izango da krisiaren aurretiko egoerara itzultzea, baina, behinik behin, enpresa lehiakorrek eta jasagarriak izatea lortzea lortu beharko genuke. Lan asko daukagu barruan egiteko.

**Mexikoko lantokia zela doa?**

Urtetik urtera hobetzen eta hazkunde handiarekin. Mexikoko plantaren merkatua Ameriketako Estatu Batuak dira. Europako merkatuaren aldean, ikusten ari gara Ameriketako Estatu Batuetakoa dinamikoagoa dela eta hazten doala. Izan ere, han ere krisian murgilduta egon dira. 2000. urtean ireki genuen Mexikoko Celay enpresa, gure ohiko bezero batzuek hala eskatuta, Mexikora zihozelako. Hasierako urteak zailak izan ziren. Baina, orain, esan genezake Antzuolako Elayk krisiari eusten lagundu diola Mexikoko plantak.

**Elay taldeak Mexikon lantegia zabaltzeko erabakia hartu izan ez balu, egoera berean egongo zen?**

Inondik inora ere. Esaterako, iaz, Mexikon lanez gainezka zeuden eta hemen produkzioa jaitsita zegoenez, harako piezak fabrikatu izan ditugu Antzuolan. Horrekin ez dugu dirurik irabazi, baina hemengo, Antzuolako, lantegiri eutsi diogu eta hori oso garrantzitsua da guretako.

**Lantegia euskalduntzeko planetan aitzindari izan da Elay eta behin helburuak beteta, bertan behera utzi duzue plana.**

Bai, pozik gaude, helburuak bete ditugulako, lantegia euskaldundu dugulako eta gure egunerokoan, euskara delako hizkuntza nagusia, gauza guztietarako.

**"Hemen inguruko enpresa gehienak 50 langile baino txikiagoak dira"**

**"Higgs bosoi aurkitzen lagundu izanak harro sentiarazi gaitu"**

**"Krisiak erakutsi digu aldatu beharra daukagula, bereziki, efizientzian"**

**"Antzuolako Elay euskalduntzea lortu dugu eta oso pozik gaude horregatik"**

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## DUELA 10 URTE

2004-02-05

## Anbulatorioa berritzen hasi ziren

Arrasateko anbulatorioa berritzatzeko proiektua martxan jarri zen. Aurreneko urratsa otsail hasieran egin zuten eta lekualdaketein hasi ziren orduan, zortzi kontsulta ospitalera igarota. Asmoa poliki-poliki lanak aurrera eramatea zela eman zuten aditzera ospitaletik, anbulatorio osoa berritzatzea baitzen proiektuaren helburu nagusia: zerbitzu guztiak eta eraikina bera egokitzea, hain zuzen ere.



Langileak lekualdaketa egiten. | ARRASATE PRESS

2004-03-26

## XX. mendeko langileak, liburuan

Arrasate, langileek eraikitako herria izeneko liburua kaleratu zuten Arrasateko Industria Erakusketako arduradun Isabel Aramendiak eta Leire Parra historialariak. Langileen testigantzetan oinarrituta zegoen eta haien bizimoduen bilakaera jasotzen zen. Hain zuzen ere, 1993an Arrasateko industriaren historia berreskuratzeko lanean hasi zirenean, protagonistak desagertzen ari zirela ohartuta egin zuten liburua.

## DUELA 5 URTE

2009-06-30

## Igogailuaren pasabidea

Orain dela bost urte, ekainaren 30ean, hasi ziren Ferixalekua eta Altamira lotzen dituen igogailuaren pasabidea muntatzen. Bi aste inguruko lana izan zen, baina azken ukituak ematen hila-bete osoa egin zuten. Abuztuan, lehenengo igogailuaren egitura altxatzen hasiko zirela eman zuten aditzera Udaletik.

## ARRASATE

## HERRITARRAK

**Jon Barriocanal** Ikasketez sukaldaria da Arrasateko San Andres auzoko bizilagun hau eta hilabete amaieran izango diren festen antolaketan burubelarri murgilduta egon da. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

# "Urteekin San Andres auzoa aldatzen joan da; mentalitate aldetik, batez ere"

**G**asteizko Mendizorroztako Sukaldaritza Eskolan ikasi zuen Jon Barriocanal (Arrasate, 1978); hain zuzen ere, lapiko artean eroso sentitzen den horietarikoa da. Baina gainera, San Andres auzoa gobernatzeko ardur hartu zuen duela bi urte, eta azkenaldian jaiak prestatzen aritu da Etxaluzeko eraikinean dagoen auzo-alkatetzan.

**Lapiko artean abila zarela entzun dugu.**

Hala da; Gasteizen Sukaldaritza ikasi nuen eta horren ostean gozogintza-modulu bat egin nuen. Bietan eroso sentitu arren, batez ere sukaldean sartzeko sentitzen naiz nire saltsan. Gainera, lanerako ere, hortxe topatzen da normalean lekua, oso gutxitan behar izaten baitituzte gozogileak, ez baldin bada hotel handietan-eta. Eta, horrez gainera, sukaldari moduan esparru gehiago lantzen dira.

**Zein plater prestatzen duzu ondoen?**

Esango nuke dena irteten zaidala ondo! [Barre] Txantxak txantxa, arraina prestatzea gustatzen zait eta primeran irteten zait bakailoa saltsa berdean. Horrelako errezetekin gustura aritzen naiz.

**Plater tradizionalak nahiago dituzu, orduan?**

Egia esan, etxean lasai asko koiznatzeko bai, ez naiz esperimintatzen hasten eta nahiago dut arrain on bat-edo prestatzea.

**Eta etxean zein lagunartean, zu zara sukaldari ofiziala?**

Egia esan behar baldin badut, bai. Etxean, normalean, nik prestatzen dut janaria, eta baita lagunartean ere; izan ere, elkarte bateko bazkide bakarra naiz kuadrillan, eta, gainera, sukaldaria izanda... Urrezko gizona naiz haientzat! Dena dela, lehen baino gutxiago egiten dugu orain, nik ere disfrutatu nahi izaten dut,



Barriocanal, San Andres auzoko Etxaluzeko eraikinaren aurrean, auzo-alkatetzan dagoen tokian. | ZV.D.M.

**"Kuadrillan elkarte duen bakarra izanda, niri egokitzen zait janaria prestatzea"**

**"Azkenaldian, San Andresko jaiak antolatzen ibili naiz, laster dira-eta"**

eta ardura guztia nire gain egoten da bestela: erosketak, prestateta... Noizean behin, sukalde-laguntzaileren bat harrapatu izan dut, baina segituan egin izan dute alde!

**Sukaldaria ikasketez, baina bes-telako saltsetan ere aritzen zara; izan ere, denbora luzea eskaintzen diozu San Andresko auzo-alkate izateari...**

Hala da; lan finkorik ez dudanez, ordu asko eskaintzen dizkiot alkatetzari. 2012an eskaini zidaten, eta, inor ez zenez animatzen, baiezkoa eman nuen. Zorionez, laguntza izan dut lan hau nola egin jakiteko, aurretik sekula ez bainintzen ez elkarte ez bestelakoetan aritutakoa.

**Beraz, ez zabilta bakarrik.**

Ez, baina egia da gazte jendearen laguntza handiagoa izatea eskertuko nukeela. Eta, batez ere, orain moduko daten harira, hau da, festen bezperetan: kartelak ipiniz,

idea berriekin ekarpenak eginez... Egia da ezin diedala eskatu nik adinako denbora eskaintzea, auzo-alkatea naizen aldetik, ardura zehatz batzuk baititut nire gain. Baina jaiak ez dira niretzat, gutzintzat dira, eta ez dut ulertzen jendea antolaketan ez sartzea. Auzoagatik zerbait egin nahi nuelako sartu nintzen honetan, baina konturatu naiz jende askok ez duela parte hartzen. Zer gertatuko da lan batean hasten naizenean eta orain besteko denborarik eskaini ezin diodan eguna iristean?

**Oro har, nola ikusten duzu San Andres auzoa?**

Niretzako, bizitza propioa duen tokia da San Andres. Bertan jaio nintzen, eta, orain bertan bizi ez arren, denbora luzea eskaintzen diot auzoari. Gainera, ia denetik daukan tokia da: askotariko dena, gazteentzako gunea, tabernak... Musakolaren antzera, gutxi gora-

behera. Dena dela, urteekin asko aldatu dela esango nuke; mentalitate aldetik, batez ere. Lehen, jendea gehiago nahasten zen auzoko kontuetan, eta bestetik, orain gazte askok erdialdera joateko ohitura dute.

**Maiatzaren 1a San Andresko jaiak antolatzen dugu Arrasaten eta dagoneko prest duzue egitaraua.**

Antolatu ditugu aurtengo festak, bai, inprentan dago egitaraua! Eta baditu berritasunak. Izan ere, esate baterako, iaz egun askotan zehar banatu genituen ekimenak, baina jendeak jai izanda auzotik alde egiten duenez, ez duela merezi ikusi genuen. Hori horrela, bi egunean ekintza ugariarekin gozatzeko aukera egongo da, eta gero, jendea kanpora joaten baldin bada, gustura joan dadila. Apirilaren 30ean, esate baterako, Extremadurako Sinkope rock taldeak kontzertua eskainiko du.

## NIRE HERRIAN

## HERRITARREK ELKAR EZAGUTZEA

Toki handiagoetan bizi izan naiz, eta Arrasatek gehien gustatzen zaidana, zalantza barik, bere tamaina da. Izan ere, kalera irteten zara eta jende gehiena ezagutzen duzu, bistaz bada ere. Toki handiagoetan anonimoagoa zara, gauza onetarako eta txarretarako. Hemen, dituzun lagunak betiko izaten dira.

## ETXETRESNEN ITXIERA

Egia esan, herritik gustatzen ez zaizkidan gauza gutxi daude. Akaso, momentu honetan, txarrena, Fagor Etxetresnen itxierak eragindako egoera da. Azken finean, jende ugari nabaritu ditu ondorioak, zuzenean izan zein zeharka. Ez da Arrasateri bakarrik eragin dion zerbait, baina kolpe handia izan da.

# HERRIAK

ANTZUOLA

## Larrañaga: "Baserritarra ondo tratatzen da taldean"

Saskiola kontsumo taldeko kideek maitzera arteko proba egiteko konpromisoa hartu dute, oraingoz

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hilabete egin berri du Antzuola-ko Saskiola kontsumo taldeak. Lapatzako baserriko Tomas Larrañaga baserritarra da taldean dagoen banatzaile bakarra, oraingoz. Harekin izan gara ekimenaren balorazioa jasotzeko: "Hasieran beldur nintzen, askorik prestatu gabe ekin geniolako kontsumo taldeari. Hilabete zailak datoz orain, barazki gehienak loretan daudelako eta produktu gutxiago jasotzen ditugulako baratzetik", azaldu digu. Udaberrian aukera gutxiago izaten dela dio, landareek loretara jotzen dutelako; udara arte itxaron beharko da, ordea, saski koloretzu bat jasotzeko.

"Gure apustua herriko azoketako salmenta zuzena dela esan izan dut beti. Kontsumo taldea ere zirkuitu motza da eta harreman estua sortzen da. Baserritarra ondo tratatzen da, eta horrek animatu ninduen", nabarmendu digu.

"Beste baserritar batzuek ere interesa zuten hasieran, eta, guggana gerturatu ziren arren, ohitura eta prestakuntza txikiagoa zutelako atzera egin zuten. Oraingoz, ni hasi naiz kontsumo taldearekin lanean", gaineratu du Larrañagak.

### 20 familia

Une honetan, herriko hogeita hamar familia osatzen dute kontsumo taldea. Beste bost, baina, itxaron zerrendan daudela kontatu du. "Bikote gazteen artean oso harrera ona izan du ekimenak. Nik ez nuen espero horrenbesteko arrakasta izango zuenik; jendea oso pozik dago, gainera".

Baina hogeita hamar familia horiek hornitzeko lain ematen du baratzek? "Desjabetze batzuk izan ditugu Beasain-Durango autobidea egiteko; ondorioz, mila metro berotegi eta zenbait baratz eta sagarrondo galdu ditugu. Baina hori aurreikusita geneukan eta Iralan zortzi mila metro karratu pasako baratzek prestatu dugu". Guztira, hiru mila metro karratu berotegi ditu eta hamar mila metro baratzek.

Gotzon Madina da taldeko idazkaria. Oso balorazio positiboa egin du. "Oso gustura gaude. Lapatzak ematen duen kalitatea bagenekien oso ona zela".

Saski erdia jasotzen hasi direla kontatu du: "Abenduan abiatutako ekimena da eta hasieratik



Tomas Larrañaga baserritarra Lapatzako berotegian. | MAIDER ARREGI

### Sasoiko baratzek, taldekideentzat

Udaberrian egon arren, eguraldiak markatzen du baratzek nolako izango den. Hala, neguko erreginek oraindik segitzen dutela azaldu digu: "Brokolia, aza, arbia... horrekin batera, porruak, letxuga eta eskarola ere bai".

Kontatu digu orain hasten direla lilikide batzuk ere: "Tipulina eta berakatz freskoa oraintxe hasi zaizkigu". Rukulak ere onarpen handia dauka: "Entsaladan jaten dute askok; kakahuete zaporea daukan barazki mota da eta propietate ugari ditu".



Saskiolako kideak, baratzeko sasoiko produktuekin. | AITZIBER GOÑI

saski erdia erabaki genuen produktua lehenbailehen banatzen hasteko". "Otarre erdirekin ia barazkirik ez dugu erosi behar, oso zapora ona dauka, umeek ere gustura jaten dute! Dena oso txukun presentatzen du, gainera. Badakigu orain garai zaila dela baratzek eta izena eman dugunok badakigu porruak astero jan behar ditugula, sasoiak tokatzen dena delako. Gainera, Tomas saiatzen da brokolia, aza... denetik sartzen", dio Madinak. "Momentu honetan Euskal Herriko baratzek dagoena jaten dugu: kalitatekoa eta osasuntsua".

### Interesa dutenendako

"Elkarrekin erabaki dago eta kargua duen edonori izena emanda nahikoa da zerrendan sartzeko". Gotzon Madina idazkariak gain, Aitziber Goñi zerrendan arduraduna da eta Mari Karmen Iturbe, berriz, diruzaina. Hiruretako edozeinekin berba eginda izena eman daiteke zerrendan sartzeko.

Larrañagak azpimarratu du uda dela interesa duten familiek izena emateko sasoi onena. "Udan baratzek beteta egoten da, toma, letxuga... garai ona da kontsumo taldean parte hartzeko; izan ere, orain, baratzek, barazki gutxi dago".

### ESANAK

**"Euskal Herriko baratzekako sasoiko barazki osasuntsuak jaten ditugu"**

GOTZON MADINA | IDAZKARIA

**"Udaberrian aukera txikiagoa dago, landareek loretara jotzen dute-eta"**

TOMAS LARRAÑAGA | BASERRITARRA

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

**KONPONKETAK:**

Txapa

Margoa

Mekanika

### Etxebizitza blokeetan igogailua jartzea errazteko ordenantza

Zenbait etxe bloketan arazoak izan dira igogailua jartzeko. Bizilagunak ados jarri arren, behean lokala duen jabeak ez du igogailua behar baino jais-teko behar izan diren metro kopurua saldu nahi izan eta horregatik ezin izan da igogailurik jarri bloke horietan. Bada, udalbatzak azken osoko bilkuran ordenantza bat onartu zuten kasu horietan behar den metro kopurua desjabetzeko aukera ematen duena, beheko lokaleko jabeak metro horiek saltzen ez baditu.

### Euskal presoan aldeko azokarako materiala biltzen ari dira

Euskal presoan aldeko bigarren eskuko elkartasun azoka maiatzaren 10ean egingo da Herriko Plazan, 11:00etatik 20:00etara. Urtero moduan, antolatzaileak aspaldi hasi ziren azokarako materiala biltzen, eta, oraingoz, "material gutxi" jaso dutenez, herritarrei dei egin diete etxean soberan duten arropa, oinetako, liburu, CD eta bestelakoak utz ditzaten. Apirilaren 21a baino lehen utzi beharko da materiala, Iluntz eta Irati tabernetan.



Hondeamakina Polmetasa zaharreko bulegoen eraikina botatzen, asteon. | JOKIN BEREZIARTUA

# Erritmo onean doaz Polmetasa botatzeko lanak

- ▶ Amiantoa erabat kendu ostean, gaur hasiko dira eraikin handiena botatzen
- ▶ 2008a ezker arazoak izan dira San Andresko lantoki zaharraren bueltan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Astelehenean hasi ziren Polmetasa lantegi zaharra botatzeko lanak. Apirilaren lehen ekin zioten eraikin guztietatik amiantoa kentzeari eta astelehen goizean hasi ziren bulegoak eta gerentearen etxea zirena botatzen. Martitzenean makina bat hondatu zitzaizen, baina, segurtasun zibi-

leko teknikari Jose Luis Etxebarriaren arabera, "berehala" konpondu zuten arazoa.

Era berean, astelehenean hasitako lanak erritmo onean doazela dio lanak gertutik jarraitzen eta bertako segurtasunaz arduratzen ari den Etxebarriak: "Bulegoak eta gerentearen etxea bota ditugu eta gaur [eguen]

arratsalderako beste gune baten geratzen den amiantoa kentzea espero dugu. Bihar [egubakoitza] hasiko gara eraikin handiena botatzen eta gutxienez astebete beharko dugu horretarako", adierazi zuen atzo. Gestion y Amianto enpresako langileak aritu dira amiantoa kentzen, eta eraikinak botatzen Excavaciones Besaide

ESANAK

**"Eraikin handia botatzeko astebete beharko dugu"**

JOSE L. ETXEBARRIA | SEGURITASUN ZIBILA

enpresa ari da. Obrek 18.000 euroko gastua izango dutela aurreikusitu du Udalak.

**Jabea epaitegian zehaztuko da** Azken urteotan hainbat arazo egon dira Polmetasako eraikina- ren bueltan. Besteak beste, istilu eta suteen gaineko kexak izan dituzte auzotarrek. Polmetasak 2008an utzi zion bere aktibitatea San Andres auzoan gauzatzeari eta San Andres Berri SL etxegintza enpresari saldu zion lursaila; hala ere, San Andres Berri hondo jo zuen.

Horrenbestez, Polmetasa zahar- raren eremuaren jabegoa norena izango den epaitegietan erabakiko da, San Andres Berri enpresaren likidazioa amaitutakoan. Bada, lursaila norena den zehazten denean erabakiko da bertan zer egin.

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

#### AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1  
Tel.: 943 76 03 50

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

#### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

#### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

#### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

#### JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4  
Tel.: 943 76 53 53

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
uribesalgo@telefonica.net

Iñaki Sagasta | Gure Esku Dago taldeko kidea

# "Euskal Herriaren erabakitze eskubidea ezin du inork ukatu"

Domekako Eskutik Eskura Eguna eta ekimena bera azaldu digu Sagastak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko Gure Esku Dago taldearen bilera batetik irten berri dela harrapatu digu Iñaki Sagasta (Zigorrolako Osinako errota etxean jaioa, 1953an). Lantaldea "ilusioz gainezka" dagoela dio.

**Zergatik sartu zinen Gure Esku Dagon? Zerk bultzatu zintuen?**

Arrasaten ere Gure Esku Dago lantalde irekia abian jartzekotan zegoela-eta, lagun baten gonbidapena eta bultzadaxoa jaso ostean sartu nintzen. Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen aldeko herri ekimenak ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katea dugu helburu orain bertan. *Gazta Zati Bat* dokumentalean esaten denez, erabakitze eskubidearen gaia ezin da politikarien eskuetan bakarrik utzi.

Euskal Herriak zeinekin, zelan eta zertarako bizi erabakitze eskubide demokratikoa du eta inork ezin du hori ukatu. Dene-tariko ikuspegi, afizio, ofizio, adin eta jatorriko jendea egongo den ekimenean nire aletxoak jartzeko sartu nintzen lantaldean.

**Ateak zabalik daude oraindik?**

Erabat. Ederra izango litzateke jende gehiago animatzea; astelehe-



Iñaki Sagasta, ekainaren 8ko giza katerako metroaren txartelarekin. | J.B.

nero elkartzen gara Kulturaten (18:30), giro ederrean eta ilusioz gainezka. Hogeit bat lagun gara, bost azpitaldetan banatuta.

**Egitarau erakargarria antolatu duzue etziko. Zer prestatu duzue Eskutik Eskura Egunerako?**

Domekan, erraldoi, gaitero eta kilikien gidaritzapean alde zaharreko hiru ateak lotuko dira eskutik eskura, giza kate txiki bat eraikitze. Katalanak bidelagun izango ditugu, castellersa eraikiko dute-eta. Horretarako, baina, domeka eguerdian jendea Herriko Plazan erruz elkartzea komeni da. Jatekorik eta edatekorik ez da falta izango eta eguraldi ona enkargatuta dago. Animatu!

**Domekako moduko egun bat antolatzea ez da erraza izango, ala?**

Lan apur bat ematen du, bai, baina denon artean eta herritarren laguntzaz pozik egiten da.

**Ekainaren 8ko giza kateari begira, nola doa metroen salmenta Arrasaten? Oraindik erosi ez duenak non eros dezake?**

Jendea badoa giroan sartzen, kuadrillak animatzen doaz eta ilusioa sumatzen da. Txartela betez gero, ekainaren 8ko giza katean egoteko konpromisoa hartzen du herritarrek; bost euroren truke petoa jaso eta albo-koari eskua eman, hori bezain sinplea izango da. Arrasaten 1.500 metro lotu gura dira, gutxienez, eta, oraingoz, 600 lagun inguruk eman dute izena. Seber Altube plazan jarri dugun termometroa laster hasiko da kea botatzen, gora eta gora.

Oraindik metroa erosi ez duenarendako eguna eta egubakoitza izaten dira Portaloian mahaia jartzeko egunak, 19:00etatik 20:30era. Bertan, metroen txartelak, kamisetak eta herriko musikari zein idazleen produktuz betetako saski baterako txartelak jartzeko ditugu salgai. Eta noski, zuen galdera guztiei erantzuteko borondate ezin hobea ere aurkituko duzue.

**Zerbait gaineratzerik nahi duzu?**

Hasteko, animoak bidaltzea kataluniarrei, honezkerok hasita duten bidean aurrera egin dezaten. Euskal Herriari dagokionez ere, denon artean egin beharreko bide luze honetako lehenengo urratsean ere animo asko denoi, beharko ditugu-eta!



Erdiko kaleko etxe bateko balkoia, egurrezkoa. | JOKIN BEREZIARTUA

## Termiten izurriterako erabiliko diren produktuak, ezbaian

J.B. | ARRASATE

Alde zaharrea termita izurritea kontrolatzeko lanak Anticimex 3D Sanidad Ambiental SA enpresari esleitzea adostu zuen udalbatzak martitzeneko osoko bilkuran, aho batez. Hori bai, zenbait herritarrek izurrite horren aurka egiteko enpresek erabiltzen dituzten produktu toxikoen arriskuaz ohartarazi zuten: "Harritu egiten nau Udalarari ez kezkatzea produktu kimiko oso arriskutsuak erabiltzen direla eta orain arte ere erabili direla alde zaharrea. Izan ere, azken bost urteotan produktu kimiko horiez josi dute alde zaharra eta hori, ingurumen-mediku moduan, astakeria iruditzen bat. Beste alter-

natiba ekologiko batzuk badaude, ez direnak osasunerako kaltegarriak", adierazi zuen Dorleta Martinez medikuak.

Udal Gobernuko bozeramaile Mainer Morrasek, herritarrei gai horren berri eman izana eskertzeaz gain, euren ekarpena aintzat hartuko dela esan zuen: "Txosten teknikoetan oinarrituta ireki dugu adjudikazio prozesua, baina eskertzen dugu zuen ekarpena. Ez dugu arazorik nahi, ondo aztertuko ditugu zuen eskaerak".

PSE-EEko zinegotzi Aritz Arrietak Udaleko zerbitzuek egin dituzten ikerketetan "erabat" sinesten duela adierazi zuen, eta, beraz, txosten teknikoari kasu egin behar zaiela.

**"Seber Altubeko termometroa laster hasiko da kea botatzen, gorantz"**

**"Jendea girotzen, doa, kuadrillak ere animatzen; ilusioa sumatzen da"**

**'ESKUTIK ESKURA' HERRIKO PLAZAN**

**DOMEKA, APIRILAK 13**

**11:30** Jana eta edana.

**12:00** Giza katea alde zaharreko arkuak batuz.

**12:30** Gaiteroak eta Erraldoi eta kilikien konpartsa.

**13:00** Sant Cugat del Valleseko castellersak.

**Goizean zehar** Metro eta kamiseten salmenta.

Eguraldi txarra bada, ekitaldiak Uarkape frontoian egingo dira.

Laguntzaileak: Udala, Otamendi Agirre-Etxe, Gorka eta Giokela.

www.citroen.es

ESKATZEN DIOZUNEAN

CITROËN C4 AIRCROSS

15.800€\*-tik aurrera

CITROËNek nahiago du TOTAL

**CITROËN C4 AIRCROSS. CITROËNEN CROSSOVERRA**

\* Prezio gomendatua: Citroën C4 Aircross 1.6i Stop & Start 2WD Black Attraction (zergak, garraioa, eskaintza eta 5. Pive Plana barne), 5. Pive Planari eusten dioten, eroslearen jabetzakoa den auto bat trukean uzten duten eta Banque PSA Financeren bidez gutxienezko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duten bezero partikularrendako. Hilabetea amaitu arte, parte hartzen duten salmenta puntuetan. Eskaintza ez da bateragarria. Kontsultatu baldintzak [www.citroen.es](http://www.citroen.es) webgunean.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Etor zaitetz ikustera:  
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:  
**TALLERES CHAPIME**, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

CITROËN

# Aurten hasiko dira Takolo-Goiru proiektuan zehaztutako lanak

Egitasmoari buruzko erakusketa eta hitzaldi saioa egin dituzte aste honetan

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Takolo-Goiru proiektuari buruzko hitzaldi-saioa eta erakusketa izan dira aste honetan Kulturaten. Udal arduradunek proiektu horren xehetasunak eman eta egitasmoaren helburuak zeintzuk diren azaldu zuten asteleheneko eta martizeneko saioetan.

Hirigintza zinegotzi Joxe Etxeberriak azaldu zuenez, proiektu hori Udalak abiarazi nahi duen mugikortasun estrategiaren barruan kokatzen da. Orain arte ibilgailuek izan duten lehentasuna alde batera utzi, eta bizikletentzat zein oinezkoentzat esparru berriak zabaldu nahi dira. Horretarako, Takolo eta Goiru artean dagoen errepidea estutu, Uribe auzoko ikastolaraino bidegorria eraiki, eta oinezkoentzat espaloi zabalagoak irekiko dira.

Lehentasuna Udala eta Foruen plazen arteko guneak izango du. Etxeberriak dioenez, hori da Takolo eta Goiru arteko gunean herritar gehien ibiltzen den inguru, eta, horregatik, lan garrantzitsuenak bertan egingo dira. Udalak gune hori oinezkoiei eskaini nahi die, eta, oraindik erabakia hartu ez duen arren, ibilgailuen zirkulazioa moztu edo arau lezake etorkizunean.

## Lanak aurten

Takolo-Goiru proiektuan azaltzen diren bederatzi faseak egiteko bost milioi euro behar izango dituela uste du Arrasateko Udalak. Hiru hilabete dela, milioi



Herritarrak, Kulturaten egindako saio irekian. | MIKEL ARREGI

## Bidegorri sarea martxan

Takolo-Goiru proiektuaren aurkezpena aprobetxatu du Udalak etorkizuneko bidegorri sarea herritarrei ezagutzera emateko.

Herri kanpoaldean dauden bidegorriei, erdialdekoak gehituko zaizkie. Horretarako, Etxaluze-Zigorrola zatiko bidegorria egitea aurreikusten da; baita San Andres eta Uribe auzoa lotuko dituen ere.

bat euro eman zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalarari Takolo eta Goiru artean dagoen GI-2620 errepide zatiaren eskumena hartzeagatik. Eskualdatzeagatik jasotako dirua erabiliko du Udalak, hain zuzen, proiektuaren lehenengo fasea egiteko.

Oraindik behin betiko erabakia hartu barik dagoen arren, lanak aurten hasiko direlakoan dago Joxe Etxeberria. Udal Gobernuak proiektuaren gaineko zehaztasunak erabaki beharko ditu orain, gero bizilagunei hari buruzko informazioa eskaini aurretik. Eta, hori egin ostean, urte honen bukaeran makinak lanean hasiko direla uste du Arrasateko Udalak.

# Maiatzaren 10ean egingo da Takarraran lasterketa

Orain arte Martxoaren 8aren bueltan egiten zen lasterketari izaera propioa eman nahi izan zaio

M.A | ARRASATE

Aldaketekin dator aurtengo Takarraran emakumezkoen lasterketa. Orain arte, Martxoaren 8ko egitarauaren barruan egon da Takarraran, eta aurten, berriz, maiatzera eroan nahi izan dute. Eguaztenean egindako aurkezpenean antolatzaileek esan zuten, erabaki horrekin izaera propioa eman nahi izan zaio Takarrarari.

Aurten seigarrenez, kaleetan emakumearen presentzia areagotzea izango da, beste behin, Takarraranen helburua. Hauxe esan du Udaleko Berdintasun zinegotzi Mainer Morrased: "Kirolean inbertitzen den dirua, atentzioa eta energia beti da gizonezkoen kirol profesionala sustatzeko, eta hor ere emakumeok bigarren mailako izakiak gara. Horregatik esan gura dugu emakumeok kirola egiten dugu-

la publikoki, eta hori erakutsi gura dugu".

## Kale animazioa

Lasterketa maiatzaren 10ean izango da, eguerdiko hamabietan, eta 12 urtetik gorako emakumeek maila bakarrean parte hartu ahal izango dute. Urtero legez, Portaloian hasi eta bukatuko da lasterketa, eta 3,5 kilometro izango ditu.

Ordubete lehenago, 11:00etan, beroketa ariketak egiten lagunduko du Aukeako monitore batek, eta, lasterketa bukatzerakoan, dutxatzeko aukera egongo da Uarkape pilotalekuan. Lasterketaz gain, futbol eta pilota partiduak egingo dituzte Biteri plazan.

Aukean, Emakume Txokoa eta BAZen eman ahal izango da izena astelehen honetatik maiatzaren 10era arte.



Emakume Txokoko, Aukeako eta Udaleko arduradunak. | MIRARI ALTUBE

# Erromoren kontra Iturripen jokatuta bukatuko du denboraldia Ford Mugarrik

Helburuak beteta, irabazten amaitu nahi du denboraldia etxeko taldeak

M.A | ARRASATE

Denboraldiko azkeneko partidua jokatu du bihar Ford Mugarri Arrasatek. Mailari eusteko helburua beteta, saikapeneko seigarren lekua izango du jokoan bihar,

19:00etan, Iturripen, talde arrasatearrak.

Aurrean, saikapeneko azkeneko postuan dagoen Erromo taldea izango dute etxekoek. Iaz igotzea lortu eta gero, Naziona-

leko Lehen Mailan lehenengo denboraldia egin du aurten Arrasatek. Urte ona egin dute Pablo Gartziaeren mutilek, eta bihar irabazita denboraldia borobiltzeko aukera izan dezakete.

## Mutrikuren kontra jokatu du Mondrak domeka honetan

Joan den astean Deban jaso zuen porrota ahazteko helburuarekin, Mutriku hartuko du Mondrak Mojategin domeka honetan, 16:30ean. Hain justu ere, Gotzon Urtzelaireren mutilak seigarren postuan daude, nahiz eta saikapen burua zortzi puntura duten. Mutriku, berriz, zazpigarren da, Mondrak baino hiru puntu gutxiagorekin.

## Padurari bisita egingo dio MUK asteburuan, lidertza lortzeko asmoz

Azken jardunaldietako bolada onari jarraipena emateko asmoz, Paduraren etxean jokatu du Mondragon Unibertsitateak domekan, 12:15ean. Arrasatearrek garaipen baka-rrera daukate lidertza, eta helburu horrekin ezin dute hutsik egin asteburuan. Aurrean, saikapen erdialdean dagoen Padura izango dute.

## ZALDIBAR

### PARTIDUAK

APIRILAK 12, ZAPATUA

10:00 Jibaros-Haizea 's / Ostantz

11:00 Sonografos-Lasaga. / Haizea 's

12:00 Dribling-Fidel & D. / Lasaga.

APIRILAK 13, DOMEKA

11:30 Abokajarro-Sonografos / Sportin

12:30 Sport in-Iluntz. / Abokajarro

### SAILKAPENA

A MULTZOA P J

1 Dribling 13 2

2 Iluntz 10 2

3 Haizea's Weah 8 2

4 Fidel & Discipulos 6 2

5 Sport in tus bragas 2 2

6 Jibaros 1 2

B MULTZOA P J

1 Aldatz 13 2

2 Sonografos 8 2

3 Lasagabaster 7 2

4 Betrayer 6 2

5 Ostantz 5 2

6 Abokajarro 1 2

## Driblingek jipoi galanta Sporti


Zazpi goleko alde zabalarekin irabazi zuen joan den astean Driblingek. 3-12 irabazi zion Sport taldeari.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

PUB HAIZEA





Txorbela otxotea, 2010ean Andaluzian eginiko kontzertu biran. | ARTXIBOA

## Talentuak batuz esango du agur aurtengoz Musikaldiak

Arrasate Musikalek Goikobalurekin eta Txorbela Argentinako talde batekin batera jardungo dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Herriko eskaintza musikaren mugarriz izateko asmoarekin duela hamar urte abiatutakoa erreferentzia da herriko melomanoentzat. Udaberriko Musikaldia oraingo asteburuan amaituko da,

herriko musikari eta abeslarien protagonismo betearekin.

### Taldeak, pareka

Indarren batuketarekin, binaka abestuko dute, Arrasate Musikaleko Orkestrak Goikobalu abes-

batzarekin (gaur, 20:00etan, San Frantziskon) eta Txorbela otxoteak Opus Cuatro Argentinako gizonen ahots laukotearekin (parrokian, bihar, zapatua, 20:00etan). Europan zehar dihardute biran argentinarekin eta Javier Rodriguez tenore eta gitarra-jotzailea lagun dutela etorriko dira Arrasatera.

Musikaldia Bernardo Atxagak Mikel Laboari gorazarre egiteko sortutako *Zazpi aldiz elur* ikuskizunarekin amaituko da domekan; 32. orrialdean dago informazio zabalagoa.

## Izerdia melodiarekin bat, Porco Bravo eta Ezinean taldeen rock gogorrarekin bihar gaztetxean

J.B. | ARRASATE

Barakaldoko Porco Bravokoek ikuskizuna, izerdia eta, oraingoan, disko berria ekarriko dute bihar, zapatua, gaztetxera (22:00). Oso ezagunak bertako agertokietan eta inoiz ikusi dituenak ziurrenik ahaztuta izango ez dituenak; disko homonimoa, hirugarren lan luzea, aurkeztuko dute. Rock harrokkote eta basatia etxeko marka dutela, zuzeneko emaldia deskarga zirimola izerditsua eta lohi bihurtzen dute. Rock-and-roll sendo eta konplexu gutxikoaren zaleentzat, ezin aproposagoa. Agertoki-

de bihar Ezinean taldekoak izango dituzte Porco Bravokoek, sendo eta zuzeneko, rock ikuspegitik baina hardcore melodikoaren aldetik. Azpeitiarrak dira, laukotea eta hiru diskoren egile, azkena argitaratu berria: *Berriz* (Oihuka).

### Urteurrena

Apirila izan ohi dute gaztetxekoek hilabeterik beteena eta datozen asteak ere ez dira makalak izango. Egun nagusia apirilaren 26a izango da. Gazte Eguna ospatuko dute eta gertu dute egitarau zabala, bazkari, kontzertu eta hitzaldiekin.




Ezinean taldeko kideetako bi. | IMANOL GALLEGO

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)  
**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)



**Biriklartzeko erraztasunak ematen dizkizugu.**



**Zatoz eta informa zaitez!**



# Ohiko feriak eta 'casteller'-ek bat egingo dute bihar, Erramu Zapatua

Ohi bezala, Udalak mahoi janzteko gonbita egin die herritarrei

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Euskal Herriko eta Kataluniako ohituren topagune bilakatuko da bihar Bergara. Erramu Zapatuko feria ospatuko da, egun handia herrian, eta, ohi bezala, Ibargarai kalean ganadua egongo da ikusgai; Seminarioko jolaslekuan hegaztiak, animalia bitxiak eta baserriko makineria egongo dira; San Martin plazan artisauek egongo dira; Fraisko zurin sasoi-ko produktuak eta txosna egongo dira; eta Simon Arrieta plazan, aldiz, gozozaleen txokoa izango da, bertan batuko baitira gozogle eta okinak. Gainera, Seminarioko karpan, euskal txerria ezagutzeko aukera egongo da.

Kontuan hartu behar da, bestalde, erdigunea itxita egongo dela, eta autorik ez erabiltzeko gomendioa egin du Udalak. San Martin eskolako patioan aparkalekua egokituko dute.

## Txorimaloak Oxirondora

Aurten ere sekulako arrakasta izan du Jardunek feriarako antolatzen duen txorimalo lehiaketak. 26 aurkeztu dira, eta, ohi bezala,

Ibargarai kalean egongo dira ikusgai bihar goizean, eta sari ematea 13:00etan izango da. Ondoren, eta berrikuntza gisa, nahi duten parte-hartzaileek Oxirondo azokara eroan ahal izango dute txorimaloa Jarduneko kideen laguntzarekin eta bertan erakutsi, hilaren 28ra arte, Azoka Bergaraten ekimenaren baitan.

Eguerdian, herri bazkaria ere egongo da pilotalekuan –sarrera guztiak salduta daude– 500 lagunendako. Eta arratsaldean umeendako zezentxoak egongo dira.

## Gure Esku Dago

Begarako Gure Esku Dago dinamikaren ekimenez Sant Cugat del Valles herriko *casteller*-ak izango dira bihar gurean (ikus kontrazala). Kalejira eta erakustaldia egingo dituzte, baina ez da Gure Esku Dagok bihar egingo duen ekintza bakarria izango. Goiz osoan barrena Gure Esku Dago gunea egongo da Irala eta Irizar elkartzen diren plazatxoan. Han, ekimenari buruzko informazioa, metroen salmenta eta sorpresa ugari izango dira.



Zanpantzarrak herritarren artean San Martin plazarako bidean. | GOIENA

## EGITARAUA

### EGUBAKOITZA, 11

**22:30** Bertso saioa pilotalekuan. Andoni Egaña, Nerea Elustondo, Amaia Agirren, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Gai-jartzailea, Iker Iriarte. Leihatila 21:30ean irekiko dute. Sarrera 8 euro.

### ZAPATUA, 12

**09:30** Feria zabaltzea.

**11:00** Euskal hanburgesatxoaren dastatzea, San Martin plazan.

**11:30** Txorimalo lehiaketa Ibargarain. Sari-ematea 13:00etan egingo dute.

**11:30** *Casteller*-ekin kalejira Santa Marinatik hasita; gero, erakustaldia, Irizar eta Irala kaleek bat egiten duten gunean.

**12:00** Begarako Trikitilarien emanaldia, Ibargarain.

**14:30** Herri bazkaria, pilotalekuan.

**17:30** Umeendako zezentxoak, Seminarioan.

► Begarako Trikitilariak eta Zumaiko zanpantzarrak kalez kale ibiliko dira goizez.

## Erramu Zapatua 2014

Apirilak 12 - BERGARA

*Ondo ondo pasau!*

Ariznoa - Azpeitxi - Bule - Etxagi  
Euxebio II - Irish Pub Galways  
Kayak - Pol Pol - Toki Ona - Usua





Martitzenean EH Bilduko kideek egindako agerraldia. | JAGOBA DOMINGO

## Bergara "ezkerretik eraikitzekeo premiaz" mintzatu zen EH Bildu

Martitzenean, Bergarak eta bergararrek jasan dituzten erasoak salatzekeo agerraldia egin zuten

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Espainiako Estatuaren inposaketa eta erasoerri herri moduan aurre egitekeo beharra azpimarratu zuten, eta aurrerantzean mobilizazio dinamikak areagotu behar dituztela esan zuten EH Bilduko kideek. Azkenaldian Bergarako Udala erasoerri jopuntuan dagoela salatu zuten; eta Bergarako Udala erasotzen duenak bergarar guztiak erasotzen dituela gaineratu.

Erasoerri artean, Espainiako banderaren inposaketa dago. "Madrildik Euskal Herria gorri eta horiz jantzia ikusi nahi dute", salatu zuten agerraldian. Horrez gain, Espainiako Gobernuak, Udalak herritarrekin batera egindako Euskara Erabilera

Planaren gaineko informazioa eskatu duela adierazi, eta euskararen berreskurapen prozesua oztopatu nahi dutela gaineratu zuten. Horrez gain, Madrilgo Gobernuak inposatu nahi duen abortuaren legea eta LOMCE legearen inposaketa ere salatu zituzten.

### Mobilizazioak

Datozen egunotan egingo dituzten mobilizazioetan parte hartzea animatu zituzten bergarar guztiak. Erramu Zapaturoko Gure Esku Dago dinamikak antolatu dituen ekintzetan parte hartzekeo deialdia zabaldu ostean, EH Bilduko kideek Aberri Egunean ikurrinak balkoietan jartzeko dei egin zuten.

## Begarako Hezkuntzaren Mahaiak bilera irekia deitu du maiatzaren 15erako

I.G. | BERGARA

Begarako Hezkuntzaren Mahaiak hainbat ekimen antolatu ditu LOMCeri desadostasuna agertzekeo.

Hezkuntzaren Mahaiak maiatzaren 15erako bilera irekia antolatu du kultura etxean eta interesatu guztiei dei egin die parte har dezaten.

### Hezkuntza komunitatea

LOMCE aplikatua izan ez dadin hezkuntza eragileak estrategia komunak eta bitartekoak lantzen ari direla ekarri dute gogora: "Urte hasieran Bergarako Hezkuntzaren Mahaiak osatu genuen. Zertarako? Bada, Bergaran hezkuntza komunitate sendo bat eratzekeo".

# Prestakuntza eta enpresen arteko harremanak gerturatzeko foroa

Bergara, Antzuola eta Elgetako enpresari txiki eta ertainak izan dira

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Miguel Altuna Institutuan izan diren Debagoieneko enpresa txiki eta ertainei zuzendutako jardunaldietan, prestakuntza eta lan esparrua uztartzeko moduez hitz egin da.

### Prestakuntza, enpresei begira

Enpresekin lotuta dituen bi proiektuetan lehena da Asmaola+. Eki-men hori enpresa txiki eta ertaineko berrikuntza bultzatzen duen sare bat da: lanbide heziketako bost ikastetxe osatzen dute sare hori eta helburua da lanbide heziketako zentroek eskaintzen dituzten baliabide eta ezagupen teknikoerri bitartez enpresa txiki eta ertainei hainbat proiektutan laguntzea.

Horrekin batera, Lanbide Heziketa Duala ere aurkeztu zuten. "Hezkuntzaren formatu aldaketa bat proposatzen da: ikastea eta, aldi berean, lan egitea. Uztartu behar ditugu ikasketak eta lana", dio Joxu Aranak, Miguel Altuna Institutuko enpresa erlazio arduradunak.

### Enpresare egitasmoa

Enpresare foroaren helburua industria berrakibatzea da, foro-ko presidente Kristina Elkorok esan duenez; eta gaineratu: "Diagnositik atera dugun ondorioetako bat da enpresa guztien merkaturia Espainiako Estatua dela. Horregatik, internazionalizazioa ari gara lantzen une honetan".



Jardunaldietara Antzuola, Elgeta eta Beragarako enpresariak joan ziren. | M.A.

JON LETURIA | TORNILLERIA SEGUR-EKO GERENTEA

## "Partzuergo honek 25 urtetik gorako esperientzia dauka nazioartean"

Jardunaldian, internazionalizazioaren bidean Tornilleria SegurSA enpresako gerenteak bere esperientziaren berri eman zuen.

### Nola egin duzue salto nazioarteko merkatura?

Partzuergo baten bitartez egiten dugu internazionalizazioa. Alemania, Frantzia, Italia eta Portugal dira gure herrialde nagusiak. Polonian eta Errusian ere badihardugu merkaturak zabaltzen.



GOIENA

### Noiz hasi zineten prozesu honekin?

Guk duela bederatziru ekin genion esportatzea den abenturari, baina partzuergo honek 25 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka.

### Horrek apustua errazten du?

Dudarik gabe; partzuergoak bezero finko batzuk dituzte, babestuago sentitzen gara. Hala ere, ez da eronka erraza izaten ari, Frantziako merkaturia oso ahul dago.

## 'Akordeoiak jolasean' ekimenaren bigarren buelta gaur izango da

Duela hiru bat aste herriko ikasleak Eibarren izan ostean, orain, eibartarrak izango dira gurera etorriko direnak. Musika Eskolan elkartu eta bi taldeak ezagutzeko tailer batzuk egin eta gero, akordeoi ikasleek kontzertu bateratua egingo dute, 19:30ean, Musika Eskolan bertan.

## Erramu Zapatuko gaua berezia izango da kartzela zaharrean

Mahoizko arropak erantzi aurretik, gaztetxeak hitzordu original bat antolatu du zapaturoko. Izan ere, ohiko DJek jartzen duten musikatik urrun, Angiozarko Pantera DJak piztuko ditu zapatuko azken orduak. 23:00etan hasita, reggae doinuek girotuko dute kartzela zaharra.

## OHARRAK

### POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 25ean izango diren Europako hauteskundeean botoa postaz eman nahi dutenentzat bulegoa jarri du martxan Bergarako EAJK. Bulegoa asteleheneetik egubakoitzera 11:30etik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Eskerak telefonoz ere egin ahal izango dira (943 76 47 00), betiere, maiatzaren 15a baino lehen.



**AIERDI S.A.**  
**Aholkulariak**

**2013ko ERRENTA AITORPEN KANPAINA**

AHOLKULARITZA FISKALA, LAN AHOLKULARITZA ETA KONTABILITATEA ETA ASEGURU OROKORRAK

Artekale 1 behe - Tel.: 943 76 03 50 - Faxe.: 943 76 03 95 - BERGARA • Atzeko kalea 1 - Tel.: 943 71 60 96 - Faxe.: 943 71 61 13 - OÑATI

## Oxirondon baserritarren azoka egingo da hilero

Erramu Zapatuko txorimalo lehiaketako txorimaloak bi astez azokan erakutsiko dituzte

T.M/I.G. | BERGARA

Otsailean, herritarren laguntzarekin, *Azoka Bergaraten* prozesua abiarazi eta gero, orain arte, lau lan ildotan ibili dira lanean: lehen sektorea, ekonomia lokala, herri eragileak eta aisialdi-gunea, eta, azken ildokoak kenduta, gainerakoek bateratze saioa izan zuten eguaztenean. Bertan, jasotako proposamenak bateratu eta maiatzetik aurrera azokan egingo diren ekimenen plangintza egin zuten.

Ekimen horien artean dago ekainetik aurrera hilean behin, hileko lehen eguaztenean, herriko baserritar eta bestelako jardueren azoka berezia. Maiatzaren 14an, bestalde, lore eta landareekin apainketa ikastaroa egingo dute, eta 17an lore eta landare mintegia.

Horretaz gainera, *Azoka Bergaraten* leloarekin poltsa

berrerabilgarriak sortuko dira azokako merkatari eta baserritarrek banatzeko, eta tokiko nahiz sasoiko produktuen gaineko informazio panelak ere jarriko dira azokan. Aurtengo txorimalo lehiaketako txorimaloak bi astez ikusgai egingo dira azokan bertan.

### Aisialdi-gunea

Aisialdi-guneari dagokionez, proiektu arkitektonikoa onartuta dago, baina antolaketa eta kudeaketa eredia zehazteke dago, eta horretan lanean dabil-tza guraso eta hezitzaileekin. Asmoa da, baina, alor honetan umeen iritzia ere jasotzea.

Ekimena oso erantzun ona izaten ari da, eta Udaletik azpimarratu dute prozesu irekia dela eta interesa dutenek maiatzaren 21ean gertura daitezkeela adierazi zuten.



Martitzenean egin zuten bateratze saioa. | BERGARA

## Antzuolako eta Elorregiko bidegorri tarreak, aurten

Udalari dagokion herri barruko bidegorri sareari dagokionez, herritarren ekarpenekin osatu nahi dute

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Bergararren bizikletaren eta mugikortasunaren inguruko kezkek denboratxo bat daramate bueltaka Kirol Kontseiluko kideen buruan. Bada, astelehenean, Kirol Kontseiluak gaiaren inguruko bilera monografikoa egin zuen; *Bergarako bide motorizatu gabeen sarea* izenburupean.

Kirol Kontseiluetako bilerek herritarren partaidetza ardatz bezala duten neurrian, herritarren motorizatu gabeko sarearen edo bidegorri sarearen inguruko kezka eta proposamenak jaso zituzten. Hala ere, lehenengo, egungo bidegorri sarearen egoera aurkeztu zuten. Bai Bergarakoa, baita Bergara beste herriekin lotzen dituen ere. Herri barrutik doan bidegorri sarea Udalak kudeatzen du; herriak konektatzen dituen sarean, aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak du eskumena.

Bergara beste herriekin lotzen dituen bidegorri sarea aurten egiteko asmoa erakutsi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Sare horretan hiru adar daude; lehena, Arrasaterekin eta Oñatirekin lotzen dituen; bigarrena, Antzuolarekin lotzen duena, eta azkena, Soralezarekin lotzen duena. Aldundiarentzako lehentasuna duena Elorregi eta Labegaraiaeta lotuko dituen tarrea izango da;

horrela, Oñatiko eta Arrasateko bidegorri sarearekin lehenbailen lotzeko. Errepidearen obrak aprobetxatuz, Antzuolako zatia ere aurten egin nahi dute.

### Herri barruko sarea

Udalak ere, bidegorri sarea osatzerako bidean, bi zati egiteko asmoa du. Lehena Lorentxokoko etxe berrietatik Lazpiurreraino; eta bigarrena, azoka atzealdetik trenbide zaharreko paseoraino. Horrez gain, bidegorriak ez izan arren, Angiozar eta Uberako auzoa Bergararekin lotzeko asmoa ere badago.

Udalaren asmoak entzun eta gero, herritarrek euren proposamenak egin zituzten. Besteak beste, txirindulari eta oinezkoen baterako existentzia edo puntu beltzen gainekoak.

Proposamen gehiago izanez gero, maiatzaren amaierara arte Udaletxean uzteko aukera egongo da, eta planaren eta ekarpenen jarraipena egiteko, *bergarakokirolo.blogspot.com.es* webgunea martxan jarri dute. Lauri Azkargortak -Kirol zinegotzia- aditzera eman zuenez, urrian beste bilera bat egingo dute herritarren proposamenak aintzat hartu ostean proiektua zehazteko; aurrekontu eta datak barne.

## LABEGARAIETA

### EMAITZAK

Diego Valor - Betti Jai	(Atzeratuta)
Poteo Izarrak - Komando Piperrak	11-03
Irama Elgeta - T.C.C.	04-03
Irama Elgeta - Betti Jai	06-08
Minimou Taldie - Poteo Izarrak	05-08
Birgerias - Minimou Taldie	04-05
Birgerias - Komando Piperrak	04-06

### SAILKAPENA

ATALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	9	3
2 Minimou Taldie	3	2
3 Komando Piperrak	3	2
4 Birgerias	0	3

B TALDEA	P	J
1 Diego Valor	3	1
2 T.C.C.	3	2
3 Irama Elgeta	3	2
4 Betti jai	3	3

### PARTIDUAK

APIRILAK 13, DOMEKA
19:00 Poteo Izarrak - Birgerias / Diego Valor
20:00 Diego Valor - Betti Jai / Birgerias

### Aste Santua

Antolakuntzak datorren astean erabakiko du Aste Santuan partiduak jokatzeko diren edo ez.

## Fracking-aren kontrako sinadurak batuko dituzte bihar

Fracking edo haustura hidraulikoaren aurkako taldeek herri ekimen legegilea bideratu nahi dute, gasa ustiatzeko teknika hori debeka dezaten EAEn. 30.000 sinadura batu behar dira, gutxienez, alderdiek Legebiltzarrean gaia eztabaida dezaten. Hala, bihar, sinadurak batzeko mahaia jarriko dute, ferria eguna aprobetxatuta.

## Hautesle-errolda ikusgai dago idazkaritzan

Udaletik jakinarazi dutenez, apirilaren 7a ezkerro ikusgai dago hautesle-errolda. Apirilaren 14ra bitartean -hori barne- egongo da ikusgai errolda idazkaritzan, interesatuek ikusi eta azter dezaten eta, beharrezkoa izango balitz, erreklamazioak egin ahal izateko.

## Elgetako adibidea jarraitzeko eskatu dio Bergara Garbia plataformak Bilduri

GOIATZ ARANA | BERGARA

Hondakinen kudeaketari dagokionez, Elgetako Udal Gobernu Taldekoak oposizioarekin adostasunera ailegatu izana txalotu dute plataformatik, baita kontsulta egitea erabaki izana ere, herria izan dadin erabakiko duena. Demokrazia ariketa eredu-garritzat jo dute Bergara Garbiatik,

eta Bilduko Bergarako udal ordezkariak ezagutzen ez duten ikasgaia dela gaineratu.

Jarrera demokratiko "baxua" izatea egotzi diote Bergarako Bilduri, eta "informazioz ez ematea", ez oposizioari ez herriari, egindako inbertsioaren eta atez ateko sistemaren ustiapenaren kostuei buruz.

## KORTA-ZAR

BIHARTIK AURRERA  
**ZABALIK!**

Pintxoak

Bokatak

Hanburgesak

Razioak

**Ondo pasau Erramu Zapatuan!**

Barrenkale 16 - BERGARA



**IXAUN  
Jatetxea**

Elosu auzoa 6 - Bergara  
Tel.: 680 77 69 33

Gosariak  
Bazkariak  
Afariak  
Sagardotegiko menua  
Eguneko menua  
Plater konbinatuak  
Karta  
Ogitartekoak  
Pintxoak  
Enkarguak

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# Herria aldatzeko helburuz, eskaerak bihotz erdietan

Genero ikuspegitik herrian hobetu beharreko hainbat puntu batu dituzte mapa batean eta herrian zehar jarri dituzte euren eskaerak bihotz erdietan

IRATI GOITIA | OÑATI

Akaso, ikusiko zenituzten bihotz erdiak herriko hainbat tokitan. Izan ere, astelehenean, genero ikuspegitik herrian hobetu beharreko puntuak tokian lokalizatzeko ibilaldia egin zuten.

## Berdintasuna jomuga

Oñatiko Udal Gobernuarentzat lehenetsuneko gaia da emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzea. Hala, agintaldi hasieran Berdintasun batzordea eratu zuten, eta ondoren Berdintasun Plana egin. Orain, herria genero ikuspegitik aztertu dute herriko hainbat emakume eta kolektibok eta astelehenean kalea irten ziren euren hausnarke-tako ondorioak kaleratzeko.

"Hilabete batzuk daramatza-gu hausnartzen Oñatiko hirigintzaren inguruan, baina perspektiba zehatz batetik: genero ikuspegitik. Saio ezberdinak egin ditugu eta horietan ateratako ondorioak gabilta orain kalera ateratzen", azaldu du azterketa dinamizatu duen Farapi enpre-



Emakumeak bihotz erdi bat jartzen, San Lorentzoko haur parkean. | IRATI GOITIA

sako teknikari Araitz Rodriguezek. Zehazki, ideiak biltzeko eta bateratzeko hiru saio egin dituzte. Eta horietan, 200 puntu beltz inguru identifikatu dituzte herrian. Ondoren, lehenetsunak ezarri eta mapa bat osatu zuten. Horrela, bihotz erdien mapan jaso dituzte herrian hobetu beharreko aspektuak.

## Bihotz erdiak

Hala, astelehenean, mapa eskuan, eurek identifikatutako puntu beltzetan, bihotz erdiak jarri zituzten euren eskaerekin. Horrela, esaterako, Uarkalden jolas parkea estaltzea edo komertzio baten beharra ikusi dute. San Lorentzon, markesina edo komuna egokitzea proposatu. Tunelean,

segurtasuna sustatzeko autodefentsa ikastaroak egitea. Hein batean, Oñati "bizigarriagoa" egitea da helburua, Rodriguezen arabera. "Zergatik bihotz erdia? Zergatik ez osoa? Bada, bihotz osoa izango delako guk zehaztutako ekintza hori burutzen denean", azaldu du.

## Genero ikuspegitik, denontzat

Genero perspektibatik egin dute herriaren azterketa, baina guztiendako herria egiteko helburuarekin. Rodriguezek gaineratu du herri eta hiriak orain arte eraiki direla pertsona zehatz batentzat: goi edo erdi mailako gizonezko zuriarentzat; eta hala, ez daudela guztientzat eginda. "Emakumezko kook herritarren erdia osatzen dugu. Beraz, goazen horri buelta ematera. Pentsatzen hasten garenean emakumeen esperientziatik eta dauzkagun roletatik, ari gara guztientzako herria egiten. Izan ere, normalean, emakumezkoak gara umeak eta adineko jendea zaintzen ditugunak. Orduan, guretzako herriak eraikitzen baditugu (gure beharretarako), ari gara herriak zaharrentzako, gazteentzako, umeentzako... eraikitzen. Perspektiba globalagoa da".

## Hirigintzan eragina

Orain, udal teknikariei hausnarketaren berri ematea falta da. "Bikaina izango litzateke hirigintza proiektuetan aztertutakoa barneratzea eta hemendik aurrera eraikitzen den Oñati guztientzako bizigarri izatea".

# Kultura proiektuen araberrako diru laguntzak

O.E. | OÑATI

Kultura arloko diru laguntzak esleitzeko modua aldatu egin du Udalak. "Banaketa justuagoa egiteko helburuarekin" sortu dituzte, Kultura zinegotzia Nere Zubiaren esanetan, "Oñatin kultura mugimendu handia" dagoela kontuan hartuta.

Hala, proiektuaren memoria bat eta aurrekontua aurkeztu beharko dute orain, hilabeteko epean, eta urte amaieran jardueraren memoria eta egindako gastuen justifikazioa. "Pazientziak hartzea eskatu gura diegu eragileei eta kontziente gara taldeendako lehenengo urtea izango dela; beraz, malgutasunez jokatu dugu", dio Zubiak. Eta gaineratu du: "Dokumentazioarekin edozein zalantza izanez gero, Kultura teknikariarengana jo".

Kultura proiektuak eta programak gauzatzeko ia 56.000 euro banatuko ditu Udalak eta sormen lanetarako, 15.000 euro. Irabazi asmorik gabeko Oñatiko erakunde, talde eta norbanakoek eskatu ahal dituzte.

## Misio Taldekoek gaur egingo dute elkartasun afaria, 20:30ean hasita

Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du gaur, Bidaurretako fraidearen saloian, 20:30ean. Oraingoan, Leire Atxegak egingo ditu hizlari lanak eta Misio Taldeak hasi behar duen proiektu berriaren argibideak emango ditu. Bada, Haitin egingo dute proiektua, eta, hain zuzen ere, ikastetxe bat eraikiko dute han. Bestalde, Maliko Togo herriko Saint Paul ikastetxeko haurrentzat janari bilketa kanpaina martxan jarri dute herriko supermerkatuetan.

## Aristerrazuko erromeriara irteera maiatzaren 1ean

Lizargarate Trikitzale Elkar-teak Aristerrazura antolatuta du irteera maiatzaren 1erako. 15:30ean irtengo da autobusa postetxe paretetik. Lehenik Orion triki-poteoa egin eta ondoren Aristerrazuko erromeriara joatea da plana. Erromeria amaitu ostean, bertan afaldu eta goizeko ordu bata inguruan izango da bueltako autobusa. Urbia eta Arrano tabernetan eman daiteke izena, 20 euroren truke. Apirilaren 22a da izena emateko azken eguna.

## EAJk alegazioa aurkeztuko dio San Martin auzoko etxebizitzaren plan partzialaren aldaketari

J.B./O.E. | OÑATI

Batetik, Bilduk egindako proposamenak ez duela araudia betetzen berretsi du EAJk, eta, bestetik, jeltzaleen proposamenak auzo horretan etxebizitza erosteko aukera duten 32 familiak 90.000 euro aurrezteko ahalbidetzen duela. Bi arrazoi horiek aipatu ditu Udaleko talde jeltzaleak alegazioa arrazoitzeke, eta "beharrezkoa izanez gero beste instantzia batzuetara jotzeko aukera ere aztertuko" lukeela gaineratu du. Eguaztenean egindako prentsaurrekoan eman zuten horren berri.

Alegazioa ez dela hitzarmena sinatu duten eraikuntza enpresen aurkakoa argitu gura izan zuen EAJk: "Oñatiko enpresak dira, enplegua sortzen eta bertako ekonomia sustatzen dutenak, eta, horrexegatik, gure babesa eta errespetua izan eta izaten jarraituko dute", esan zuen Lourdes Idoiak prentsaurrekoan. Lursailen salmentari buruz, esan zuen ez zela "desjabetze prezioan izan, adostutako salmenta baizik". Helburua ez dela polemika sortzea esan zuen, "Gobernuaren kudeaketa kontrolatzea baizik".



Baltzategi, Idoiaga eta Biain eguazteneko prentsaurrekoan. | OIHANA ELORTZA



Eguaztenean egindako kale agerraldia Foruen plazan. | MIREN ARREGI

## Eskaera judiziala Udalaren aurka, hizkuntza eskubide urratzea leporatuta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Eskaera judiziala jaso du Oñatiko Udalak kirol arloko jarduerak antolatzeko emango duen diru laguntza eskubidea urratzen duelako. Horixe da, behintzat, Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuaren ordezkariak, sinatuta dagoen errekimenduak jasozten duena.

Eguazten arratsaldean jaso zuen Udalak abisua Donostiako epaitegitik, justu, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua deialdiz Urkixok "euskararen normalizazioa geldiarazteko abiatutako erasoaldia" salatzeke Foruen plazan egin zuten elkarretaratzea egin baino ordu batzuk lehenago.

## Epaitegian

Euskara zinegotzi Nerea Zubiak azaldu duenez, diru laguntza horietako baldintzen artean dator laguntza eskuratzeko aurkeztu beharreko proiektua euskaraz egitea, gutxienez. "Ikusten da euskaraz bizitzeko egiten ditugun ahalegin guztiak oztopatu gura dituela estatuak. Guk, baina, aurrera jarraituko dugu". Horrelako erasoan aurrean "denok batera" erantzuteko beharra dagoela adierazi du Zubiak.

Oñatiko Udalak, orain, hogeigun egun dituzte dokumentazio guztia aurkezteko eta abokatua eta prokuradorea izendatzeko. Udal kontratazioengatik ere jasota du eskaera judiziala Udalak.

# Izen handiak, gaueko lasterketa eta desafio itzela urtemugarako

Umeentzako ekintzak eta mahai-ingurua ere bai X. Aloñako Igoera dela-eta

JULEN IRIONDO | OÑATI

Egun bakarra beharrea maiztaren 2tik 4rako asteburu osoa hartuko du aurten Aloñako Igoera. Ohiko lasterketaz gain –eta hori ere ez da urterokoa izango–, beste hainbat ekintza antolatuz nahi izan dute hamargarren edizio hori modu berezian ospatu.

Lasterketa bertikala egingo da egubakoitzean, egubakoitz gauean. Arantzazu azpiko Belloitzako zubian hasi eta Buetraitzeko tontorrera, 2,7 kilometroan 720 metro igoko dituzte. 21:30ean hasiko da lasterketa, eta frontalarekin joan beharko dute maldan gora. Euskal Herriko Txapelketa izango da proba, eta Koparako baliagarria ere bai.

Oraindik eman daiteke izena, eta dagoeneko izango direla konfirmatu dutenen artean daude Agusti Roc –Kilometro Bertikalean Munduko eta Europako txapelketak irabazitakoa–, Iñigo Lariz –Espainiako txapeldun iaz– eta Ionut Zinca –hainbat modalitate eta distantziatan palmares ikusgarria duena.

Lasterketa aurretik, baina, giroa berotze aldera, hainbat ekintza izango dira. Honela, Aran-



Iazko Aloñako Igoera. | OIHANA ELORTZA

tzazuko parketxeko sarrera doan izango da arratsaldean, eta ibilbide gidatuak ere egingo dituzte. Ondoren, pintxo-potea egongo da: Zelai-Zabalen, Sindikan, Hospederian eta Goiko Bentan, trikitilariak lagunduta.

**Bizikletaz, parapentean...**

Zapatuan emango diote jarraipena egitarauari. Umeentzako las-

terketak eta puzgarriak izango dira plaza inguruan, eta desafio berritzaile bat ere bai Aloñako Igoeran orain arte ohiko izan den ibilbidean. Parte hartuko dute, besteak beste, Iker Karrera eta Walter Becerra mendi lasterkariak, Jon Odriozola, Mikel Astarlotza eta Joseba Zubeldia txirindulari ohiek, Markel Uriarte enduro pilotu aretxabaletarrak

eta Iñigo Gabiria parapente pilotuak. 16:00etan izango da desafioa, bikoteka, eta igoeran eta jaitseran askotariko diziplinak konbinatuz egingo dute.

19:00etan, berriz, mahai-inguru interesgarria egingo dute institutuko aretoan. Hizlari izango dira Iker Karrera, Oihana Kortazar, Walter Becerra, Ionut Zinca, Agusti Roc eta Jon Odriozola, eta Iñaki de Mujika gidari.

Eta domeka izango da mendi lasterketaren eguna –ohiko formatukoarena, nahiz eta ibilbide desberdinarekin–. 09:00etan hasita –irteera eta helmuga plazan–, 22,6 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek, 2.020 metroko desnibel positiboarekin. Aloñara iritsita, tontor gehiago egin beharko dituzte: Buetraitz, Akaitz, Arriurdin eta Artzanburu, mendilerroaren ipar aurpegian dagoen meatzarien bide zaharretik jaisteko gero.

Kluben arteko Euskal Herriko txapelketa izango da, eta lasterketan egongo dira, besteak beste, Jokin Lizeaga –Euskal Herriko selekzioakoa–, Imanol Goñi eta Felipe Artiguez, Roc, Zinca eta Larizekin batera; nesketan, berriz, Alizia Olazabal eta Nerea Amilibia, adibidez. Dorsalik ez dago dagoeneko, baina itxaron-zerrendarako izena eman daiteke. Antolakuntzatik nabarmendu dute lasterketarako izena eman duten oñatiarren kopuru handia eta Oñatik Udalak egitarau mardul hori antolatzeko emandako laguntza.

## 'Bomag' aldizkariak jaia egingo du gaur San Anton plazan

Herriko komertzioen gaineko berriak jasotzen dituen *Bomag* aldizkariak jaia egingo du gaur, egubakoitza, eta ekitaldi bat baino gehiago antolatu ditu. 18:00etan, esaterako, umeentzako estanzazio tailerra egingo dute San Anton plazan. Kale Zaharreko dendetan ere egongo da zer ikusia eta pintxo-bira eta kontzertuak ere antolatu dituzte.

## Bluesa eta rocka Pako tabernan domekan, Behind taldearekin

Javier Irigoien eta Gerardo Sagasti musikariak dira Behind taldeko partaideak. Bluesaren eta rockaren klasi-ko osatutako errepertorioa jotzen dute zuzeneko emanaldietan, formatu akustikoan; besteak beste, Eric Clapton, The Beatles, Neil Young, David Bowie, The Rolling Stones, Lou Reed... 19:30ean hasiko da saioa.

## Izarraitz Aloñak eta Natra Oñatik kanpoan jokatuko dute

Maila autonomikoko saskibaloia taldeak domekan jokatuko du Berrio-Otxoaren kantuan, 17:30ean. Sailkapenean berdinduta daude bi taldeak, hamabi garaipenekin. Eskubaloian, berriz, igoera faseko bigarrena jokatuko du Izarraitz Aloñak domekan, 10:30ean, Deustuko Unibertsitatearen kantuan.

## 'Ocho apellidos vascos', inoizko ikusiena, 1.772 ikuslerekin 16 saiotan

Hamasei aldiz eman dute Oñatin *Ocho apellidos vascos* pelikula, eta horietatik hamaikatan bete egin da aretoa. 1.772 ikusle izan dira astebetean egindako emanaldietan, eta inoizko ikusiena bihurtu da horrela: zerrendan atzetik ditu *La pelota vasca*, *Lo imposible* eta *Aupa Etxebeste*. 2003a ezkerro zegoen aurreko marka, 1.249 ikuslerekin.

# Heriotza onartzen lagundu nahi duen antzezlanaren etzi


Eidabe konpainiaren 'Egun berri bat' lana ikusi ahal izango da domeka eguerdian gaztelekuan

JULEN IRIONDO | OÑATI

6 eta 12 urte artekoekin dago zuzenduta antzezlanaren. 12:30ean hasiko da, eta 3 euro izango da sarrera. Galder Perezek zuzenduta –gidoia ere harena da–, Eli da antzezlanaren protagonista, neba galdu duen neskatik gaztea. Elik bidaia egingo du, kanporako eta barrurako bidaia, heriotza ulertzeko bidaia. Hildako nebak Manex zuen izena, astrologia-zale amorratua zen mutiko alai. Hasiera

batean Elik ez du Manexen galera onartuko, errudun sentituko da eta emozioen zurrunbiloan galdu egingo da. Baina, apurka, ikusten, ikasten eta barneratzen doan guztiarekin, heriotza onartu egingo du. Bere neba ez da zeruan hegan dagoen izarretako bat, betiko joan da, bere bihotzean betiko egongo bada ere.

*Egun berri bat* antzezlanak ikusgarria izan nahi du estetikoki, agertzen diren eduki poto-



Egun berri bat obrako pasartea. | EIDABE

lo eta sakonak indartuak eta edertuak izan daitezten. Horretarako, proiektzio motak aktore lanarekin batera nahastuko dira, hala nola: bideoa, *mapping*-a eta

ikus-entzunezko *interface*-ak. Ikusleak hunkitzea eta sentsibilizatzeko du helburu obrak, indartsuago eta alaitsuago bizi izaten laguntzeko.

## Aloñakoak 'Gym&Dance'-n

Gimnasia eta dantza modalitateak batzen dituen jaialdia egin zuten aurreko zapatuan Hernanin. Alebin-infantil taldea joan zen Aloña Mendi ordezkatzuz: Amy White, Maialen Anduaga, Irati Biain, Naroa Olalde, Ane Odriozola eta Irati Blazquez. Gimnasia erritmiko koreografia berezia egin zuten, hainbat aparailurekin.



ALOÑA MENDI

## Txantxiku Ikastolaren Eguna ospatuko dute asteburuan, ekintza ugariarekin

JULEN IRIONDO | OÑATI

Txantxiku Ikastolaren Eguna 72 ordu iraungo du aurten ere. Ikasleentzako jolasak, kirolak, lehiaketak... izango dira gaur goiz eta arratsaldean; 13:30ean bazkaria egingo dute DBHko eta Batxilergoko ikasle eta irakasleek; 14:30etik aurrera Ttak taldeak antolatutako ekintzak; 18:00ak bitartean jolasparkea

ere bai jolaslekuan –bihar goizean ere bai–, eta garai berean jaialdia, antzezlan, koreografia eta kantuekin, Zubikoan.

Zapatuan, berriz, ate irekiak eta plazako frontoian tailerrak izango dira goizean, eta 17:00etan Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Bizipoza*, Zubikoan. Domeka eguerdian, berriz, bizikleta martxa egingo dute.



Herriko bi puntutik abiatutako manifestazioa plazan elkartu zen. | IMANOL GALLEGU

## Atez atekoaren erabilera bertan behera uzteko eskatu dute

"100-200 herritar inguruk" babestu du Eskoriatza Garbiaren manifestazioa

UBANE MADERA | ESKORIATZA

Igeldon egindako herri galdeketa eta Mutrikun egingo dena adibide modura jarrita, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren parte-hartzeari ematen dion garrantzia gogora ekarrita, Eskoriatzan jarduteko modu bera eskatu du Eskoriatza Garbia plataformak atzo (eguna) herrian egindako manifestazioaren eta mozio aurkezpenaren bitartez.

Joan den domekan estreinatu zuten hondakinen atez ateko bilketa sistemaren harira aldarrikatu dute hori.

"Otsailaren 23an Eskoriatzan egindako herri galdeketa emaitza zuzenean alkateari ematea da helburua, herritarren parte-hartze zuzenaren adibide moduan, eta haien berba errespeta dezatela da guk gura duguna eta eskatu dioguna," adierazi du Rafa

Salidok, Eskoriatza Garbia plataformako kideak. Hori oinarri, atez ateko sistema bertan behera uzteko eskatu dute.

### Zaratatsua, txilibituekin

Atzo iluntzean helarazi zizkieten eskoriatzarrei zein Eskoriatzako udalbatzari mezuok. Herritarrei, manifestazio bitartez; eta udalbatzari, mozio bitartez; hain zuzen, manifestazioaren amaiera aldera

igo ziren udaletxeko areto nagusira mozioa aurkezteko.

Manifestazioa, berriz, 18:00etan abiatu zen, Eskoriatzako bi puntutatik: Intxaurtxuetako *partxisaren* plazatik eta Aranburuzabala kaleko autobus geralekutik. Eta bi adarrek bat egin zuten Fernando Eskoriatza plazan. Txilibituek lagunduta, aldarrikapen zaratatsua egin zuten.

Antolatzaileen arabera, 100-200 bat herritarrek bat egin zuten protestarekin, eta balorazio positiboa egin dute, herritarren aurkako "presioek" halakoetan eragina dutelako, euren esanetan.

Amaieran, eta osoko bilkura igo aurretik, komunikatua irakurri zuten, Eskoriatzako Udal Gobernuari helarazi zioten mezu berberarekin.

## Aurten ere bisita gidatuak gertatu dituzte Aste Santuari begira

M.B. | ESKORIATZA

Aste Santurako planik ez dutenek badute zer ikusi Eskoriatzan. Ibarraundi museokoek bisita gidatuak gertatu dituzte aurten ere; hain justu, hiru irteera antolatu dituzte: eguenean, hilak 17, Zubiatero labea ikusteko aukera izango da; eta egubakoitzean, apirilak 18, Elorretako errota zabalduko dute bisitariendako. Lehengo lanbideak ezagutuko dituzte batean zein bestean; hain justu, Zubiatero zeramika eta Elorretan irina zelan egiten zen ikusiko dute.

Hilaren 21ean, astelehena, berriz, Eskoriatzako eraikin esanguratsuenetan geldidunak egingo dituzte bisitariak.

### Bisitak debalde

Ibarraunditik jakinarazi dute bisita bakoitzarendako hitzordu bikoitza gertatu dutela: 11:00etan gazteleraz eskainiko dute informazioa eta 12:00etan, berriz, euskaraz. Horrekin batera, nabarmendu dute debalde direla bisita guztiak. Bestalde, irteera horiek egiten diren bitartean Ibarraundi museoa itxita egongo dela aipatu dute.

## Jakion eta Amaia Diaz de Monasterioguren daude gaur azokan

Azken txanpan sartu da Udalak eta Huhezik gertatutako Osasun Astea. Gaur, egubakoitza, azokara joateko gonbita egin dute, Jakioneko ordezkariak eta Amaia Diaz de Monasterioguren adituak elikadurari buruz eskainiko dituzten azalpenak entzuterako. Besteak beste, sasoiako erosketa orekatuaz eta erosketa zerrenda egitearen eta produktuak zuzenean ortutik etxera eramatearen garrantziaz egingo dute berba 09:00etatik 13:00era bitartean.

## Gure Esku Dagoren aurkezpena egingo dute martitzen

Apirilaren 15ean, martitzena, Gure Esku Dago aurkeztuko dute Ibarraundi museoa, 18:30ean. Debagoieneko Gure Esku Dago lantaldearen eskutik, erabakitze eskubidearen aldeko ekimenari buruzko azalpenak emango dira, eta zenbait ikus-entzunezko eskaini; tartean, ekimenaren aurkezpen bideoaren eta bailaran orain arte egindako ekintzen berri izango dute eskoriatzarrek. Hori dela eta, antolatzaileek batzar horretan parte hartzeko dei egin dute.

## Irakurraldia eta liburu azoka egingo dituzte gaur

M.B. | ESKORIATZA

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna da, Shakespeare eta Cervantes idazleen omenez, eta, arrazoi horregatik, Eskoriatzan liburuaren eta irakurketaren hilabetea da apirila. *Kataia eten barik* egitarauaren barruan, askotariko ekintzak gertatu dituzte herrian, gaurko: batetik, *Bat ekarri, bat eroan* liburu azoka egingo da. 18:00etan, liburutegira eroandako liburu bakoitzagatik jasotako txartela trukatu ahal izango da azokan erakusgai egongo diren beste liburu bategatik.

### Irakurraldi publikoa

Ordu erdi geroago, 18:30ean, *Zu be irakurle!* irakurraldi publikoa hasiko da. Herritarrek gustuko duten liburu bat gomendatzeko aukera izango dute pasarteren bat irakurriz, euskaraz, gazteleraz edo gura duten hizkuntzan.

Hirugarrenetik, 19:00etan, *Aitona-amonen biografia*: Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatuz izeneko lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

## Udalekuetarako begiraleak behar dituzte

M.B. | ESKORIATZA

Uztailaren 7tik 24ra egingo dituzte aurten udaleku irekiak, eta begiraleak kontratatzeke deialdia egin du Udalak. Bada, interesatuek honako baldintzak bete behar dituzte: EGA titulua edo euskara maila handia izatea, 18 urtetik gora izatea, haurrak gustukoak izatea eta prestakuntza saioetan parte hartzea.

Curriculumak apirilaren 30a baino lehen bidali behar dira [txirikila@gmail.com](mailto:txirikila@gmail.com) helbidera. Erantzuna maiatzaren 16an emango da.

## Normal ari dira batzen eskoriatzarrak hondakinak

M.B. | ESKORIATZA

Atez atekoa martxan jarri zenetik egun gutxi pasatu badira ere, orain arteko balorazio "positiboa" egin du Eskoriatzako Udalak. Horren harira, Ingurumen zinegotzi Igor Ezpeletak jakinarazi du herritarren %90ek jaso dutela materiala eta lehen egunotan ontziak eskegita ikusi izan direla zintzilikarioetan.

Dena dela, kalean askotariko ontziak azaldu dira egunotan. Egutegiarekin nahastuta dabilta batzuk, eta beste batzuek, berriz, protesta moduan zintzilikarioetan eskegi dituzte egun horretan atera behar ez zirenen ontziak; horietako batzuk, gainera, lurrean utzi dituzte.



Ontziak zintzilikarioetan. | I.G.

### Komertzioekin arazoak

Horrez gain, komertzioekin ere arazoren bat edo beste izan da. Honakoa aipatu du Ezpeletak: "Ordutegiarekin eta hondakinen kopuruarekin hainbat gorabehera izan dira, baina dagoeneko berba egin dute komertzioekin, eta konpontzeko bidean daude".

Horren harira, Ezpeletak onartu du hilabete batzuk beharko dituztela sistema berriak behar bezala funtzionatzen dezan. Prozesua errazte aldera, gogorarazi du Hondakinen Bulegoa zabalik dagoela Ibarraundin; astelehenetik eguenera, goizez eta arratsaldean dago herritarren zerbitzura, eta egubakoitzean, goizez.



# Berrito deitu dute Ostegun Bidaiariak lehiaketa

Diaporamen bidez bidaietan izandako esperientziak konpartitzea da asmoa

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iaz antolatu zuen lehenengoz Udaleko Gazteria Zerbitzuak, Artemanek koordinatuta, Ostegun Bidaiariak lehiaketa, eta, izandako arrakasta dela-eta, berriro deitu du.

Lehiaketaren helburua da bidaien esperientziak konpartitzea diaporamen bitartez, hala, udarako ideiak emateko. Gazteria teknikari Mainer Etxanizek azaldu du hori: "Bidaiatxo bat egin eta hori konpartitu gura duen 40 urtez azpiko Debagoieneko edonork parte hartu ahal izango du. Leku polit bat ezagutu eta hori besteekin konpartitu edo besteei gomendatu gura dien edonork".

Hala, bada, Debagoienean jaio edo bizi diren 20 eta 40 urte arteko zuzendutako lehiaketa da. Banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango da, eta izena ematerakoan diaporamaren laburpena eta argazki batzuk eraman behar dira. Ondoren, izena emandakoen artean lau aukeratu dituzte, argazkien kalitatearen eta bidaiaren egingarritasuna eta praktikotasuna kontuan hartuta. Bidaia horiek, baina, azken



Mikel Busto eta Laura Perez ikasleak emanaldi batean. | ARTEMAN

bost urteotan egindakoak izan behar dute.

Izema emateko epea zabalik dago maiatzaren 7ra arte. Gazteria Zerbitzura idatzi behar da (laburpenarekin eta argazkiekin batera): [gazteria@aretxabaleta.net](mailto:gazteria@aretxabaleta.net).

## Lau emanaldi

Aurkezpenok euskaraz izango dira, eta ordu erdi eta ordubete artean iraungo dute. Herriko lau tabernatan emango dituzte eta datak zehaztuta daude: maiatzaren 29an; eta ekainaren 5ean;

12an; eta 19an. "Iaz jendetza hurbildu zen emanaldiotara eta oso gustura egon ziren, gainera. Izan ere, gertuko jendeak bere oporrak kontatzea beste batzuekiko praktikoa izan zen", argitu du Etxanizek.

Ikusleek hautatuko dituzte irabazleak boto bidez, eta batez ere bidaiaren egingarritasuna eta gertutasuna hartuko dute kontuan; hau da, bidaia praktikoa eta merkea izatea. Bi sari banatuko dituzte: sari nagusia, 200 euro; eta bigarrena, 100 euro.

# Ikurrina omenduko dute gaur arratsaldean

Ikurrin berria jarriko dute plazan, eta plaka bat; dantzan egingo diote gero, eta mosaikoa osatu

M.A. | ARETXABALETA

Joan den egunean hasi zituen Udalak ikurrinaren aldeko ekitaldiak. Hogei zinegotzitik gora elkartu ziren orduan, Espainiako banderaren "inposaketa" salatu eta "geurea" ikurrina dela aldarrikatzeko. Izan ere, astelehenerako jarri behar dute Espainiako bandera zintzilik udaletxeko balkoian, eta horren aurretik ikurrina omendu gura izan dute udal ordezkariak.

Omenaldi ekitaldia gaur izango da, Herriko Plazan (18:30). Plaza barreneko mastan dagoen ikurrinaren orde berria jarriko dute: "Eta inposaketaren salaketaren adierazpena jarriko dugu plaka baten bitartez", jakinarazi du alkateak. Ikurrina berriari dantzan egingo diote gero, eta bukatzeko, mosaiko bat osatuko dute.

Era berean, etxeko leihetatik ikurrinak zintzilikatzera gonbidatu dituzte herritarrek Aberri Egunera bitartean.

## EAJkoek parte hartu ez

EAJko kideek, berriz, erabaki dute ez dutela parte hartuko ikurrinaren aldeko ekitaldian.

Diote Espainiako bandera ez dela aretxabaletarra eta horren "inposaketa" beti salatu dutela. Baina gaineratu dute gogora ekarri behar direla Madrilgo erabakiak derrigorrez betetzeagatik aurreko agintaldietan "ez-ulertuak" eta "irainduak" izan diren hautetsiak. Eta diote hala eskatu arren udalbatzarreko gainontzeko alderdiei, "ezetza" jaso dutela. Horregatik, zera diote: "Erabaki berbera betetzera derrigorretan izan diren herriko hautetsiak babesten ez dituen Udalak antolatu dituen banderaren inguruko ekitaldiak ez ditugu babestuko".



Ikurrina udaletxean. | M.A.

## Gure Esku Dago lantaldea astelehenean elkartuko da berriro

Aretxabaleako Gure Esku Dago lantaldea dagoeneko martxan da, eta lanean buru-belarri. Astelehenean egin zuten bigarren bileran hamabi bat lagun elkartu ziren, eta kontuak zehazten hasi: metroen salmentarako herriko kua-drillen zerrenda egin; hemendik eta ekaina bitartean metroen eta kamiseten salmenta zelan eta noiz egin; zein ekintza antolatu girotzen joateko... Dena zehaztuta dutenean jakinaraziko dute.

Bien bitartean lanean jarraituko dute, eta hurrengo bilera astelehenean da, 18:30ean, udaletxe zaharrean.

## PSEko zinegotziak kargua hartuko du gaurko bilkuran

Ezohiko osoko bilkura egingo du gaur udalbatzarrak, 18:00etan, eta bi gai izango dituzte eztabaidatu eta, hala iritzi gero, onartzeko. Batetik, Ainhoa Sagarribai PSEko zinegotziak orain dela aste batzuk hutsik utzitako kargua hartuko du Jorge de Castro soraluzetarrak. Azken udal hauteskundeetan bigarren joan zen PSEko Aretxabaleako zerrendan.

Eta bestetik, apirilaren 20an ospatuko den Aberri Egunerako Udalbiltzak gertatutako mozioa eztabaidatu eta bozkatuko dute udalbatzako kideek.



Talde guztiak dantzan makilak astinduta

MIRARI ALTUBE

Leizarra musika eskolako dantzariak, hasi txikienetatik eta helduetaraino, dantzan jardun zuten makilak esku artean zituztela Herriko Plazan. Makila Dantza Eguna antolatu zuen musika eskolak lehenengoz martitzenerako, eta makilekin dantza mordo egin daitezkeela erakutsi zieten lagun, senide eta gainerako herritarrei Aitor Villarrealen gidaritzapean lanean diharduten dantzariak.

ILEAPAINDEGIA

Tel. 943797025

Bainetxe10, Aretxabaleta

IREKIERA BERRIA



Bertso musikatuena saioa egingo duten bertso eskolako kideak. | M.A.

## Euskararen Eguna ospatuko dute gaur Kurtzebarri BHIIn

Ikasleek osatutako hainbat taldek kontzertua eskainiko dute eguerdi partean Herriko Plazan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ez da abenduaren 3a, baina edozein egun da egokia euskarari eskaini eta hura aitzakia hartuta ondo pasatzeko. Hori pentsatuta, Kurtzebarriko Bigarren Hezkuntzako institutuko ikasleek, 12 eta 16 urte artekoak, Euskararen Eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza. Institutuko Euska-

ra Batzordeak antolatu du eta hainbat helburu ditu: "Ikasleek euskaraz eta euskararekin disfrutatzea eta, era berean, euren partaidetza eta sormena bultzatzea", diote bertako kideek. Horretarako, Udalaren eta Lekaixoka bertso eskolaren laguntza izan dute eta biegi eman gura dizkiete eskerrak.

### Oihan Vega lagun

Lehiaketarekin hasiko dituzte ekitaldiok goizean goiz (08:30-09:30). Euskal kultura ardatz duen lehiaketa izango da; musika, hizkuntza, geografia eta beste hainbat kontu landuko dituzte gelatan banatuta.

Ondoren bertso eskolako kideak joango dira lehen zikloko ikasleengana bertsoekin ere ondo pasa daitekeela erakustera. Hala, bertso musikatuak eta bat-batekoak eskainiko dizkiete hainbat bertsolari gaztek, batzuk herrikoak, tartean Martin Berrizbeitia, eta beste batzuk ingurukoak, horien artean Xabi Igoa eta Madidi Sarasua.

Bien bitartean bigarren zikloko ikasleek Oihan Vega irrati esatari eta disko jartzaile bergarar ezaguna izango dute lagun Arkupeko Zeraia aretoan. Irratiaren gaineko kontuak, gorabeherak eta sekretuak izango ditu berbetagai 14 eta 16 urte arteko gazteekin.

### Ikasleen kontzertua

Hamaiketarik eguerdia bitartean, ostera, institutuko ikasleen emanaldiak izango dira. Batetik dantza eta txirula emanaldiak, eta bestetik kontzertua. Hainbat kantu eskainiko dituzten taldeak dira: Baztertuak; Laika football dream; Kalaña; Txerrikumeak; eta Nazkatuta. Kontzertu hori Herriko Plazan egin gura dute institutuko kideek, herria bera ere girotzeko (eguraldi txarra bada, pilotalekuan izango da).



Jaiki elkarteko hainbat kide gorputz perkusio saioan. | JAIKI ELKARTEA

## Ezin gusturago ibili dira gorputz perkusio ikastaroan Jaikiko kideak

M.A. | ARETXABALETA

Gorputz perkusio ikastaroa egin berri dute Jaiki elkarteko kideek eta "ezin hobeto" pasatu ere bai. Bi saiotan landutako bideoan jaso dute, gainera. "Bukaera txukuna eman genion, baina onena geratu zaigun zapore goxo eta dibertigarria izan da, ummm..." jakinarazi dute parte-hartzaileek. Eta iragarri dute udazken-negu alde-

ra beste ikastaro bat antolatze-ko asmoa dutela.

### Galartzako aterpetxera

Bestalde, aste bukaeran urteroko topaketa egingo dute Galartzako aterpetxean, Jaiki eta zatoz! leloarekin. Gaurtik domekara bitartean hainbat jardue- ra egingo dituzte: dantza saioak; umeendako jolasak; musika emanaldiak; ezustekoak...

## 'Ocho apellidos vascos' filma eguaztenera arte emango dute

M.A. | ARETXABALETA

Joan den egubakoitza ezkerro eguneroko dabilta ematen *Ocho apellidos vascos* filma Arkupen, eta emanaldi gehienetan goraino bete da Zeraia aretoa. Sarrerak, gainera, aurrez erosteko aukera dago; proiektzioak baino ordubete lehenago zabaltzen dute lehiatila, eta, zabalik dagoen bitartean, edozein emanalditarako sarrerak eros daitezke; datorren asteleheneko 16:00etako emanaldirako, esaterako, agortuta daude. Hona hurrengo egunetako emanaldiak: gaur, egubakoitza, 22:00etan; bihar, zapatua eta etzi domeka, 19:30ean eta 22:00etan; astelehenean, 16:00etan, 19:30ean eta 21:30ean; eta martitzenean eta eguaztenean, 17:00etan, 19:30ean eta 21:30ean.

### 'Gran hotel Budapest'

Apirileko azken aste bukaeran, ostera, *Gran hotel Budapest* (Ameriketako Estatu Batuak, 2014) emango dute (12 urtetik gorakoendako); hilaren 25ean eta 26an, 22:00etan; 27an, 19:30ean; eta 28an, 16:00etan. Horrekin bukatuko dute zine denboraldia uztaile arte, orduan udako zine emanaldia eskainiko dute-eta.

## Kirol udalekuetako izen-ematea zabalik dago

Ekainaren 30etik uztailearen 18ra izango dira udalekuak, eta ikastaro trinkoak ere badaude

M.A. | ARETXABALETA

Udalak eta Ibarra kiroldegia kudeatzen duen enpresak elkarrekin antolatuta dituzte kirol udalekuak. Izen-emate epea, gainera, zabalik dago kiroldegian ekainaren 13a arte.

Ekainaren 30ean hasi eta uztailearen 18ra bitartean izango dira udalekuak, goizez bi ordu eta arratsaldez beste bi. Adinaren arabera taldeak osatuko dituzte: bata, 7 eta 9 urte artekoena, eta bestea, 10

eta 12 urte artekoena. Eta hainbat jardue- ra egingo dituzte: igeriketa, saskibaloia, futbola, dantzak, irteerak... Prezioa da 49 euro abonatuendako eta 59 euro gainerakoendako.

### Igeriketa ikastaroa

Igeriketa eta ur jolasen ikastaro trinkoa ere antolatu dute umeendako. Egunean ordubete izango dute, hiru astean. Prezioa da 19 euro abonatuendako eta 34 euro gainerakoendako.



DORLETAKO AMA

## Bizikleta ganean gazteak bikain

Txirindularitzako Aretxabaleta Saria jokatu zuten joan den zapatuan eta benjamin, kimu eta eskola mailako neska-mutilek erakustaldi polita eskaini. Hiru mailatako txirindulariak lehiatu ziren, tartean Dorletako Ama Txirindulari elkartekoak, baita lan txukuna egin ere. Sariak banatzen Zirauna Infisport taldeko Unai Mendikute izan zen.



## Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Iturgintza  
Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak  
Gas instalazioak  
Energia berriztagarriak  
Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak  
Irisgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 06 49  
www.amaiaberri.com  
amaiaberri@amaiaberri.com



Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

## Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



Martin Ibabe basoetako zinegotzia bi ikasleri azalpenak ematen. | UDALA

## Zuhaitzak landatzen, garrantziaz jabetzen

Apirilaren 4an eta 7an egin dute Zuhaitz Eguna

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**  
San Martin eskolako Lehen Hezkuntzako zein Haur Hezkuntzako ikasleek irakasgai ederra izan zuten hilaren 4an eta 7an, hurrenez hurren. LHko ikasleen Zuhaitz Eguna egun bat atzeratu zen eguraldi iragarpenengatik eta apirilaren 4an joan ziren San Adrian base-liza ingurura: "Oso ekintza aberasgarria eta didaktikoa da euren dako, hori esan didate eskolako arduradunek", adierazi du Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikari Jon Toñak.

Hainbat pago eta hagin landatu zituzten eta gero ederto

gozatu zuten Udalak emandako hamaiketakoarekin. Koldo Aju-ria basozainak egun bat lehena-ngo utzi zuen dena gertu eta Martin Ibabe basoetako zinegotzia egunean bertan egon zen ikasleekin, landaketarako azalpenak ematen.

**Gazteenak, eliza ondoan**  
HHko ikasleak, berriz, astelehenean, hilak 7, irten ziren San Martin eliza ondoko zelaitxoan gladioloak landatzera: "Oso gazteak dira eta asko ez dira konturatzen, baina euren dako ere oso dibertigarria dela diote irakasleek", dio Toñak.

### Musika Astea amaitzeko ekitaldiak aste bukaeran

Aurten lehen aldiz antolatutako Musika Astearen azken ekitaldiak egingo dira asteburuan. Gaur, jazz doinuak entzungo dira Sastiñan (20:00), Jose Barrios trio taldearen eskutik; bihar, kantu afari herrikoia egingo da San Martin eskolako jantokian (20:30) -izena emateko Larraitx Arriolabengoari deitu: 605 74 80 87-; eta domekan, amaitzeko, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen kontzertuak izango dira Sastiñan, 18:30ean hasita.

### Astelehenera arte kontsulta daiteke hautesle-zerrenda

2014ko maiatzaren 25ean egingo diren Europako Parlamenturako hauteskundeak direla-eta, hautesle-errolda ikusgai egon da hilaren 7a ezkerreko. Astelehenera arte, hilak 14, egongo da aukera zerrendak kontsultatzeko, udal bulegoko ordutegian. Erreklamazioak ere epe horren barruan egin behar dira. Hauteskunde prozesuari buruzko informazioa jasotzeko, 901 101 900 telefono zenbakira deitu edo [www.ine.es](http://www.ine.es) webgunera jo behar da.

Ramon Ajuria | Aramaioko alkatea

# "Itxaropentsu gaude biomasa proiektuarekin, onuragarria da guztiondako"

Agintaldi honetan energia arloan "burujabeak" izateko oinarriak finkatu gura ditu Udalak eta asmo horretan estrategikoa da biomasaren proiektua

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**  
Biomasa proiektua Valladoliden (Espainia) aurkeztu berri heldu zen Ramon Ajuria Goiena telebistako platora. Patxadaz eta naturaltasunez erantzun zituen Eneko Azkarateren galderak.

**Biomasa da, zalantza barik, agintaldi honetako proiektu izarretako bat. Zein puntutan dago orain?**  
Pil-pilean dago. Laster, sentsibilizazio kanpaina abiatuko dugu, herritarrek proiektuaren garrantziaz jabe daitezen; Arteman komunikazio enpresak egingo du lan hori. Orain, lehen tasuna da herritarrei ondo azaltzea zertan ari garen eta ze onura izango dituen. Bestalde, diru laguntzak lantzen ari gara, basoen kudeaketa, lizitazioak... Luzea da zerrenda. Printzipioz, irailean aterako ditugu baldintza-agiriak eta orduan proiektua lehiaketara aurkeztu ahalgo da. Hainbat enpresa daude interesatuta, atzo bertan [astelehenean] Valladoliden ikusi genuenez. Diotenez, Estatu mailan aitzindari izango gara.

**Ez dakitenendako, zertan datza funtsean biomasa proiektua?**

Energiaren arloan burujabeak izan gura dugu. Gure baliabideak aprobetxatuz, gure egurra baliatuz -ezpala da erregaia-, ur beroa lortzean datza. Ezpala guk erosi dugu eta etxebizitzaren jabeek aukera izango dute euren egurra ere erabiltzeko. Talde bat sortuko dugu herrian hori guztia kudeatzeko. Gero, enpresa espezializatu batek galdarak instalatuko ditu eta hura arduratuko da banaketaz. Fakturazio aldetik zortea dugu hemen, Aramaioko Argindar Banatzailea enpresa dugulako. Enpresa horrek eraman du fakturazioa.

**Proiektuaren oinarriak finkatzeko batzorde bat sortu berri duzue...**

Bai, hala da. Herritar guztiak gonbidatuta daude batzorde horretan parte hartzeri; martitzenero elkartzeko gara udaletxean, 18:30ean. Askotariko jendea dago batzordean, arlo ezberdinetan aditua dena.

**Erakundeen laguntzaren menpe zaudete?**

Laguntza beharko dugu, eta gaur da eguna ezin dezakedana laguntza jasoko ez dugunik esan. Beraz, itxaropentsu gaude. Bestalde, master batean entzun berri dut, aditu baten ahotik, agintariak legegaldi amaieran erabaki garrantzitsu bat hartzea oso arriskutsua dela. Hala, EAJrekin Aste Santu ostean biltzeko asmoa dugu, komeni delako proiektu honetan eskutik helduta joatea. Politikaz haratago, herritar guztiendako onuragarria izango denez, ez dut uste arazorik egongo denik.

**Nolako da harremana zinegotzien artean? Eta Diputazioarekin?**

Normala da harremana, naturala. Hiru alderdi gaude eta beti egoten dira tirabirak, baina eztabaidak ez dira oso garrantzitsuak izan. Diputazioarekin ez dugu kezarik oraingoz; zentzuzko eskaerak egiten direnean ondo erantzuten dute.

**Aurrekontua eztabaidatu eta onartzeko parte hartze prozesuarekin pozik zaudetela diozue. Zergatik?**

Aurten beste era batera egin gura genuen parte hartze prozesua. Auzoz auzo joan gara lau zinegotzi, eta herritarrek parte hartu dute. 160 bat herritar egon dira, herri osoko biztanleriaren %10 baino gehiago. Hori, adituek diotenez, arrakastatsua da.

**Nolako da Udalaren egoera ekonomikoa?**

Aurrekontua estimazio bat da eta esan dezakedana da iazko likidazioa positiboan joan zela. Horrek esan gura du herrikoia estutu genuela. Beste batzuek esango dute nolako izan den gure kudeaketa, baina, bidean izan ditugun zailtasunak ikusita, zinegotziek eta herritar gehienek ulertu dute hori dela egin behar dena. Ekarpenak oso zentzuzkoak izan dira, eta, horregatik, esker-erak eman gura dizkiet parte hartu zuten guztiei, baita zinegotzietan ere. Iaz baino 250.000 euro gutxiago izango ditugu aurten.



AIZPEA AJURIAIGERRA

## Izotz pistaz gozatzen Gasteizen

Elkartasuna guraso elkarteak antolatutako patinaje ikastaroa domekan amaitu zen, Gasteizko izotz pistan. 75 lagun inguruk hartu dute parte lau saio izan dituen ikastaroan: "Eskerrik asko parte hartu duten guztiei, baina batez ere Jose Ignacio Berraondori eta Agustin Oianguren; eurak barik ikastaroa ez zen posible izango. Datorren urtera arte!", diote.

### NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA



Gora emakumeon borroka!

Emakumea naiz eta harro nago! Beti sentitu izan naiz emakume izatearekin harro, baina azkenaldian are gehiago.

Ez ditugu batere garai gozoak bizi, sistema patriarkalak bere hegemonia berreskuratu nahi

du -noizbait galdu badu- eta sektore kontserbadoreen euren postulatuak inposatu nahi dizkigute. Lan produktibo eta erproduktiboaren bitartez kate motzean lotuta izan nahi gaituzte. Gallardon jaunak, Opusaren doktrina jarraiki, emakumeon gorputza pribatizatu nahi du, eliza eta eskuineko politiken esku utziz. Haur txikiak bagina bezala tratatzen gaituzte, gure erabakiak hartzeko kapaz ez bagina bezala, baina guztiz oker dabilta. Emakumeok oso argi daukagu zer nahi dugun: askatasuna. Gure gorputzekin nahi duguna egiteko askatasuna, ama

izan nahi dugun erabakitze askatasuna, gure sexualitatea nahi dugun moduan bizitzeko askatasuna... Eta horretarako ez dugu inoren laguntzarik eta baimenik behar.

Larunbatean Iruñean bizi izan genuena izugarria izan zen, orain arte herri eraman ditugun borroka desberdinen isla metatua. Generazio, klase eta ideologia ezberdinetako emakumeak lelo bakararen atzean bilduta. Ez dugu etsiko, jo eta ke jarraituko dugu patriarkatuaz amaitu arte! Gure gorputza gurea delako, abortu aske eta doakoa!





Ramon Ajuria, Goiena telebistako platoan, *Harira* saioa hasi aurretik. | JOKIN BEREZIARTUA

#### Udalaren zorraren gainean zer esan dezakezu?

Gaur egun 300.000 euro da Udalaren zorra. Zorra obra batzuetarako mailegu batetik dator eta uste dut justifikatuta dagoela; lehenbailehen ordaintzen badugu, esan gura du gure dirua ondo ari garela kudeatzen. Zorra kitatzea gure lehentasunen artean dago, eta lau urtean zor hori kitatzeko gai izango garela esango nuke. **Muruko lanak dira aurtengo inbertsio nagusia. Zer egingo duzue?** Saneamendu eta zolatze lanak dira. Aspalditik dator, oso txarto dute errepidea eta hori lehenbai-

lehen konpondu beharra dago. Iaz lehen fasea hasi gura genuen eta aurtun bigarren faseari ekin. Baina lur mugimendu batzuk atzeman genituen eta gunea nahiko ezegonkorra denez, ikerketa geoteknikoa egitea erabaki genuen. Hortik dator azken atzerapena. Aurtun, jarraian egingo dira aurreikusitako bi faseak. Obrak ekainean hasiko dira. **Azkoagako lanak nola doaz?** Iaz amaitzen zen saneamendu obrak bukatzeko epea, diru laguntzak markatzen duena. Arabako Lanak enpresaren eskutian utzi genuen lana, baina ez zituzten

**"Udalaren zorra 300.000 euro da; lehentasunezkoa da, lau urtean kitatzea espero dugu"**

**"Muruko obrak lur mugimenduengatik atzeratu ziren eta lanekin ekainean hastea da asmoa"**

**"Aholkulariek diote ez dagoela aukerarik Adif-en eskutik kalte-ordainak jasotzeko, tamalez"**

epeak bete eta zenbait arazo izan genituen. Hala ere, konponduta dago gaia; aurrekoan diputatua eta obra zuzendaria etorri ziren eta esan ziguten lanak aurtun amaitzen badira ez dela arazorik egongo. Egun gutxi batzuk falta dira lanok amaitzeko.

**Argiteria publikoa ere beste inbertsio garrantzitsu bat izan da...**

Bai; lehen fasea amaituta dago. Orain, bigarren fasearekin hasiko gara, Ibargoian. Astebete iraungo du lan horrek. Maiatz amaieran edo ekain hasieran hasiko dira; guretako oso gai garrantzitsua da, ekonomikoki zein ingurumen aldetik. %60 edo gehiago aurreztuko dugu.

**Udal Artxiboa digitalizatu duzue dagoeneko?**

Bai. 15.000 euroko partida bat bideratu genuen horretara, Jaur-laritzaren diru laguntza bati esker. Artxibo zaharra erreka ondo zegoen, eta, beraz, ez zen leku aproposa. Azken urteetako dokumentuak hor geratuko dira eta dokumentu zaharrenak hiltegi zaharrean daude dagoeneko. Pozik gaude emaitzarekin.

**Murugaingo indusketei dagokionez, ze beste urrats egingo duzue?**

Indusketen lehen fasea guk bakarrik egin genuen; indusketak egiteaz gain, panel informatiboak ere jarri ziren Murugainen bertan eta herriko kaleetan. Bigarren fasearako Arrasateko eta Aretxabaletako udalen laguntza izango dugu, eskertzekoa da. Oso gai interesgarria da guretako.

**Nola dago Adif erakundeari eskatutako kalte-ordainen kontua?**

Diputazioak aholkularitza zerbitzua eskaini zigun, baina ez dago aukera handirik Adif erakundearen eskutik kalte-ordain horiek jasotzeko. Auzitara joatea merezi ez duela esan digute aholkulariek, auzia galduta zegoela hasi baino lehenago. Tamalez, hori da errealitatea.

**Lur-jausiengatik kaltetutako Zabolak eta Untzillak arteko bide zatia berritzeko gastuen kontua nola dago?**

28.000 euro gastatu zuen Udalak eta gastu horren %80 errekupe-ratuko dugu Jaur-laritzaren diru laguntza bati esker.

**Nola doa Mendiolak Ikerketa eta Berrikuntzarako Zentroa?**

Motel, guk nahi baino motelago. Aramaioko Sagarzaleen Elkartea lanean ari da aspalditik, baina beste talde batzuk noiz sartuko zain gaude. Aramailur taldeak kudeatzen duen ekonomatuak, berriz, oso ondo funtzionatzen du; oso pozik gaude.

**Hiri hondakinen gainean Udalak hartuko du neurririk epe motzean?**

Arabak ez du Gipuzkoan izan duen lehentasunik. Birziklatzearen gaia garrantzitsua da, noski, baina hemen astiroago joango gara. Hain zuzen ere, konposta egiten ikasteko tailerra egin genuen eta jendea nahiko animatuta agertu zen. Orain, hurrengo urratsa egitea falta da, konposterako guneak egokitzea auzoetan eta kalean.

#### OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Iñaki Nafarrate | EAJko zinegotzia

#### "Ez dago ekimenik azpiegitura berriak egin eta zerbitzuak hobetzeko"

"Hiru gai aipatuko nituzke azken urteari dagokionez. Hasteko, batzorde guztien aurrekontuek behera egin dute, eta egunero 300 euro ordaintzen dugu zorratik; aurtun, gainera, diru sarrera bereziak izan ditugu. Era berean, Aramaion merkeago irteten da obrak baimen barik egitea lizentzia eskatzen egitea baino. Hau da, lizentzia barik eginez gero, ez da ezer gertatzen. Iaz aguazila kontratatu zen, baina ez da obren gaineko kontrolik egiten, berdin jarraitzen dugu. Amaitzeko, ez dago inolako ekimenik azpiegitura berriak egin eta zerbitzuak hobetzeko. Izan ere, Aramaion zerbitzuen beharrean gaude; guretako hauek dira garrantzitsuenak: aparkaleku gehiago, zaharren egoitza eta fosa septikoa berritzea".

#### ► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Aparaleku falta badago, baina toki batzuetan. Herriko sarreran, adibidez, aparkalekuak soberan daude. Beste gune bat aparkaleku moduan egokitzea aurreikusi dugu Ibargoia gainean. Zaharren egoitzarena Diputazioaren esku dago; gure asmoa da egoitza publikoa izatea. Ur zikinen gainean, Jaur-laritzako Ur Agentziak dio ez dagoela dirurik, eta, beraz, ezin dugu ezer egin. Obren lizentziei dagokionez: bai, aurkitu ditugu obra batzuk lizentzia barik. Horiek legeztatzen ari gara, aurrerantzean kontrola zorrotza izango da".

#### OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

#### Hontza Extrem gure lurretan dago, baina Otxandion eskatu dira baimenak; udalak egin behar du ezer?

"Hasteko eta behin, esan beharra dago pozgarria dela halako abentura parke bat izatea gure lurretan. Familia osoarendako oso aukera interesgarria da, aprobetxatu beharrekoa. Otxandioko Udalarekin harremanetan gaude eta gaia legeztatu gura dugu. Hau da, txosten bat prestatu dugu abentura parkea Aramaion dagoela jasotzeko. Hala ere, bi udalen arteko harremana ona da, eta horrela izaten jarraitzea gura dugu".

#### Plan orokorra onartuta dago Ibarran, baina auzoetan ez; denbora larregi pasa da. Noiz onartuko da?

"Bi edo hiru hilabete barru tramite guztiak eginda egongo dira. 2014 amaieran indarrean egotea espero dugu. Ez da berria: hasieran, Udalak asmo batzuk zituen, baina Aldundiak zuzenketa batzuk egin zizkion guk aurreztutako proiektuari. Aldaketa bakoitzak bere denbora eskatzen du eta horregatik atzeratu da horrenbeste. Ez dago besterik".

#### HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

#### Kiroldegian gimnasioa egokitzeko lanak noizko? Eta aldagelak berritzeko asmorik badago aurtun?

"Badakit pilates egiteko osoko bilkuren aretoa erabiltzen dela, eta asmoa da aurtun kiroldegian leku bat egokitzeko horretarako. Aldagelak ere aldatu egin behar dira eta partida bat bideratuko dugu lan horietarako. Aldagelena ere aurtun egin gura dugu, iaz egitekoak ziren-eta. Baina ez zen posible izan, ez genuen Aldundiak horretarako eman behar zigun diru laguntza jaso".

#### Herriak musikarekin duen lotura ikusita, Udalak badu asmorik Aramaion musika eskola bat jartzeko?

"San Martin eskolan ematen dira klaseak orain. Interes handia pizten du musikak eta horren adierazle da egunotako Musika Astea, eta jakinekoea da Aramaiok musikari handiak eman dituela. Eskolara begira, Aldundiko Kultura Sailean eskaera egiteko asmoa dugu eta Udala ere gertu dago diru apur bat bideratzeko. Premia badago, Lehen Hezkuntzako ikasleendako bereziki. Izan ere, hortik aurrerako ikasketak kanpoan egitea da ohikoena".

#### Ospitale zaharra zena erortzeko dago; udalak egingo du ezer eraikin horrekin ala dagoenetan utzi behar du?

"Eraikinaren inguruan itxitura batzuk jarri genituen, arriskutsu dagoelako. Gai garrantzitsua da guretako, lehenbailehen landu behar dena. Baina ez dakigu zer egin. Udalarena da eraikina, eta berritzea ondo legoke, beste erabilera batzuk emateko; lokala behar duten taldeak badaude herrian, esaterako. Baina diru faltan dago arazoa: inbertsio handia ekarriko luke eta orain bertan oso zaila ikusten dugu arazo horri irtenbide bat ematea".

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.





Torresoroako harmailak jartzeko lanak martxa onean doaz eta apirilean bukatuko dituzte. | MAIDER ARREGI

# Torresoroako harmailak, Aste Santu osterako prest

Abiarazitako lanek, guztira, 100.000 euroko aurrekontua izango dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Torresoroa aretoko harmailak jartzeko lanak martxan onean doaz. Hasiera batean, maiatzera arte zeuden lanak aurreikusita; baina, martxan onean doazela ikusita, Aste Santu osterako bukatzea espero dute. Erabilera askotariko areto izaten jarraituko du, herritarren gozamenarako.

"Auditorium hau hasieran zatika egitea erabaki zen; Urte askoan egurrezko aukiek moldata gara; izan ere, betidanik, udal ordezkarien nahia harmaila on bat jartzea izan da. Aurten aukera ona suertatu da: 100.000 euroko aurrekontuarekin obra on bat egitea, alegia", azaldu digu Valen Moñuxek, Udaleko Hirigintza teknikariak.

"Torresoroaren hasierako proiektuan sartuta zegoen harmailak jartzearen gaia; gure nahia izan da betidanik, baina ekonomikoki ezin izan da bideratu. Orain izan dugu aukera aproposa Foru Aldundiak iaz diru laguntza kaleratu zuelako", nabarmendu du Ima Beristain alkateak.

"Foru Aldundiak 64.000 euroko laguntza bideratu du eraikinerako; Goizperrek 25.000 euroko laguntza ere eman du eta Udalak 11.000 jarri ditu", argitu du Beristainek.

## 167 lagunentzako tokia

Harmaila teleskopikoak 167 aulki izango ditu. Goialdekoak finkoak dira eta behekoak, telesko-

pikoak; hau da, jarri eta kentzeko aukera izango dutenak. "Aste barruan bilduta egongo da eta asteburuan, zerbait bereziagoa dagoenean, jarriko da berriro harmaila", dio Moñuxek.



Valen Moñux, barandak instalatzen. | M.A.

## Segurtasun arauak betez

Aretoak alboetan dituen bi barandak kendu egin behar dira harmailak jartzera; hala, egindako proiektu berriak eskailera eta harmaila oso ondo neurtuta, zehaztuta, dituela esan du Valen Moñuxek.

Hau da, segurtasun neurriak bete egingo dira, eta, ondorioz, eskaileren eta harmailaren arteko tartea berdinduta geratuko da parklex izeneko kalitatezko materialarekin.

IMA BERISTAIN | ALKATEA

## "Harmailei esker herritarrek erosoago ikusiko dituzte emanaldiak aretoan"

Udal gobernua aspaldidanik buruan zeukan proiektua da Torresoroa aretoan harmaila jartzea. Orain arte ordea, ekonomikoki ezinezkoa izan da nahiz eta hasiera hasierako proiektuan barnertuta egon. Ima Beristain alkatea pozik



M.A.

azaldu da herritarren nahia eta beharra errealitate bilakatu delako aurten.

### Udalaren ikuspuntutik zein da lan honen garrantzia?

Harmailei esker, herritarrek modu erosoago batean gozatuko dute ikuskizunekin; aurrean dagoenak

traba egin gabe, alegia. 167 lagunentzako tokia dago eta patxadaz edozein ikuskizunekin gozatuko dute laster antzularrek. Erabilera anitzeko aretoa izanik, herriko hainbat talde ere jarraituko dute bertan: txistulariek, Oinarin

dantza taldekoak...

### Diru-laguntzei esker jarri dira aurten harmailak, ezta?

Bai. Aldundiak iaz emandako diruari esker eta Goizperrek emandako diruari esker posible izan da. Berezi eskertu nahi diogu Goizperri 25 mila euro eman izana iaz.

## 5.000 euro, bideokamera eta telefono mugikor bat eroan dituzte lapurrek

M.A. | ANTZUOLA

Gaur astebete udaletxean gertatutako lapurretak eragindako kalteak zenbatu ditu Udalak. Paretan zuloa eginda kutxa gotorra eraman zuten (kaja fuertea), eta kutxaren barruan 5.000 euro zeuden.

Esan behar da kutxan zeuden abalak eta txartelak udaletxe atzealdean dagoen txabolan azaldu direla, kutxa goto-

rrarekin batera. Hain justu ere, txabola horretan zeuden lan tresnak erabili zituzten lapurrek paretan zuloa egiteko.

### Bulegoetan sartu dira

Lapurrek hainbat sarraila ere hautsi zituzten; tartean, Hirigintza teknikariaren bulegotik mugikor bat eta grabatzeko kamera bat ere lapurtu zituzten. Ikerketa abian da.



Kutxa gotorra eramateko paretan zuloa zutela erakusten lapurrek. | MAIDER ARREGI



## Ekain Larrea mila metroko proban txapeldun

Ekain Larrea gazte antzularra da alebin mailan jokaturako Gipuzkoako mila metroko probaren txapelduna. Domekan Irunen egindako lasterketan, 3 minutu eta 13 segundoko denboran egin zuen kilometroa Larreak. Saikapen orokorreko zazpigarren postua, aldiz, haren anaia Ibai Larrearendako izan zen.

## OHARRAK

### GURE ESKU DAGO

Gaur, Olanaren, 18:30ean, batzarra egingo dute proiektua ezagutzeko interesa edo bertan parte hartzeko gogoia duten herritarrek.

### EZOHIKO OSOKO BILKURA

Aberri Egunaren gaineko mozioa gaur denon artean onartu gura du Udal Gobernuak, 18:00etan hasita. Herritar guztiei egin die dei.

### GAZTETXOKOKO IRTEERA

Getariako aterpetxera irteera egingo dute maiatzaren 24tik 25era. Izena udaletxean edo [antzuela.com](http://antzuela.com) atarian eman daiteke apirilaren 28ra arte. Prezioa 30 euro.

### XINKONAKO IKASTAROA

Apirila eta ekaina bitarteko ikastaroetarako izena eman daiteke gaur: 17:00etatik 20:00etara. Kuota: 40 euro.

## ELGETA

# Errekreaioarekin lotuta, kanean da 'Intxortako Irrintzia'

Bihar, 16:00etan, egingo den bilerara deitu dituzte 110 parte-hartzaileak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Intxorta 1937 kultur elkarteko kideek eta Elgetako Udalak atzo, eguena, aurkeztu zuten argitalpen berria. "Egunkari bitxia da, aurtentzen berrikuntza moduan sartu duguna. Lau orri ditu eta antzinako itxura eman diogu. Albiste batzuk antzinakoak dira, beste batzuk gure lanaren ingurukoak. Bilduma egiteko pentsatuta dago", azaldu du Intxorta 1937 kultur elkarteko Julia Mongek. *Intxortako Irrintzia* salgai dago euro bateko prezioan Elgetan, Bergaran eta Arrasaten.



Murgizu, Monge, Erostarbe eta Basauri *Intxortako Irrintzia* aurkezten. | L.Z.

## Bihar bilera, 16:00etan

Errekreaioarako prestaketa lanak ere aurreratuta daude. 110 lagun daude izena emanda, eta bihar egingo den bilerara deituta daude parte-hartzaile guztiak. Aurtengo errekreaioaren inguruko azalpenak jasoko dituzte, baita

materiala eta jantziak ere. "Aurtentzen askoz ere leku gehiago dugu errekreaioa egiteko eta bileran azalduko dugu bakoitza non kokatu behar den, zer egin behar duen, janzkera zelakoa izan behar den...", aurreratu du Mongek.

## Errekreaioa, hilaren 27an

Egun osoko egitaraua prestatu dute, aurtentzen, Elgetan. Lubakietara igoera, errekreaioa, omenaldia Salbador ermitan, memorialisten azoka plazan, eta herri bazkaria iragarri dituzte.

## Pako Aristi, eskolako umeekin

Kultura Astearen barruan Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen Pako Aristi idazlearen bisita izan zuten martitzenean. Idazleak azaldu zuen nongoa den eta nola hasi zen idazten. Galdera asko egin zizkieten; adibidez, ideiak nondik ateratzen dituen. Aristik ariketa bat proposatu zuen, eta ipuin bat egin zuten denen artean.



## LEINTZ GATZAGA

# Azken orduko erreserbak itxaroten

Mendi-etxeak, XVI. mendeko jauregia eta finlandiar saunadun landa-etxea daude aukeran

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

"Jaiegunak beteta ditut, eta, gainera, orain dela hilabete-edo. Aste Santuari buruzko balorazio oso positiboa egiten dugu, beraz". Gatzagako ostatuaren artean Aterbe landa-etxeke Maria Angeles Martinek egindako irakurketa da Aste Santuari begira jasotako baloraziorik positiboa eta baikorra. Izan ere, gainontzeko bi ostatu kasuan (Gaztainuzketa mendi-etxeak eta Soran etxea)

"oso lasai" dabilta egonaldien erreserbei dagokienez.

## Gaztainuzketa mendi-etxeak

"Oraingoan, mugimendu txikia dugu. Lan egiteko asmoa bai, eguraldi ona iragarri dute-eta. Izan ere, geroago eta gehiago dira azkeneko momentuan ostatu hartzen dutenak. Adibidez, joan den domekan, azkeneko momentuan den-dena bete egin zitzaigun, bai txabolak eta baita jatetxea ere.

Bost familia izan ziren txaboletan eta Hiru Handiak prestatzen dabilten hiru valentziar ere bai", kontatu du Paul Aznalek, Gaztainuzketa mendi-etxearen geroak. "Eta jatetxean ere 50 bat lagun izan genituen. Guztiari aurre egiteko ailegatu ezinda ibili ginen", gaineratu du hark.

Aznalek gogora ekarri du 23 bat lagunendako lekua dutela Gaztainuzketa bungalowetan eta 50 lagunendako lekua jatetxean (30 barruan eta 20 kanpoan). Prezioei dagokienez, berriz, lo egitearen 25 euro ordaindu behar da pertsonako. Eta jatetxean, plater konbinatuengatik 12 euro ordaindu behar da eta menu bereziengatik, 25 euro.

## Soran etxean, makrobiotika

"Aste Santuko egun solteetarako loaldiak hartuta ditut, Madrildik

eta Kataluniatik etorriko direnekin, baina gauza gutxi daukat. Oso lasai dago kontua. Azken ordukoekin funtzionatzen dute askok", jakinarazi du, bestalde, Montse Valeriok, Soran etxeke ugazabak.

Hark kontatu du logelen prezioak jaitsi egin dituztela, "guztion eskura" egon daitezela. Hala, logela bikoitzarengatik 70 euro ordaindu beharrean, 50 euro ordaindu behar da orain, eta bakarkakoarengatik, berriz, 50 euro ordaindu beharrean, 30-35 euro.

## Aterbe landa-etxea da beteta dagoen Leintz Gatzagako ostatu bakarra

# Elgetarren %10 inguru izan dira hondakinen inguruko bileretan

L.Z. | ELGETA

"Gustura gaude herritarrekin egindako bilerekin eman dutenak, balorazio positiboa egiten dugu", esan dute udal ordezkariak. Asteotan hainbat bilera egin dituzte hondakinen kudeaketarako Udalak adostutako proposamena herritarrei aurkezteko. Txiparekin zabalduko diren edukiontzien sistema ezarri gura dute Elgetan, eta herritarrek funtzionamendua ulertzea izan da bileren helburua. Elgetarrek, bestetik, ekainaren 22rako deituta dagoen herri kontsultan parte hartzeko aukera izango dute proposamenarekin ados dauden edo ez adierazteko.

Udal ordezkariak diote elgetarrek ondo hartu dutela Udaleko hiru talde politikoen adostutako proposamena. "Bileretan parte hartu duten herritarrek animatuta aurkitu ditugu, eta hondakin bilketa egokia izan dadin konpromisoak hartzeko gertu". Hau guztia lehenengo pausoa besterik ez dela diote Udaletik. "Kontzientziazioa bultzatzeko balio izan du, eta herri kontsulta egunera arte informazioa ematen jarraituko dugu elgetarrek animatu daitezela sistema honi babesa ematera", gehitu dute. "Gure helburuak aukera izango dute proposamenarekin ados dauden edo ez adierazteko.

## Liburuaren Eguna ospatzeko ekintzak liburutegitik

18 lagunek eman dute izena Eñaut Gorbeak martitzenean liburutegian egingo duen itzal-txotxongiloen tailerrerako, eta bi talde osatu dituzte —16:00etan eta 18:00etan—. Bestalde, udal liburuzaingak kalera aterako dituzte libururak eguaztenean, hilak 16, 17:00etatik 19:00etara.

## 32 lagunek eman zuten odola martitzenean

Sendagile eta erizain taldeak urteko lehenengo bisita egin zuten martitzenean, eta 32 lagunek eman zuten odola. Hainbat arrazoiengatik sei lagunek ezin izan zuten odolik eman. Neguan egingo dute urteko bigarren eta azken bisita; abenduaren 1erako dago eginda hitzordua.

## OHARRAK

### IPUINAK HELDUENDAKO

Amaia Arriaranek 14 urtetik gorakoendako saioa egingo du liburutegian gaur, 22:00etan. Sarrera libre da.

### GURE ESKU DAGO

Bihar bilera, 12:00etan, Ozkarbin. Erabakitzeko eskubidearen alde lanean jarduteko gertu dagoen oro gonbidatu dute.

### MALAJE IKUSKIZUNA

Zirku garaikideak eta flamenkoak bat egiten dute *Malaje* ikuskizunean. Kafe antzokian izango da gaur, barikua, 22:30ean.

### ERRETIRATUEN IRTEERA

Maiatzaren 7an Ordiziara, Bertizera eta Doneztebera. 30 euro. Izen-emateak hilaren 26an eta 27an, Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:00etara.

Horrez gainera, eskaintza berezia eta ezohikoa indartu gura dute Soran etxean: menu makrobiotikoak. "Orain arte ere eskaintzen genituen, baina alde zuzenetik eskatu egin behar izaten zen. Orain, berriz, menuan sartu dugu aukera hori, 22 euroarengatik". Beraz, Aste Santuan izango da eskaintza berezi hori probatzeko aukera.

"Gure ohiturekin bat dator eskaintza hori. Izan ere, guk ortuan hazitako kontsumitzen dugu, eta gure bezeroei filosofia bera eskaini gura diegu. Hala, menuz gainera, asmoa dugu ildo horretan diharduten elkarte, norbana-koei... gure espazioa eskaintzeko, ikastaroak, egonaldiak, erlaxazioak... egin ditzaten. Turista ohikoekin funtzionatzen ez duenez... Merkatuan berritza garrantzitsua da", gaineratu du.

**FUTBOLA**

Aitor Arregi | Eibarko futbol jokalaria

# "Presioa geroago eta handiagoa da, baina igoera posible ikusten dut"

- ▶ Aitor Arregi bergararra igoera historiko baten testigu izan daiteke
- ▶ Zaragozan galdu ostean Eibar bigarren dago, Deportivoren atzetik

XABIER URZELAI | ARRASATE

Bergararra da Aitor Arregi, 23 urte ditu eta bertatik bertara jarraitzen dabil Eibar futbol taldea egiten dabilen denboraldi biribila, taldeko atzelarietako bat da eta. Urte perfektua izateko gauza bakarra falta zaio, futbol zelaia gehiagotan zapaltzea. Bederatzi partidu geratzen dira oraindik, eta edozer gerta daiteke.

**Hainbat astez lider joan eta gero, Zaragozan atzerapausoa egin zenuen asteburuan (1-0). Zer gertatu zen?**

Nahiko partidu txarra jokatu genuela, nahiz eta ondo hasi ginen. Baina behera etorri ginen eta Zaragozak ondo aprobetxatu zuen hori.

**Dena dela, badirudi hor aurrean dabilen talde batek erraz irabazi behar dituela partidu guztiak, eta...**

Eta ez da horrela, kategoria honetan indarrak oso parean daudelako. Hamaika partidu inguru egin ditugu galdu barik, hor asko igo zen gure konfiantza maila, baina bagenekien lehenago edo geroago etorriko zela porrot hori. Ea horretan geratzen den, porrot bakarrean.

**Iaz uztailen izan ginen azkeneko zurekin. Eibar kategoriaz igo zen, Bigarren A mailara... Nork esango zuen, zortzi hilabete geroago, egoera honetan egongo zinetela.**

Bai. Orduan, kategoria berrira ondo moldatzea zen gure ardurara. Askok kostatu zitzaigun igoera hura lortzea, lauzpabost urtez ibili ginen eta borrokan. Gero, liga ez genuen horren ondo hasi,

baina begira non gauden orain. **Askotan, baina, taldearen ibilbidea eta taldeko jokalarri batena ez dira bideberetik joaten. Arlo pertsonalean, zer moduz?**

Egia esan, gogorra da, jokalarion ametsa partiduak jokatzea izaten delako eta aurten ez nabilelako nahi beste jokatzen. Alde horretatik, gogorra egiten da, bai.

**Ligan bost partidu jokatu dituzu aurten [Kopan beste bi]. Partidu horietako zeinekin geratzen zara?**

Deportivoren kontra jokatutakotik dut oroitzapen onena. Irabazi egin genuen partidu hura, lider dagoen taldea da, eta partidu hura aukeratuko nuke.

**Kuriosoa da, orduan sartu zinen taldean, bi partidu on egin, eta ordezkoen aulkira ostera ere.**

Bai, futbolak halako gauzak ditu. Nik ere pentsatu izan dut hori, baina entrenatzailea da erabaki horiek hartzen dituenak, eta errespetatu egin behar da. Hasierako hamaikakoan jartzen gaituztenean ez ditugu azalpenak eskatzen, eta kanpoan geratzen garenean, bada, orduan ere ez. Azken batean, hamaika lagunek baino ez dute jokatzen, eta 24 gara taldean. Besteoi, lan egiten jarraitzea baino ez zaigu geratzen.

**Eibar da gol gutxien jaso dituen taldeetako bat [24]. Horrek ondo egiten du berba taldeak defentsan egiten duen lanaz.**

Guk oso garbi dugu zer-nolako taldea garen, eta ondo defendatu ezean ez dugula ezer egiterik, normalean aurrekontu handiagoko taldeen kontra jokatzen dugulako. Guk talde serioa izan behar



Aitor Arregi, astelehenean, Harmailatik saioko platoan. | XABIER URZELAI

dugu, elkarrekin jokatzen duena, eta kontrarioari zelaian oso tarte txikia uzten diona. Eta partidu bakoitza azkena izango balitz moduan jokatzen. Orain arte balio izan digu horrek.

**Deportivorekin (57) batera aurre-aurrean dago Eibar (55), eta lau puntuko alde duzue playoff-ak jokatzeke postuetan daudenekin.**

Eta alde horri bai ala bai eutsi behar diogu. Azkenean, horrenbeste astean lehenengo edo bigarren postuetan egon ostean liga atzerago amaitzeak ez dio taldeari batera mesederik egingo [Lehenengo bi sailkatuak zuzen igotzen dira]. Baina bueno, bederatzigarren jarraitzea, horietako bost etxean jokatuko ditugu, eta nik uste dut eusteko kapaz izango garela.

**Historikoa izango litzateke talde honekin Lehenengo Mailara igozteke.**

Pentsa... Sekula lortu ez den zer bait da. Eta ederra izango litzateke talde honekin Lehenengo Mailan jarraitzea, baina badakit aurten minutu gutxi jokatu ditudala eta oso gaitza izango dela.

**Ekainean amaituko duzue kontratua Eibarrekin. Eta nora eramango zaitu futbolak?**

Batek daki! Ez dakit; egia esan. Espainian gauzak nahiko txarto daude, baina garbi dut futbolean jokatzen jarraitu nahi dudala.

**Atzerrira joateko gertu egongo zinateke?**

Bai; gainera, futbola beste leku batzuetan zelan bizi duten ikusteko gogoz nago.

**"Deporren kontrako partidua dut gogoan; irabazi egin genuen, gainera"**

**"Serio jokatu behar dugu guk, futbol zelaian tarterik utzi barik"**



ALOÑA MENDI / SHOTOKAN / SAIOA

**KARATEA**

## Lezon egindako lanarekin pozik etorri dira bailarakoak

Joan den asteburuan, domekan, jokatu zituzten Gipuzkoako alebin, infantil eta kadete mailetako txapelketak, Lezon. Bailarako ordezkari ugari izan ziren lehian, eta hain pozik itzuli ziren denak, hiru klubetako argazkiak bidali dizkigute aste barruan. Ezkerreko argazkian oñatiarrak daude: Aloña Mendiko

zazpi karateka izan ziren txapelketan, eta, guztira, bost domina irabazi zituzten. Erdiko kuadrilla handi hori, berriz, Bergarako Shotokanekoak dira, eta eskuak bete garaikur itzuli ziren. Eta eskumakoak, azkenik, Arrasateko Saioa gimnasiokoak dira, eta haiek hamar kopa irabazi zituzten.



Azula, salto batean. | GOIENA

## SNOWBOARD-A

## Manex Azula bigarren, Espainiako Snow Txapelketan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Manex Azula ryder bergararrak zilarrezko domina lortu du Espainiako snowboard txapelketan. Senior mailan geratu da bigarren, baina gazte mailan ez du kontrario-rik izan eta txapeldun geratu da. Sierra Nevada, Granadan, jokatu dute txapelketa. *Half pipe* modalitatean lortu ditu dominak Azula. Ruben Verges katalana izan da onena eta Azularen atzetik beste euskaldun bat sailkatu da, brontzezkoa lortuta: Aritz Atutxa.

Aurten bigarren geratu bada ere, iaz txapeldun izan zen senior mailan.



Axier Ugarte. | JOSETXO ARANTZABAL

## FUTBOLA

## Aloña Mendik Antzuola hartuko du domekan

X.U. | ARRASATE

Ligako azkenaurreko derbia jokatu dute etzi Aloña Mendik eta Antzuolak. Estalan izango da azkena, Antzuolak eta Bergarak azkenaurreko jardunaldian jokatu dutena. Aloñak bigarren postuagatik lehian jarraitu nahi badu, derrigor irabazi beharko dio lasaitasun postuetan dagoen Antzuolari, baina azken horiek konfiantzaz daude.

Bestalde, ligako oilarren arteko borroka izango da Aretxabaletan, UDak lider dagoen Berio hartuko duelako etzi. Bergarak, azkenik, laugarren sailkatu Anaitasunaren bisita izango du Agorrosinen.



Beñat Rezusta. | IMANOL SORIANO

## PILOTA

## Beñat Rezustak eskura du bigarren mailako finala

X.U. | ARRASATE

Aspeko pilotari bergararrak eskura du Promozio Txapelketako finala. Horretarako, baina, Jakak eta Rezustak partidu erabakigarria dute asteburuan Iruñean (zapata, 17:30, Labrit). Aurrean izango dituzten kontrarioak, berriz, Victor eta Untoria izango dira.

Finalean izango den beste bikotea erabakita dago, Gorkak eta Merinok dagoeneko eskuan dute-eta txartela. Hala, aurreko astean partidu ikusgarria egin zuen bergararra ahaleginduko da bihar irabazi eta errioxarren arteko finala eragozten.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

**EMAKU. BIGARREN MAILA**  
Oartzun-Mondra  
Domeka. 16:00. Karla Lekuona.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Aretxabaleta-Berio  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
Aloña Mendi-Antzuola  
Domeka. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Anaitasuna  
Zapata. 17:30. Agorrosin.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Mondra-Mutriku  
Domeka. 16:30. Moiategi.

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**  
Aretxabaleta-UDA B-Eas O8  
Zapata. 15:30. Aretxabaleta.

**ERREGIONALA, KOPA**  
Ikasberri-Arizmendi  
Zapata. 15:30. Garmendipe.  
Bergara-Soraluze  
Zapata. 15:45. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK**  
Aloña-Mondra  
Zapata. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Urola  
Domeka. 17:30. Agorrosin.

**GAZTEAK, IGOERA**  
Antigua-Bergara  
Zapata. 17:30. Donostia.

**GAZTEAK, KOPA**  
Aretxabaleta-UDA-Aloña Mendi  
Zapata. 17:45. Ibarra.  
Aizmendi-Ikasberri  
Zapata. 16:00. Almen.  
Antzuola-Soraluze  
Zapata. 11:00. Estala.

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**  
Urola-Arizmendi  
Zapata. 12:00. Argixao.

**EMAKU. GAZTEAK, KOPA**  
Intxaudi-Aloña Mendi  
Zapata. 17:30. Oartzun.

## ARETO FUTBOLA

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Gora CD-Eskoriatza  
Domeka. 11:30. Bilbo.

**LEHENENGO MAILA**  
Hirukide-Aretxabaleta  
Zapata. 15:30. Tolosa.

**HIRUGARREN MAILA**  
Mondrate-Umore Ona  
Zapata. 17:30. Musakola.

## ESKUBALOIA

**OHOREZKO MAILA NAZIONALA**  
Ford Mugarri-Romo Indupime  
Zapata. 19:00. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
Gure Auzune-Soraluze BKE  
Egubakoitza. 20:15. Gasteiz.

## SASKIBALOA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
Padura-MU  
Domeka. 12:15. Arrigorriaga.

**MAILA AUTONOMIKOA**  
Hotel Gran Bilbao-Natra Oriati  
Domeka. 17:30. Bilbo.

**SENIOR GIZONEZKOAK**  
Soraluze Bergara-Aloña Mendi  
Zapata. 16:30. Labegarieta.  
MUA-North Coast  
Gaur. 20:00. Musakola.

**EMAKUMEZKOAK**  
Eskoriatza-Arri BKL  
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

**GAZTEAK, ERRENDIMENDUA**  
Take-MU A  
Domeka. 12:00. Usabal.

**GAZTEAK, PARTAIDETZA**  
Aloña Mendi-Soraluze BKE  
Zapata. 12:00. Zubikoa.

**KADETE GIZ. ERRENDIMEND.**  
Soraluze Bergara-MU A  
Domeka. 16:00. Labegarieta.  
Aloña Mendi-Cafes Aitona  
Zapata. 12:00. Zubikoa.

**KADETE EMAK. ERRENDIMEND.**  
Bera Bera-Soraluze Bergara  
Domeka. 12:00. Donostia.

**KADETE EMAK. PARTAIDETZA**  
Hernani-Soraluze Bergara  
Domeka. 12:00. Hernani.

**INFANTIL EMAKUMEZKOAK**  
Summa Aldapeta-Eskoriatza  
Zapata. 12:00. Donostia.

## PILOTA

**ARRASATEN**  
Gaur, egubakoitza, 20:15ean:  
Arrasate 1-Atxurbide I (infantila)  
Moron-Odrizola (kadeteak)  
Zuazua-Txorens (seniorrak)

**Domekan, 10:30ean hasita:**  
Arrasate 1-Goierri (alebinak)  
Arrasate 2-Bergara 1 (infantila)  
Arrasate-Intxurre (kadeteak)  
Arrasate-Egia (gazteak)

**BERGARAN**  
Zapata, 16:00etan hasita:  
Orbegozo-Murua (infantila)  
Iriarte-Baztarrika (infantila)  
Morales-Etxaniz (infantila)  
Zubeldia-Sein (infantila)  
Rezusta-Unamunzaga (seniorrak)  
Perez-Txurruka (seniorrak)

**OÑATIN**  
Domekan, 10:30ean hasita:  
Aloña Mendi 1-Legazpi (infantila)

## TXIRRINDULARITZA

**BERGARAKO SARIA**  
Zapatuan, 16:30ean, infantil mailako lasterketa.

## Debagoieneko GREMIOAK

### ARROZTEGIAK

#### AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

### ERAIKUNTZAK

#### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e. arrasate@euskalnet.net

### ITURGINTZA

#### EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

### OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

### URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

### LEIHOAK

#### ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

### LOREZAINNTZA

#### MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

### MARGOAK

#### APAIN MARGO ETA APAINKETA

ARRASATE

- Pintura orokorrean
- Pareztatzak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## EUSKAL HERRIKO ITZULIA

# Debagoiendar ugari Euskal Herriko itzulian

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Gasteiztik sartu eta Arraterako bidean (Eibar) Debagoiena zeharkatu zuen atzo (eguna) Euskal Herriko itzulia, gure ibarreko hainbat herritatik pasatuz. Eta bizikletaz, autoz, edo oinez, txirrindulariek animatzen izan zituzten debagoiendar ugari. Batzuk bazkari eta guzti joan ziren, edo bizikletaz, gero etapa beste puntu batzuetatik jarraitu

ahal izateko. Bertaratu zirenen artean faborito ziren, besteak beste, Contador eta Valverde (eskumako argazkian ageri dira biak) eta adierazi zuten Euskaltel-Euskadi taldearen hutsunea igarri arren, aurtengo itzuliaz disfrutatzen badabiltzala.

Lasterketak gurean utzitako irudien artean, txirrindulariak Intxortako Atetik pasatzen ikusi ahal izan ziren.



Contador (hirugarrena), Intxausti, Valverde, Kreuziger eta Kwiatowski, aldapan gora.



Davide Villela, mendiko liderra.



Txirrindulariak Intxortako Atetik pasatzen.



Zaleak gustura, hozkailutxo eta guzti. | ARGAZKIAK, GOIENA

**Aurreztu.com**  
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.  
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

CARAVANAS OÑATE  
Egizu ziklistaren azterketa biomekaniko osoa

75€

LEHEN:  
150€DESKONTUA:  
%50

HILARION JATETXEA  
Menu paregabea konpainia onen dastatzeko!

25€

LEHEN:  
40 €DESKONTUA:  
%38

EKOBAI  
Ezabatu birusak eta egiozu garbiketa bat zure ordenagailuari!

15€

LEHEN:  
30€DESKONTUA:  
%50

GORKA ILE APAINDEGIA  
Neskentzat, Garbitzea, moztea eta orraztea merke-merke

28€

LEHEN:  
45€DESKONTUA:  
% 38

Negoio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?  
Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

# KULTURA

## Anduezaren gazte-tribua

- ▶ 'San Ferminetan, Lesakan' umorezko eleberria kaleratu du John Anduezak, Elkar-ekin
- ▶ 2012an gazteentzako idatzi zuen 'Larunbatean Bukowskin' lanaren espirtu berekoa da

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE


2012an kaleratu zuen *Larunbatean Bukowskin* gazteentzako nobela arrakastatsuen ondoren –lau garren edizioa argitaratzeko bidean dago–, Donostiako Bilintx institutura itzuli da John Andueza *San Ferminetan Lesakan* lanarekin. Eguaztenean aurkeztu zuen Donostiako Udal Liburutegian. 13 urtetik gorakoendako da, 160 orrialde ditu eta paperezko liburua 13.50 eurotan dago salgai; e-pub-a, berriz, 9 eurotan.

Nobela alaia, animatua, umorea eskaintzen duena eta irakurterraza dela dio egileak, eta, aurrekoaren bidean badoa ere, ez dela jarraipena. "Espiritu berekin egindakoa da, umore klabetik doa eta ikastetxe berean dago kokatuta; baina orain, ikasketa-amaierako bidaia egiteko asmoa duten DBH. 4. mailako ikasleak dira protagonistak. Bidaiarako dirua lortzeko hainbat ekintza antolatuko dituzte, baina ezustekoak ere izango dituzte tartean", dio John Anduezak.

### Gazteekin konektatuta

Hiztegia aldamenean izan barik, samur irakurtzeko eta ondo pasatzeko tresna eman gura izan die Arrasateko idazleak berriz ere gazteei: "Askotan, irakasleek zailtasunak izaten dituzte gazte-xoei euskal literatura gomendatzeko, sarritan idazleok gauza astunak idazten ditugulako. Liburu honekin ez dut uste protestarik egingo dutenik. Iruditzen zait, musika arloan ezik, orokorrean, euskal kulturaren erdi abandonatuta daudela gazteak, eta haurrak izateari uzten diotenean, murriztu egiten zaiela eskaintza. Badaikit gazteentzako idatzitako literaturak ez duela aparteko prestigioa, baina erronka polita iruditzen zait eurekin konektatzen saiatzea", azaldu du idazleak.

Badirudi dagoeneko harri-patu dituela Anduezak gazteak: "Azkenaldian, zazpi ikastetxetan izan naiz gaztetxoekin buruz buruko tertulia literarioak egiten, eta eurek esan zidaten *Larunbatean Bukowskin* asko gustatu zitzaizela eta bigarrena ere gustura irakurriko zutela. Solasaldi guztietan jaso dut feedback ona, baina bitxia Portugaletako ikastetxean eman zidaten sorpresa izan zen. Hutsik zegoen antzetzoki batean sartu ninduten eta bat-batean oholtzako oihala



Andueza, liburu berriarekin. | J.A.

zabalduta eta 30 bat ikasleak, bakoitzak liburu pertsonaia bat aukeratuta, sinopsiaren bospasei minutuko moldaketa bat antzetzutu zuten, niretako propio. Oso aberatsak izan dira gazteekin izan ditudan hartu-emanak", gaineratu du idazleak.

### ESANAK

**"Gazteekin harremanetan segitu gura dut; ederra litzateke elkarrekin gazte-tribua osatzea"**

JOHN ANDUEZA | IDAZLEA

Gazteen eskaria aintzat hartuta, eta Elkar argitaletxetik ere bigarreneko proposamena jasota, Gabonetan hasi zen istorioa marrazten. Etxean dituen bi nerabeei erakutsi zien lehenengo, eta horiek, irakurtzen gozatu zutela ikusita, bi hilabete inguruan bidali zuten inprentara.

### Irakurleekin tribua osatuz

Hasierako asmoa bakarra idaztea bazen ere, bilduma bilakatzeko aukera ikusten du orain, Anduezak eta gazteekin batera osatzeko modukoa, gainera: "Harremanetan jarraitu gura dut eurekin, orain artekoen iritziak jaso gura nituzke eta hurrengoetarako proposamenak jaso ere bai: pertsonaia berrien izen edo gaitzizenak edo beste hainbat kontu edo ideia luzatzera gonbidatu gura dut. Guztion artean sekulako tribua osa genezake, elkarrekin jolastuta. Irakurle hutsa izan beharrean, proiektu honen guztiaren parte sentitzea gurako nuke gazteak. Horretarako, Whatsapp zenbaki hau jarri dugu eskura: 688 82 08 61. Horrez gainera, [www.bukowski-tribua.com](http://www.bukowski-tribua.com) ataria sortu dugu", esan du Anduezak.

### Mondraren historiaz idazten

Azkenaldian zinema eta telebistatik lanetan aldenduta, idazle moduan gustura dabilela dio Elgetan bizi den arrasatearra: "Lehenengo lanak ateak zabalduta zizkidan Elkar argitaletxean, eta dagoeneko hiru eleberririk ditut kalean. Orain, berriz, Mondra

### Bide beretik, baina ezberdina


*Larunbatean Bukowskin* eleberrian, Donostiako Bilintx institutuko gazte-tribuen bizipenak kontatu zituen Anduezak.

Toki berean kokatu du *San Ferminetan Lesakan*, bestelakoak badira ere oraingoan protagonistak: DBHko 4. mailako Egelako Danel, Ximon eta Barrabas irakaslea, besteak beste.



Anduezaren bi liburuak.

futbol taldearen mendeurrenaren liburua borobiltzen nabil, zuzendaritzako hainbat kiderekin eta nire bikotekide Marianekin batera. Argazki zaharren aukeraketan murgilduta gaude orain. Hilabete gutxiren epean kaleratzeko asmoa dugu liburua".



Gerardo Markuleta. | NURIA BERNARDO


**'Batzuen artean, zenbait poeta katalan' antologia kaleratzeaz du Markuletak**

Gerardo Markuleta idazleak 1997an Elkar-ekin argitaratu zuen Kataluniako poeten antologia gaurkotu du eta inprentan du, hilabete amaieran argitaratzeko asmoz. Urrezko Bilduma berrirako, aurrez kaleratutakoari euskarazko moldaketak egin dizkio, poema bat gehitu eta hitzaurre berria ere egin dio.

Bederatzi poetaren lanak ditu bilduta, honakoak: Josep Carner, Carles Riba, J. V. Foix, Joan Salvat Papasseit, Pere Quart, Salvador Espriu, Joan Vinyoli, Gabriel Ferrater eta Vincent Andres Estelles. "Bakoitzaren bederatzina poema ele bitan, jatorrizko katalanezkoa, eta euskarazko bertsioa daude. Poemak aukeratzekoan,

laburraren eta argitasunaren alde egin nuen, euskaraz testu gozagarria sortzeko aukera emango zuten poemen alde. Berba bitan, irakurlearen alde", azaldu du Markuletak, eta zera gaineratu: "XX. mendeak dira guztiak, baina askotariko estilo eta gaien erakusleak: klasizistak eta abanguardistak, herriarekin eta kulturarekin konprometitua, berritzaileak...".

Antologia, poesia irakurle hasiberriendako proposa dela dio itzultzaileak: "Poesia zaila eta ulertezina dela burutik kentzeko egokia da oso. Batez ere, baina, katalan hizkuntza, literatura eta herria, maite dutenei gomendatuko nieke".



Liburuaren azala. | ELKAR

# 'Zazpi aldiz elur' obra eskainiko dute domekan Amaia Udal Antzokian

- Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako musika-antzerkia da
- 19:30ean hasiko da Mikel Laboaren musika oinarri duen ikuskizuna

JON MOÑUX | ARRASATE

Domekan egingo dute *Zazpi aldiz elur* ikuskizunaren emanaldia Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Ordu eta erdi iraungo du, gutxi gorabehera, eta sarrerak Amaia antzokian eta Arrasateko Udaleko webgunean eros daitezke. Udaberriko Musikaldia ekimenaren barruko azkenengo ikuskizuna izango da Mireia Gabilondoren lana.

Bernardo Atxagak Mikel Laboaren omenez 2009an *Erleak* aldizkarian idatzitako artikulua bat du abiapuntu Tanttaka antzerki taldearen lanak. Ikuskizunak poesia, musika, antzezpenak eta bideo-proiektzioak tartekatzen ditu, eta kontakizuna zazpi ataletan banatua dagoela azaldu du Mireia Gabilondok: "Mikel hil zenean, elurra ari zuela eta elurrak daukan ukitu poetikoarekin hasten gara". Laboa haurrekin lan egiten zuen psikiatra modura erakutsiko dute bigarren zatian. Gero, umorea oinarri duten pare bat atal eskainiko dituzte, "zine komikoa eta Mikelek maite zuen Cantinflas aitzakia hartuta", dio Gabilondok. Eta, azkenik, txoriekin eta heriotzarekin lotutako atalak daude.

Antzerkiko testua Bernardo Atxagarena da, eta Mireia Gabilondo bergararra, ikuskizunaren zuzendaria izateaz gain, aktoreetako bat ere bada. Bost antzezle daude, guztira, ikuskizunean: Iñaki Iriarte bigarren aktorea da bergararrarekin batera. Iñaki Salvador eta Angel Untzu musikari aritzen dira eta Maria Berasarte da abeslaria. Hala ere, paperak ez dira hain zehatzak;

izan ere, abeslariak antzezle lana ere egiten du, eta musikariak kontalari ere ibiltzen dira. Bost antzezleek denetik egiten dutela dio Mireia Gabilondok.

## Mikel Laboa erreferente

Askotan sartu ditu Mireia Gabilondok Mikel Laboaren kantuak

bere lanetan. *Zazpi aldiz elur* ikuskizunerako, berriz, osagai batzuk kendu eta gaineratu dizkie zuzendariak kantuei. Hala ere, kantuen nortasuna mantendu egin duela dio Gabilondok: "Hura askea zen, eta haren lanek ere izaera bera zuten; guk hori guztia errespetatu dugu". Ikus-

kizunera "haren ausardia" ekarri nahi izan dutela gaineratu du.

Mikel Laboarekin harreman zuzena izan zuen aktore bergararrak. Txikitatik entzun zuen artista, eta bere musikak gauza asko erakutsi dizkiola dio Mireia Gabilondok: "Oso inportantea izan da nire heziketa pertsonalean".



Oñatin egin zuten *Zazpi aldiz elur* antzezlaren irudi bat. | IMANOL SORIANO

## 'Erdaldun berrien kluba' antzezlana Eskoriatzan

JON MOÑUX | ESKORIATZA

Gaur gauean eskainiko dute *Erdaldun berrien kluba* Huheziko fakultatean. 22:30ean hasiko da, doan. Arrasateko AED elkarteak ekoiztu du, eta euskararen erabileraren inguruko gogoeta bultzatzea da helburua.

Irantzu euskaraz pentsatzen eta sentitzen duen eta, ahal duenean, euskaraz diharduen gazte eskoriatzarra da. Antzerkian, gazteleraz hitz egiterakoan sortzen zaizkion arazoak eta bizipenak azaltzen dira. Hizkuntza transmisioaren, emetasunaren eta genero rolen inguruko hausnarketak ere eragingo ditu talde arrasatearraren lanak, umorea erabiliz, betiere.

Idoia Etxeberria oñatiarrek idatzitako gidoia da, eta Olatz Pagaldai Eskoriatzako aktoreak eraman du oholtzara. Orain dela bi hilabete inguru estrenaitu zuten *Erdaldun berrien kluba* Arrasateko gaztetxean, eta, Eskoriatzako emanaldiaren ostean, Aretxabaletako zineman dute hitzordua maiatzaren 9an.

## AEDren antzezlana

2011ko maiatzean estreinatu zuen Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak lehenengo antzerkia, *Buah txabal!* Unai Iturriaga izan zen gidoilaria. Estreinalditik hona, ehun emanalditik gora egin ditu Jon Zubiagak bakarrik antzeztutako lanak.

Bi antzerkiek euskararen erabileraren gaia dute oinarri; izan ere, AED elkartearen ustez, "badirudi antzerkia formatu egokia izan daitekeela hizkuntzaren gaia euskaldunei modu atsegin eta erakargarrian gerturatzeko".

## Gose eta NX taldeek joko dute gaur gauean Oñatiko Gaztelekuan

Kontzertua 22:30ean hasiko da eta bost eurotan egongo dira sarrerak

J.M. | OÑATI

Orain dela zazpi urte inguru jo zuen azkeneko Gose taldeak Oñatin. Gaur gauean, berriz, talde arrasatearraren musika saioa entzuteko aukera izango dute oñatiarrek. Haiekin batera, Iruñetik datorren NX taldeak ere kontzertua eskainiko du herriko Gaztelekuan.

2012an aurkeztu zuen azkenengo diskoa Gosek, *Gose IIII* izeneko. Taldearen bosgarren diskoa da, eta, oraingoan ere, trikitiaren trataera moderno,

punkaren jarrera eta elektronikaren ukituak nahasten jarraitzen du Ines Osinaga, Iñaki Bengoa eta Osoron kideek osatutako talde debagoiendarrak.

Azken urteotan euskal musikagintzak emandako talderik arrakastatsuenetako bat bilakatu da Gose, eta hainbat kontzertu eskaini ditu Euskal Herrikan kanpo ere.

## NX musika talde berria

NX boskoteak, berriz, rock indartsuan oinarritutako musika

dakar, baina metal doinuetatik punkera doazen soinuekin ere nahasten dituzte kantuak. Itziar da taldeko abeslaria eta, hain zuzen, harenak dira abestiak letrak. Hainbat kezka eta gogoeta azaleratzen dira musika talde nafarraren obretan, hala nola pobrezia, kapitalismoa, emakumeak eta errespetua.

Bada, NX taldea berria izan arren, kideak ez dira hasiberriak musikan. Izan ere, taldekide asko Anorexia proiektuan egon dira aurretik.



Goseren bosgarren lanaren argazki promozionala. | GOSE





Iaz Oñatin egin zuten Bailarako Dantzari Egunaren une bat. | GOIENA

## Arrasatek hartuko du bihar, zapatua, bailarako aurtengo Dantzari Eguna

Arrasateko, Oñatiko eta Antzuolako dantzariak hartuko dute parte bertan

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Urtero herri ezberdin baten antolatze ohiturarekin jarraituz, Arrasate hartu dio Oñatiri lekukoa eta bertan egingo dute bailarako Dantzari Eguna. Bihar izango da egun handia, eta hiru

herritako lau dantza taldek hartuko dute parte, guztira: Oñatiko Oñatzek; Antzuolako Oinarinek; eta Arrasateko Lore Gazteak eta Arrostitz taldeek, hain zuzen ere. Azken biak dabilta biharkoa antolatzen.

"Egun polita da. Talde desberdinak elkartzeko, dantza egiteko eta, horrenbeste entseguren ondoren, jendeari dantza desberdinak erakusteko eguna", dio Lore Gazteak taldeko Itziar Ruiz de Azuak bailarako Dantzari

Egunaren inguruan galdetuta.

Azken urteetan jaitsi egin da parte hartzen duten dantza taldeen kopurua; izan ere, garai baten, Sorluzeko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bergarako dantza taldeek ere hartzen zuten parte bertan. Dena den, Ruiz de Azuak gaineratzen du Dantzari Egunak dauden dantza taldeen arteko harremanak sendotzeko balio duela: "Urte osoan lan bat da. Urte osoan zehar izaten ditugu bailara mailan bilerak, eta biharko eguna da horren emaitza".

**Askotariko dantzak**

11:45ean emango diote hasiera egunari, dantza talde guztiek Arrasaten zehar egingo duten kalejirarekin. Zaldibartik irten go da, eta Herriko Plazan amaituko da. Ikusteko polita izango da, gainera, kalejira, talde bakoitzak jantzi ezberdinak eroango ditu-eta.

Herriko Plazan 12:15ean hasita egingo duten alardeari esker, ikusleek askotariko dantzez gozatzeko aukera izango dute. Agurrarekin hasiko dira, eta ondoren, bai taldeka eta baita denak batera ere, dantza erakustaldi zabalago egingo dute. Hala, eguneko lehen alarde horretan, Oñatzekoek balkarlos dantzatuko dute; Lore Gazteak taldekoek, montajea; Oinarinekoek, soka-dantza; eta Arrostitzkoek, calles.

Talde guztiak batera ere ibiliko dira: mutilek Bizkaiko dantzak egingo dituzte (ikurrin-dantza, binakoa, makil-dantza eta

txankarranko); eta neskek, Zube-roako makil-dantza. Eta dantza mistoak ere egingo dituzte talde guztiek batera: jauziak, domin-gillo eta gorulari.

**Arratsaldean, gehiago**

Kataide jatetxean talde guztietako kideek bazkaltzeko etena egin ostean, dantze protagonistak izaten jarraituko dute arratsaldean ere, 18:00etan bigarren alardea egingo dute-eta. Kasu horretan, Oñatzekoek iribas egingo dute dantza; Arrostitzkoek, kortes; Oinarinekoek, trokeo-dantza; eta Lore Gazteak taldekoek, *La balsa* izenekoak.

Arratsaldeko saioan Gipuzkoako dantzak izango dira mutilek egingo dituztenak (ezpata-dantza, zortzikoa, brokel eta makil-dantzak eta uztai-dantza), baita kateak ere. Neskek, berriz, zinta-dantza eta itai-dantza egingo dute, eta larrain-dantza ere egingo dute talde guztietako neskek eta mutilek batera.

DATUA

150

DANTZARI

Denera, Debagoieneko hiru herritako lau dantza taldetako kideak hartuko dute parte biharko Dantzari Egunean.



Clara Haddad ipuin kontalari brasildarra. | ARRASATEKO UDAL LIBURUTEGIA

## Munduko hainbat txokotatik Arrasatera, kontuak kontatzera

T.M. | ARRASATE

Aurten Liburuaren Eguna apirilaren 23an, Pazko Astean, dela eta, aurreratu egin dituzte Arrasateko Udal Liburutegian egun horren harira antolatutako hainbat ekintza. Hala, gaur bertan, *Munduko Kontulariak* ekimenari esker, munduko hainbat txokotatik etorritako ipuinak entzuteko aukera egongo da.

**Bertakoak eta kanpokoak**

Goizeko hamaiketan, Aragoiko Oswald Paik *Cuentos Colorados* ikuskizuna eskainiko du ikasleendako Kulturategiaren Jokin Zaitegi gelan.

19:00etatik aurrera, eta leku berean, gazte eta helduendako saioa egingo dute hiru ipuin kontulariarekin. Bego Alabazan euskaldunak ipuinak kontatu eta aurkezpen lanak egingo ditu, eta ondoren Amerikako bi ordezkariaren txanda izango da. Clara Haddad brasildarrak *Cuentos de Otrora para Personas de Ahora* eskainiko du, urrutiko garai eta lekuetako istorioen kontaketa.

Alekos kolonbiarrak, berriz, *Cuentos y cantos de los últimos tiempos* ikuskizuna ekarriko du Arrasatera, hainbat urte hartzen dituen nolabaiteko atzerabegirako pertsonala.

## Ibarreko lehen bertso-merienda egingo dute gaur bertso eskolek Aretxabaletan

Lekai-xoka bertso eskola berriak jasoko ditu ibarreko bertsolariak etxean

MAIDER ARREGI | ARETXABALETA

Laster, urtebete egingo du Lekai-xoka bertso eskolak. "Bertso-merienda bertso eskola berri gisa hartu dugun erantzukizuna izan da". Aretxabaletako bertso eskola hamalau gaztetxok eta hamar helduk osatzen dute.

"Martxa hartzen gabiltza eta pixkanaka gauzak aurrera ateratzen. Hilero-hilero zerbait antolatzen saiatzen gara", azaldu digu Mikel Mendiarezek, Lekai-xoka eskolako kideak. "Topaketaren helburua da elkarren artean ezagutzea eta besteek egiten dutenaren berri izatea; baita elkarrekin gauzak antolatzea ere", nabarmendu digu.

**50 gaztetxo**

Umeen topaketa 17:30etik 19:00etara bitartean egingo da. Guztira, 50 gaztetxo espero dituzte antolatzaileek. Bat-bateko saioak egingo dituzte, eta gero, bakoitzak prestatutako bertsoak botako dituzte: "Batzuek agurra kantatuko dute, beste batzuek bertso musikatua ekarriko dute; eskola bakoitzak bere mailaren araberrako saioak egingo ditu". Emanaldi bakoitzak bospasei minu-



Aretxabaletako Lekai-xoka bertso eskolako gaztetxoak. | MIRRIALTEBE

tuko iraupena izango du; bukarrera borobiltzeko, guztien artean bertso sorta bat eta *potokumeak* egingo dituzte.

**Helduak iluntzean**

Arratsaldeko zazpietatik aurrera helduen txanda izango da; 30 lagun inguru batuko direla esan du Mendiarezek.

Bertso olinpiadekin hasiko dira elkar ezagutu eta harremanak egiteko. Kalejiran, poteoa

egingo dute eta ondoren Murualde elkartean afaria.

"Hortik aurrerakoak... batek jakin! Bertsoak ez direla faltako sumatzen dut, baina plana tertulian etorkizunerako asmo, plan, proiektuez... hitz egitea da. Norabide berean lanean dihardugun talde ezberdinak gara eta oso aberasgarria litzateke egiten ari garenaren berri izan eta elkarrekin egitasmoren bat pentsatzea", azaldu du Mendiarezek.



## Berriak

Eguneko albisteak

Monika Belastegik aurkeztuta

- ▶ Arratsalde: 14:30, 16:30 eta 18:30
- ▶ Gueuz: 20:30, 21:30 eta 23:00



## 1. ETXEBIZITZAK

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** San Andres auzoan etxebizitza errentan ematen da. Bi logela eta egongela. Deitu 639 00 44 45 telefonora

**Oñati.** Kurtzebidetean etxebizitza jantzia ematen da errentan. Hiru logela eta bi bainugela. Deitu telefono zenbaki honetara: 615 73 29 83

**Oñati.** San Lorentzo auzoan etxebizitza ematen da errentan. Lau logela. Berokuntza eta igogailua. Biterrazarekin. 688 80 47 70 edo 656 71 04 04

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 59 17

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, merke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 648 46 90 51

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio ekonomikoan. 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bakarrendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. 722 45 33 59

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 03 33 56

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela dauzkat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro diru pertsonako, gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 68 57 77

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldia erabiltzeko aukerarekin eta internetarekin. Leku lasaia da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldia eta komuna erabilita. Leku lasaia da. Hilean 260 euro. Kontraturik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Oñati.** Logela alokatzen da duplex berri batean, plazatik oso gertu. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 74 29 49

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

## 2. GARAJEAK

## 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Torreakan. 16 metro koadro. 12.000 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 73 45 71

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Elgeta.** Pertsona behar dugu, etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko. Autoa beharrezkoa. 626 78 33 67 edo 686 30 09 29

## 402. ESKAERA

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarrekin, tabernak eta abar garbitzeko gertu. 686 27 45 81

**Bergara edo Arrasate.** Emakume arduratsua lanerako gertu dendarri bezala, etxeko lanetan, eskailerak edo elkarrekin garbitzen, edo baita pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ere. 625 86 99 51

**Bergara.** 49 urteko emakumea lanerako gertu. Deitu 688 89 82 39 telefonora.

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Bertakoa. Deitu 696 84 19 51 edo 943 53 29 18 telefonora

**Bergara.** Goizetan eta eguerditan umeak zainduko nituzke. Psikopedagogia eta haur hezkuntza ikasketak ditut. Deitu 669 64 64 27 telefonora

**Bergara.** Prest adineko pertsona edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Deitu 665 75 41 32 telefonora.

**Debagoiena.** 24 urteko neska eskaintzen da nagusi eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan lan egiteko. Laguntzaile graduatua daukat eta eskarmentu handia nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa dauzkat. 617 20 59 43

**Debagoiena.** Arrasateko Eguzkiñe naiz eta etxeko garbiketarak egiteko gertu nago. Kantzautza, denborarik gabe edo gaixo bazauda, nik lagunduko dizut. 650 06 01 35

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko 13:00etatik aurrera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**Debagoiena.** Edozein lanetarako prest dagoen mutil bat naiz. Telefonoa: 610 12 49 64

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, informekin, garbiketara lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 27 25 34

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsonak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Sonia. 632 84 02 30

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Jatetxean, garbitasunean, umeak zaintzen edota tailerlean lan egiten dut. Deitu 647 10 58 72 edo 943 79 96 25 zenbakietara.

**Debagoiena.** Eraikuntza lanak egingo nituzke. Bigarren mailako enkafraztaile edo peoi. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 83 49 90

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile lanak egingo nituzke, nagusia eta gaisoak zaindu edo etxean laguntzen. Opor garaian ere bai. 602 516 728

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskaerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Konpondu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdut  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea sukaldia lan egiteko gertu. 619 18 81 86

**Debagoiena.** Garbiketara lan egiten ditut eta haurrak zaindu ere bai. 631 47 81 87

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako. Gidari, zerbitzari, sukaldia laguntzaile, margoketa lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Gizon arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko gertu. Orduka edo egunez. Autoa daukat. 652 58 41 99

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo egunez edo orduka. Garbiketara edo peoi lanetan ere bai. Erabateko prestutasuna. 602 07 12 06

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gauz ere bai. Garbiketara, nagusiak zaintzen eta abar. Deitu 620 12 78 46 telefonora.

**Debagoiena.** Lan bila nabil umeak zaindu, atariak garbitu edo etxeak garbitzen. Esperientziaduna. Egunez disponibilitate osoa. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Debagoiena.** Lan bila nabil, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Lege agiriak eguneratuta dauzkat. Deitu 662 23 13 01 telefonora.

**Debagoiena.** Lorazain eta kofratzaile lanetan lan egingo nuke. Tituladuna, esperientziaduna eta gidabaimena. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Mutil arduratsua orduka lan egiteko gertu: garbiketara, sukaldia laguntzaile, zerbitzari edo nagusi eta umeak zaintzen. Deitu telefono zenbakira: 631 05 34 15

**Debagoiena.** Mutila gertu garbitasunak egiteko taberna, elkarre, bulego eta abarretan. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbakira: 722 45 33 59

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta atariak garbituko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbakira: 639 02 00 81

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta atariak garbituko nituzke. 632 98 17 79

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke 8:00etatik 13:00etara, edo gauetan. Gidabaimena eta lege-agiriak dauzkat. 697 66 89 20

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo garbitasunean lan egingo nuke. Elkarrekin garbitzen esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbakira: 648 46 90 51

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egingo nituzke eta baita umeak zaindu ere. Asteleheneetik ostiralera. Interesatuok deitu telefono zenbakira: hauetara 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketara lan egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. Deitu telefono zenbakira: 943 08 14 33

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketara lan egiteko gertu. Orduka edo egunez. Interesatuok deitu telefono zenbakira: 645 01 05 84

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarre eta abarretan garbiketara lan egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. Deitu telefono zenbakira: 943 08 14 33

**Debagoiena.** Neska arduratsua, sukaldaritza eta geriatria oinarriko ikasketaduna, lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta garbiketara lan egiteko nituzke, etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Deitu 615 06 28 04 telefonora.

**Debagoiena.** Neska Boliviarrak, esperientziaduna, garbitasunak egingo nituzke orduka. Baita nagusiak zaindu ere, astelehenean. 618 14 71 34

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeak garbitzeko. Esperientziaduna. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaitzeko edo garbiketara lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 48 47 76

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 18 81 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukaldia laguntzaile, pertsonen zaintzan, garbitasunean eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska prest gauetan lan egiteko, ospitalean edo etxean. Geriatria laguntzaile tituladuna. Autoarekin. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke. Garbiketara, ume edo laguntza behar dutenak zaindu, ile-apaindegi laguntzaile edota dendarri jardundakoa naiz. 638 25 73 91 edo 943 79 80 05

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan lan egingo nuke orduka, etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. Tabernak garbitzen ere arituko nintzateke. 602 64 68 17

**Debagoiena.** Pertsonen zaintzan lan egingo nuke. Geriatria, etxe etxeko laguntza eta profesional ziurtagiria dauzkat. 659 17 81 01

**Klinika laguntzailea.** Esperientziadun klinika laguntzailea prest nagusiak, bai etxean eta bai ospitalean zaintzeko. Orduka edo gauz. 609 98 02 52

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Automata.** Siemens 1 automaten eskola partikularrak emango dizkidan norbaitek behar dut. Bergarando inguruan. 660 46 34 93 edo 943 76 15 76

**Ingelesa Arrasaten.** Hasiara mallako ingeles eskola partikularrak emango dizkidan norbaitek behar dut. Prezio merkean, ahal bada. Deitu telefono zenbaki honetara: 637 97 85 54

**Oñati.** DBHko laugarren mailako neskatila bati matematika eta fisika eskola partikularrak emango dizkion norbaitek behar dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 627 91 23 21

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Cockerra.** Cockerra ematen da opari. Zazpi urte dauzka. Txipa eta osasun agiriak dauzka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 45 96 01

## 704. BESTELAKOAK

**Arratoi txakur txikia galduta Arrasaten.** Apirilaren 7an, arratsalde aldera Ekilore inguruangaldutako. Marroi kolorekoa, bularrean ile zuria du. Norbaitek ikusi ezkerona hona deitu: 943 79 86 35 edo 650 16 17 50

**Txakurra galduta.** Txakur bat galdut da Oñatin, Lizargarate inguruan. Kanela kolorekoa, hanka zuria eta mutur zuria du. Norbaitek ikusi badu deitu hona: 646 39 87 31

## 8. DENETARIK

## 802. EROSI

**Kutxa-izozkailua** erosiko nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

**Lotarako zakua.** Negurako bigarren eskuko lotarako zakua erosiko nuke. 628 51 22 78

**Trangia erregailua.** Alkoholarekin dabilen bigarren eskuko Trangia erregailu kita erosiko nuke. 660 43 64 29

## 803. EMAN

**Lurra ematen da.** 50 kamioi-kada lur ematen dira. Inork gura izanez gero, zuloren bat betetzeko, deitu zenbaki honetara: 667 91 55 90

## 806. GALDU

**Jaka beltza Bergaran.** Larunbat gauetan, martxoaren 8an, Bergarako Usoa edo Ariznoa tabernetan, norbaitek nire laruzko jaka beltza eraman eta berea utzi zuen. Nirea emakumeendakoa da eta utzitakoa gizonendakoa. Nirekin harremanetan jar zedila eskertuko nuke. Naiara. 606 82 45 52

**Jaka eta telefonoa Oñatin.** Larunbat gauetan, apirilaren 5ean, Onatikotabernan baten jaka beltza ahaztuta utzi edo lapurtu zidaten. Poltsikoan telefono mugikorra, Samsung galaxy SII neraman. Sikiera SIM txartela berreskuratzea balego, eskertuko nuke. Angel. 666 95 79 85

**Lepoko zintzilikarioa.** Harri bitxi zuri handi bat eta 3 txikiekin gorri, berde eta txurirekin atondutako zilarrezko zintzilikarioa galdut nuen martxoaren 18an ospitale inguruan. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez. Mila esker. 660 82 61 81

## GARAJE ITXIAK SALGAI URIBARRI AUZOAN (ARRASATE)

- Aireztatuak eta 4 metro baino gehiagoko altuera.
- Camper estiloko furgonetentzat edota kirol materiala gordetzeko egokia.
- Garajeen sarrera-atearen altuera 2,7 m.



INFORMA ZAITEZE!  
943 31 68 68

## ASTEAGOIENAN



## Emakumea, gerra eta errepresioa hizpide

Emakumea, gerra eta errepresioa izenburua duen ikus-entzunezkoari buruz jardungo dugu gaur, egubakoitza, *Tertulia* saioan. Larraitz Zeberioi aurkeztuta, ikus-entzunezko horren protagonistak izango ditugu solaskide saioan.

**'Tertulia'**  
Egubakoitza, 18:30



## Oñatiko Olaburu zentroa ikusgai

Enpresa berriendako eta ekin-tzaileendako lokal gehiago ireki dituzte Oñatin. Zubillagako Olaburu zentroan lau lokal berri zabaldu dituzte eta horiek ikus-terko aukera izango dugu, besteak beste, *Debagoiena zuzenean* saioan gaur, egubakoitza.

**'Debagoiena zuzenean'**  
Egubakoitza, 20:00

## GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 11	ZAPATUA, 12	DOMEKA, 13	ASTELEHENA, 14	MARTITZENA, 15	EGUAZTENA, 16	EGUENA, 17
12:00 Ikusmira	10:00 Kantari	10:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Ikusi irratia	12:00 Tripa-zorri	10:00 Kantari
12:15 Sagarrondotik	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Ibilean	12:50 Tripa-zorri	12:30 Klaketa	11:00 Debagoiena zuzenean
13:10 Bertso saioa	12:00 Amaia DJ	11:05 Atik Zra	13:30 Debagoiena zuzenean	13:25 Amaia DJ	13:15 Ikusmira	12:00 Amaia DJ
13:30 Kantari	12:30 Zorion Agurrak	12:10 Sagarrondotik	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari	12:30 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean	12:35 Onein	13:00 Berriak	15:00 Tertulia	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	12:35 Onein
14:30 Berriak	13:00 Bertso saioa	13:05 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	15:00 Harmailatik	14:30 Berriak	13:00 Bertso saioa
15:00 Amaia DJ	13:30 Tertulia	14:00 Zorion Agurrak	17:00 Kantari	15:30 Onein	15:00 Ikusi irratia	13:30 Tertulia
15:30 Onein	15:00 Berriak	14:05 Tertulia	17:30 Sagarrondotik	15:55 Zorion Agurrak	15:45 Ikusmira	15:05 Debagoiena zuzenean
16:00 Debagoiena zuzenean	15:05 Debagoiena zuzenean	15:35 Kantari	18:25 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Bertso saioa
16:30 Berriak	16:00 Atik Zra	16:40 Ikusmira	18:30 Berriak	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:30 Bertso saioa
17:00 Klaketa	17:05 Harira	17:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Amaia DJ	17:00 Ibilean	17:00 Kantari	16:30 Kontzertua
17:45 Ur eta lur	18:05 Pedalka	18:00 Berriak	19:30 Harmailatik	17:30 Sagarrondotik	17:30 Klaketa	17:05 Ibilean
18:25 Zorion Agurrak	18:35 Zorion Agurrak	18:05 Pedalka	20:00 Debagoiena zuzenean	18:20 Zorion Agurrak	18:15 Ikusmira	18:05 Pedalka
18:30 Tertulia	18:40 Amaia DJ	18:35 Tripa-zorri	20:30 Berriak	18:30 Berriak	18:30 Berriak	18:35 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean	19:05 Debagoiena zuzenean	19:05 Harira	21:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Pedalka	19:30 Harmailatik	18:40 Amaia DJ
20:30 Berriak	19:55 Berriak	20:10 Amaia DJ	21:30 Berriak	19:30 Kantari	20:00 Debagoiena zuzenean	19:05 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Harira	20:40 Zorion Agurrak	22:00 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:00 Kontzertua
21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	20:50 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Bertso saioa
22:00 Tertulia	22:00 Tertulia	21:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	21:30 Berriak	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
23:30 Berriak	23:15 Berriak	22:00 Pedalka	23:30 Gurean gaur	22:00 Amaia DJ	22:00 Pedalka	22:00 Tertulia
00:00 Gurean gaur	23:20 Atik Zra	22:30 Tertulia	23:50 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	23:00 Kontzertua
00:20 Tertulia	00:20 Pedalka	00:00 Harira	00:20 Harmailatik	23:00 Berriak	23:00 Gurean gaur	23:30 Pedalka
	00:50 Debagoiena zuzenean	01:00 Debagoiena zuzenean		23:30 Gurean gaur	23:50 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean
				23:50 Tertulia	00:20 Pedalka	

## ARRASATE IRRATIA

## Asteko gainbegiratu egingo dugu zapatuan eta domekan

Asteazkenetik 107.7ko uhin-tan entzun ditugun elkar-riketak berreskuratu ditugu asteburuan 10:00etan. Arrasateko Gure Esku Dago taldeari buruz hitz egingo digu Jon Zuloagak eta bailarako dantzarien egunari buruzko kontuak ere jasoko ditugu Arrasate Irratian, zapatuan eta domekan.

## Eguaztenean izango dugu asteko azken 'Igo autobusera!'

Datorren astean, astelehenetik eguaztenera bitartean izango dugu *Igo autobusera!* irratsaioa, 10:00etan. Gero, Aste Santua dela-eta, irratiko autobusa garajera sartuko dugu eta hilaren 28an, astelehena, itzuliko gara irratiko ohiko programazioarekin. Bitartean, musika izango da.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 11	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
Zapatua, 12	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Domeka, 13	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 14	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Martitzena, 15	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Eguaztena, 16	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguena, 17	ALBERTO AZKOAGA	Ferrieras kalea 1	943 79 15 15
BERGARA			
Egubakoitza, 11	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Zapatua, 12	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 13	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 14	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 15	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 16	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguena, 17	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 11	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 12	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 13	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 14	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Martitzena, 15	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguaztena, 16	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 17	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58

Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

## DEBAGOIENA



Max. 17°  
Min. 8°




Max. 19°  
Min. 10°

**ZAPATUA, 12**  
Hodeiak gutxitu egingo dira eta nahiz eta goizean hodeiak pilatu egingo diren, arratsaldean ostar-teak zabalagoak izango dira.

**DOMEKA, 13**  
Tenperaturak gora egingo du domekan eta eguraldi egonkorra espero da. Hodeiak egon arren, ostar-teak zabalduko dira.

## EUSKAL HERRIA



Ipar-osagaiko haizeak kantauri isurialdean hodeiak pilatuko ditu. Hegoaldean giro eguzkitsua izango da.

## EZKONTZAK



## Leire eta Jon

Leire Mugarza eta Jon Lasa larunbat honetan ezkonduko dira Oñatiko udaletxean eta bazkaria Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute. "Familia eta lagun guztion partetik, egun berezi eta polit bat opa dizuegu! Orain arte bezain zoriontsu izaten jarraitu! Musu eta besarkada bana!".



## Eduarne eta Aritz

"Eduarne Iturbe eta Aritz Elorza zapatuan ezkonduko dira Antzuolako udaletxean eta ondoren Arrasate aldean afalduko dugu denok batera. Zorionak, bikote! Urte askoren ondoren pausoa emango duzue! Zorionak, lagun guztion partetik, eta primeran pasatu Machu Picchu aldean!".

## OROIGARRIA

**Joxean  
Urizar Berraondo**

Gasteizen hil zen 2014ko apirilaren 7an, 79 urte zituela.

*Zu bai lehoia!*Elgetako Intxortako Lehoiak lagunartea.  
Elgetan, 2014ko apirilaren 11n.

## OROIGARRIA

**Juan  
Irazabal Aranzabal**

2014ko apirilaren 7an hil zen, 91 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gagoan.*Intxorta elkarteko domeketako lagunen partetik.  
Elgetan, 2014ko apirilaren 11n.

## OROIGARRIA

**Isabel  
Diego Ortiz**  
1932-05-28 / 2010-04-19  
**Jose Ignacio  
Uribarri Jausoro**  
1941-06-26 / 2003-03-30*Beti nirekin.*

Eskoriatzan, 2014ko apirilaren 11n.

## ESKER ONA

**Jose Antonio  
Urizar Berraondo**

Gasteizen hil zen 2014ko apirilaren 7an, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa  
eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri  
eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez  
besarkada handi bana familiaren izenean.

Elgetan, 2014ko apirilaren 11n.

## ESKER ONA

**Isidro  
Auzmendi Sampedro**  
M. Luisa Lascurainen alarguna

Arrasaten hil zen 2014ko apirilaren 6an, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa  
eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri  
eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez  
besarkada handi bana familiaren izenean.

Arrasaten, 2014ko apirilaren 11n.

## ESKER ONA

**Bizenta  
Balanzategi Altuna**  
Gregorio Kortabariaren alarguna

Arrasaten hil zen 2014ko apirilaren 7an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak  
bidali zenizkiguteno, eskerrik asko, sendikoen izenean.Haren aldeko meza domekan izango da, apirilaren 13an,  
11:00etan, Uribarri auzoko Itxaropenaren amaren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi, alde zuretik, eskerrik asko.

Arrasaten, 2014ko apirilaren 11n.

## ESKER ONA

**Luis Mari  
Ojanguren Gallastegi**

Apirilaren 4an hil zen, Angiozarren, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran (Angiozar), 2014ko apirilaren 11n.

## ESKER ONA

**Jose Luis  
Elgero Urzelai**

2014ko apirilaren 6an hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa  
eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri  
eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez  
besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2014ko apirilaren 11n.

## URTEURRENA

**Juan Maria  
Uribarren Egidazu**'Ante'  
Gasteizen hil zen 2013ko apirilaren 7an, 70 urte zituela.Lehen urteurreneko meza domekan izango da, apirilaren 13an, 11:00etan,  
Garagartzako Mikel Goiaingeruaren elizan.*Gure artean jarraitzen duzu.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten (Garagartza), 2014ko apirilaren 11n.

## URTEURRENA

**Iñaxio  
Ugarte Garitaonandia**

2013ko apirilean 9an hil zen, 55 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 12an, 19:00etan,  
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2014ko apirilaren 11n.

## IX. URTEURRENA

**Amaia Uriarte Urtaza  
Ane Miren Telleria Iñurritegi  
Mikel Urzelai Aiestui  
Aitor Oñate Aiestui**

2005eko apirilaren 20an hil ziren auto istripuz, 24, 22, 22 eta 20 urte zituztela.

*Beti gure artean zaudete.*

Oñatin, 2014ko apirilaren 11n.

## HILDAKOAK

**M. Teresa Aiestui Arregi.** Oñatin, apirilaren 1ean, 94 urte.  
**Rosario Zulaika Osa.** Arrasaten, apirilaren 3an, 87 urte.  
**Maria Lizarralde Larrañaga.** Bergaran, apirilaren 3an, 95 urte.  
**Damian M. de Kontrasta Gomez de Segura.** Eibarren, apirilaren 3an, 88 urte.  
**M. Teresa Zeziaga Bolinaga.** Arrasaten, apirilaren 4an, 80 urte.  
**Luis Mari Ojanguren Gallastegi.** Bergaran, apirilaren 4an, 69 urte.  
**Rita Arroitia Galdos.** Arrasaten, apirilaren 5ean, 99 urte.  
**Jose Luis Elgero Urzelai.** Bergaran, apirilaren 6an, 68 urte.  
**Isidro Auzmendi Sampedro.** Arrasaten, apirilaren 6an, 87 urte.  
**F. Javier Fernandez Cerdan.** Bergaran, apirilaren 6an, 73 urte.  
**Jose Antonio Urizar Berraondo.** Elgetan, apirilaren 7an, 79 urte.  
**Juan Irazabal Aranzabal.** Elgetan, apirilaren 7an, 91 urte.  
**Felipe Urrutia Ibabe.** Aretxabaletan, apirilaren 7an, 94 urte.  
**Bizenta Balanzategi Altuna.** Arrasaten, apirilaren 7an, 89 urte.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ar-  
dura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik  
beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-  
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## ZINEMA

## ARRASATE

## AMAIA ANTZOKIA

**Nebraska**  
Zapatua: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**Buscando a Nemo 3D**  
Zapatua: 17:00.

## BERGARA

## ZABALOTEGI

**Gravity**  
Domeka: 19:30.

**Turbo**  
Domeka: 17:00.

## OÑATI

## KULTURA ETXEA

**Her**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**El pequeño Angel**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## ARETXABAETA

## ARKUPE

**8 apellidos vascos**  
Egubakoitza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30, 21:30.  
Astelehena: 16:00.

**Bram Barrabas (euskaraz)**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

## EIBAR

## COLISEO

**Joven y bonita**  
Zapatua: 17:00, 19:45,  
22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**Una vida en tres días**  
Zapatua: 17:00, 19:45,  
22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.  
Astelehena: 20:30.

## ANTZOKIA

**Rio 2 3D**  
Zapatua: 17:00.

**Noe**  
Zapatua: 19:45, 22:30.  
Astelehena: 20:30.

## GASTEIZ

## BOULEVARD

**Noe**  
Zapatua eta domeka: 16:45.  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:45.  
Domeka: 21:00.  
Egubakoitza eta zapatua:  
19:30, 22:15.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 19:30, 21:00,  
22:15.

**Need for speed**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:25.  
Egubakoitza eta zapatua:  
19:00, 21:45.  
Astelehena eta martitzena:  
19:00, 21:45.  
Eguztzena: 22:15.

**Need for speed 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
23:30.  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:45.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 20:45.

**El origen de un imperio 3D**  
Domeka: 16:45.

**Rio 2**  
Zapatua eta domeka: 15:45.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:00, 20:15.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 18:00, 20:15.

**Rio 2 3D**  
Zapatua eta domeka: 16:15.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:30.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 18:30.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**  
Zapatua eta domeka: 16:25.  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:25.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 18:25.

## 8 apellidos vascos

Egubakoitza eta zapatua:  
23:45, 00:15, 00:45.  
Zapatua eta domeka: 15:45,  
16:15, 16:45.

Egubakoitza eta zapatua:  
17:45, 18:15, 18:45, 19:45,  
20:15, 20:45, 21:45,  
22:15, 22:45.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 17:45, 18:15,  
18:45, 19:45, 20:15,  
20:45, 21:45, 22:15,  
22:45.

**Capitan America**  
Egubakoitza eta zapatua:  
19:15, 22:00.  
Zapatua eta domeka: 16:30.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 19:15, 22:00.

**Capitan America 3D**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:45.  
Domeka: 15:45.

**El origen de un imperio**  
Zapatua eta domeka: 16:45.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 22:30.

**Rio 2**  
Egubakoitza: 16:35, 18:35.

**Kamikaze**  
Egubakoitza eta zapatua:  
00:25.  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:25, 22:25.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 20:25, 22:25.

**El Gran Hotel Budapest**  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:30, 22:30, 00:30.  
Domeka: 18:30.  
Astelehena, martitzena eta  
eguztzena: 18:30.

**Lego, la película**  
Zapatua: 15:45.

**El tour de los Muppets**  
Eguztzena: 17:45, 20:00.

## FLORIDA

**Noe**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 22:35.  
Astelehena eta martitzena:  
17:30.

**Cronicas diplomaticas**  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:00.

## 8 apellidos vascos

Egubakoitza: 16:35, 18:35,  
20:35.  
Zapatua eta domeka: 12:00,  
16:35, 18:35, 20:35,  
22:35.

Astelehena eta martitzena:  
17:00, 19:00, 21:00.  
**Mejor otro día**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:45, 18:40, 22:35.

Astelehena eta martitzena:  
18:45, 20:45.

**Las aventuras de Peabody y Sherman**  
Zapatua eta domeka: 12:00.  
**Anochece en la India**  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:45, 20:45, 22:35.

Astelehena eta martitzena:  
17:00, 20:45.  
**Inevitable**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 20:30, 22:35.

Astelehena eta martitzena:  
17:00, 20:45.  
**Rio 2**  
Egubakoitza: 16:35, 18:35.  
Zapatua eta domeka: 12:00,  
16:35, 18:35.

Astelehena eta martitzena:  
17:00.  
**9 meses de condena**  
Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 20:40,  
22:30.

Astelehena eta martitzena:  
19:00, 20:45.  
**Capitan America**  
Egubakoitza eta zapatua:  
18:10.

Astelehena eta martitzena:  
17:30.  
**Ida**  
Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 18:40.

Astelehena eta martitzena:  
17:00, 20:45.  
**Guillaume y los chicos, a la mesa**  
Egubakoitza eta zapatua:  
20:30.

Astelehena eta martitzena:  
18:45.  
**El Gran Hotel Budapest**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:35.  
Astelehena eta martitzena:  
20:00.



## ARRASATE Mikel Laboa gogoan, Tanttakaren eskutik

Mireia Gabilondok Laboari buruz hitz egiteko zeukan gogoarengatik sortutako ikuskizuna. Askotariko osagaiak ditu: poesia, musika, bideoak... Iñaki Salvador, Angel Untzu, Maria Berasarte, Iñaki Rikarte eta Gabilondo bera dira protagonistak. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

## NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

APIRILA 11  
APIRILA 17

## MUSIKA

## BERGARA 'Akordeoiarekin jolasean' ekitaldia

Akordeoa izango da protagonista emanaldi berezi horretan. Gaur, egubakoitza, musika eskolan, 19:30ean.

## ARAMAIO Jazz emanaldia

Musika Astearen baitan kontzertua egingo du Jose Barrios Trio taldeak. Jazz musika izango dute hizpide. Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

## OÑATI Ganbara Gazteren kontzertua

Ganbara Gazte abesbatzak kontzertua egingo du Aitor Biainen zuzendaritzapean. Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 20:00etan.

## ESKORIATZA Udaberriko Kontzertua

Beheko Errota musika eskolako bandak lau pieza eskainiko ditu: hain justu, J. Palancaren *Goya*, Brahmsen *Akademische Fest-Overture*, Karel Kolekaaren *Duke Ellington In Concert* eta Piet Swertsen *Shirim*. Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

## OÑATI Drop! eta Arkada Social taldeak

Aretxabaletako Drop! taldeak hardcore doinuak dituen *Ez gaituzte aldatuko* maketa aurkeztuko du. Bestalde, Arkada Social arrasatearrek *Hil orduko bizi* diskoko kantuak joko dituzte. Sarrera, bost euro. Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

## ARRASATE Porco Bravo

Barakaldoko Porco Bravo taldeak kontzertua egingo du. Era berean, taula gainean egongo dira Ezinean taldekoak disko berria aurkezten: *Berriz*. Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

## ARAMAIO Abesbatzen kontzertua

Musika Astearen baitan emanaldia egingo dute Bixente Goikoe-

txea eta Papargorri Elaia abesbatzek. Sarrera, doan. Etzi, domeka, Sastiñan, 18:30ean.

## OÑATI Behind taldea

Javier Irigoieta eta Gerardo Sagasti musikariak daude Behind taldearen atzean. Formatu akustikoan, Eric Claptonen, The Beatlesen, Neil Youngen, David Bowieren eta Lou Reeden kantuen bertsoak egingo dituzte. Sarrera, doan. Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

## ARRASATE Udaberriko Musikaldia

Arrasate Musikako Orkestra eta Goikobalu gaur, egubakoitza, 20:00etan, San Frantzisko elizan; Txorbela eta Opus Cuatro taldeak bihar, zapatua, 20:00etan, parrokian. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, zehaztutako leku eta orduetan.

## ANTZERKIA

## ESKORIATZA 'Erdaldun berrien kluba' antzezlan

AEDk ekoiztutako antzezlanean, Olatz Pagaldai eskoriatzarra izango da protagonista nagusi eta bakarra. *Irantzu* izango da ohol-tza gainean. Gaur, egubakoitza, Huhezin, 22:30ean.

## OÑATI 'Egun berri bat' antzezlan

Eidabe taldearen eskutik Eli nekatoak bizi dituen gorabeherak ezagutuko ditugu. Anaia galdu ostean etxetik ihes egingo du, eta bidaia ikusgarri baten murgilduko da. Irudi poetiko eta magikoaren bidez, galera baten ondorioak ezagutaraziko dituzte. Sarrerak, hiru euro. Etzi, domeka, gaztetxean, 12:30ean.

## DANTZA

## ARRASATE Bailarako Dantzari Eguna

Arrasateko, Antzuolako eta Oñatiko dantzariak elkartuko dira.



Goizean desfilea egingo dute; eta 12:00etan eta 18:00etan, alarde bana. Bihar, zapatua, Zaldibarretik, 11:30ean.

## ERAKUSKETAK

## BERGARA Argazki erakusketa

Koldo Etzeberriaren, Julio Mendikuterren eta Jon Azofraren argazkiekin *Ezberdintasuna eta batasuna* erakusketa osatu dute. Apirilaren 13ra arte, Aroztegin, arratsaldean.

## ARETXABAETA 'Visiones geométricas' erakusketa

Iñaki Ruiz de Eginoren eskulturak ikusgai: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan 11:00etatik 13:00etara. Apirilaren 31ra arte, Arkupen.

## OÑATI Egur-lanak ikusgai

Florentino Santosek egindako egur-lanak ikusgai egongo dira kultura etxean. Apirilaren 15era arte, kultura etxean, 18:00etan.

## UMEAK

## ESKORIATZA Kanpoko jolasak

Kanpoko jolasak egingo dituzte Tortolis ludotekan. Bazkideendako ekintza da. Gaur, egubakoitza, ludotekan, 17:00etan.

## OÑATI Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Txantxiku Ikastolaren Egunaren baitan *Bizipoza* ikuskizuna egingo dute pailazoek. Haur Hezkuntzako 5 urteko neska-mutikoen parte hartuko dute eurekin, dantzan eta kantuan. Sarrerak agortuta daude. Bihar, zapatua, Zubikoan, 17:00etan.

## ELGETA Itzal-txotxongiloen tailerra, umeendako

Eñaut Gordearen eskutik 2007tik 2010era arte jaiotakoendako ema-

## KRITIKA

## Arintasunaren indarra

Noah Baumbach zuzendaria eta Greta Gerwig aktorea dira *Frances Ha* pelikulako gidoi-gileak. Filma ikusita, argi dago bien arteko ulermena ezin hobea izan dela. Frances 27 urteko neska da, balleta gustatzen zaio eta dantza bere ogibide bihurtzen ahalegintzen da. Lagun min batekin alokatutako etxebizitza baten bizi da, laguna beste etxe batera joango da eta Francesek moldatu egin beharko du lagun berriak topatzen. Hori da filmaren abiapuntua. 90 minutu eskaseta pertsonaiaren izaera eta bizitza ezagutuko ditugu. Eta ez da gauza erraza. Frances oso pertsona berezia da. Zaila da haren jokaera nolako izango den asmatzea. Ez du bizitzari buruzko plan zehatzik. Gauzak etortzen diren moduan hartzen ditu eta momentuan erantzuten du; buruari buelta handirik eman barik. Horrek ez du esan nahi leloa denik. Sentsibilitatea du, eta, gertaeren eragina nabaritzen duen arren, ez du adorea galtzen. Akaso, heldugabea dela esan genezake, baina hori ez da zentzu txarrean azaltzen.

## FRANCES HA ★★★★★

Zuzendaria: Noah Baumbach.

Herrialdea: AEB.

Aktoreak: Greta Gerwig, Mickey Summer, Grace Gummer...

Arintasun horrek indarra ematen dio eta bizitzarengan ilusioa mantentzeko balio dio.

Frances bizitasun handiko pertsonaia da eta bizitzarenganako begirada garbia mantentzen du. Bere izaera eta portaera xebeerriak direla pentsa genezake, baina ez. Zuzendaria eta aktorea pertsonaiari hurbiltzeko duten moduarekin, Frances maitagarria izatea lortzen dute.

Filma zuri-beltzean egin dago. Momentu askotan George Delerueren musika entzuten da. Musikariak François Truffauten filma askoren musika egin izan du. Filmatzeko moduak ere burura ekartzen digu Nouvelle Vague-ren garaia. Dena den, osagai horiek naturaltasunez agertzen dira. Zuzendaria ez da pedanteria erortzen eta Frances Haren erretratu freskoa eta sakona egiten du.

ANTONIO ZABALA

**ELGETA 'Malaje' dantza ikuskizuna**

Albadulake konpainiaren eskutik, zirku garaikidea eta flamenkoa batzen dituen emanaldia ikusteko aukera egongo da: akrobaziak, zuzeneko musika, pailazoak... Sarrerak salgai daude dagoeneko: aurrez 10 euro, leihatilan 12 euro eta bazkideek zortzi euro. 75 minutuko emanaldia izango da. Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

**OÑATI Gose eta NX taldeak, zuzenean**

Gose arrasatearrek trikiti eta elektronika doinuak beteko dute gaztelekua. Besteak beste, 2012an kaleratuko diskoa aurkeztuko dute. Bestalde, NX taldea Nafarroatik datorren egitasmoa da: metal doinuak egiten dituen taldea. Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

naldia. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Apirilaren 15ean, martitzena, liburutegian, 16:00etan.

**OSPAKIZUNAK****OÑATI Txantxiku Ikastolaren eguna**

Askotariko ekintzak egingo dituzte ikastolako ikasleek eta gurasoek. Adinaren arabera antzerkiak, tailerrak eta beste izango dituzte. Eskolako Agenda 21eko ekintza izango da talo tailerra. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, ikastolan.

**ARRASATE 'Eskutik eskura' eguna**

Arrasateko Gure Esku Dago taldeak *Eskutik eskura* eguna antolatu du erabakitze eskubidearen alde. Askotariko ekintzak egingo dituzte alde zaharrean. Goizean zehar metro eta kami-seten salmenta egongo da. Etzi, domeka, Herriko plazan, 11:30ean.

**BERTSOLARITZA****BERGARA Pazkoetako bertso saioa**

Bertso jaialdirako sarrerak salgai daude, [www.bergara.net](http://www.bergara.net) helbidean eta Bergarako kultura etxean. Emanaldi egunean, leihatilan ere salduko dituzte. Andoni Egaña, Nerea Elustondo, Amaia Agirre, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Jon Maia bertsoan. Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean.

**ARETXABALETA Debagoieneko bertso eskolen topaketa**

Bi zatitan banatuko dute eguna: 17:30ean gaztetxoaren topaketa egingo dute, eta 19:30ean helduena. Lehenengoan, hainbat bertso eskolako kideen bertsoak entzun ahal izango dira, Murualde elkartean. Bigarrean, aldiz, olinpiadak eta bertso-poteoa izango dira. Gaur, egubakoitza, Murualde elkartean, 17:30ean eta 19:30ean.

**LITERATURA****ESKORIATZA 'Bat ekarri, bat eroan' liburu azoka**

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna da. Hori horrela, askotariko ekintzak antolatuko

dituzte Eskoriatzan; besteak beste, *Bat ekarri, bat eroan* liburu azoka. Gaur, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

**ARRASATE Munduko kontu kontalariak**

Arizmendi Ikastolako gazteek Oswaldo gonbidatu dute *Cuentos colorados* izeneko liburuaz berba egiteko, goizean. Arratsaldean ipun kontalarien txanda izango da. Brasilgo Clara Haddad-ek *Cuentos de otrora para personas de ahora* ikuskizuna eskainiko du helduentzat, eta *Cuentos de la Mariquita* haur eta familiendako. Ostean, Alekos kolonbiarrak *Cuentos y cantos de los últimos tiempos* delako ikuskizuna egingo du. Sarrera, doan. Gaur, egubakoitza, Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.

**ELGETA Ipuinak helduendako**

Adimena zorrozteko ipuinak konstatuko ditu Amaia Arriaranek 14 urtetik gorakoendako. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 22:00etan.

**ELGETA Liburuak plazara**

Liburuaren Nazioarteko Eguna harira liburuzainak kalera aterako ditu liburuak. Apirilaren 16an, Mendizaleen plazan, 17:00etan.

**HITZALDIA****ARRASATE Kooperatibismoaz eta autogestioaz berbetan**

AGAKOren 23. urteurrena ospatzen dihardute, eta horren baitan, hitzaldia egingo du Jabier Lertxundik. Kooperatibismoa eta autogestioa izango ditu hizpide nagusi. Herritarrek galderak egiteko aukera izango dute. Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 18:30ean.

**BESTELAKOAK****ESKORIATZA Osasun Astea: mahai informatiboa azokan**

Goazen *merkatura*. Sasoiko erosketak oreakatuak, erosketak zerrendaren garrantzia, zuzenean ortutik *etxera* delako informazio mahaia ipiniko dute, Amaia Diaz de Monasteriogurenen eta Jakionen eskutik. Sasoiko produktuen gaineko zalantzak argitzeko aukera. Gaur, egubakoitza, azokan, 09:00etan.

**IKASTAROAK****ARRASATE Lehen sorospen tailerra Arrasaten**

AGAKOren 23. urteurreneko ekitaldien baitan, lehen sorospenen gaineko tailerra egingo dute. *Nola jokatu istripu baten aurrean* gaia oinarri hartuta, lehen unean hartu beharreko erabakien eta egin beharrekoen gainean jardungo dute. Bihar, zapatua, gaztetxean, 11:00etan.

**BERGARA Askotariko ikastaroak**

Miguel Altuna Institutuan askotariko ikastaroak dituzte esku artean. Batzuk %100 diruz lagundutakoak. Informazio gehiago, ikastetxean bertan. Ikastaroak bukatu arte, Migue Altuna Institutuan.

**DEIA****ELGETA Errekreaziorako arropa banaketa**

Apirilaren 27an *Intxortako atea*-n egingo duten errekreaziorako arropak eta materiala banatuko dizkiete parte-hartzaileei. Bihar, zapatua, udaletxean, 16:00etan.

**OÑATI Bizikleta martxa**

Bizikleta martxa ikasle eta gurasoekin Oñati eta Elorregi arteko bidegorrian. Herritar guztiendako deialdia da. Etzi, domeka, Foruen plazan, 12:00etan.

**OÑATI Eltzia proiektua: bigarren faseko batzarra**

Musika Eltzia (hilaren 14an) eta Udal Eltzia (hilaren 15ean) taldeetan diharduten kideendako saioak egingo dituzte. Bigarren faseko batzarra dira. Aipatutako egunetan, Eteon, 19:00etan.

**ARRASATE Europako hauteskundeak**

Maiatzaren 25ean egingo diren Europako Parlamenturako hauteskunde zentsuaren zerrendak ikusgai daude BAZen, hilaren 7tik 14ra, biak barne. Apirilaren 14ra arte, BAZen.

**ARETXABALETA Bosgarren edukiontzia aldekoen deia**

Atez ateko bilketa sistemari aurre egiteko Atxabalta. 5. Alde plataformak hartu duen erabakia eta egingo dituen ekintzak azalduko ditu. Herritar guztiak gonbidatu dituzte. Apirilaren 15ean, kultura etxean, 18:30ean.

# Zorionak, Maria Eugenia!

Maria Eugenia Aranburu izan da martxoko sari nagusiaren irabazlea.

**GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:**

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan kontuak. Goiena papera: Asteleheneretan ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin. Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztiaren.



Urteko kuota: 50 € | 943 25 05 05  
kluba@goiena.com | goienakluba.com



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



# goiena

2014-04-11

BUKATZEKO

## 'Castell'-en zutabe debagoiendarrak

- ▶ Bailarako lagunek ere hartu izan dute eta egun ere hartzen dute parte Kataluniako giza gazteluetan
- ▶ Itziar Larrañaga gazte oñatiarra da horietako bat, Bartzelonako Castellars de Sants taldean dabilena

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Pertsonekin egindako egitura bereziok ikusteko aukera izango da bihar –zapatua– Bergaran eta domekan Arrasate (ikus *Herriak* sailean). Kataluniatik etorriko dira propio, hango kulturako adierazpen deigarrietako bat dena guri erakustera.

Badira, ordea, debagoiendarrak *castell*-en berri ondo dakitenak. Bat baino gehiago dira Katalunian bizi izaten egon eta *colla* –giza gazteluak egiten dituzten taldeei deitzen zaie horrela– bateko kide izandakoak edo gaur egun ere direnak. Horixe da Itziar Larrañaga oñatiarraren kasua.

2010ean joan zen Itziar Bartzelonara, ikasketa kontuengatik. Eta ordurako Castellars de Sants izeneko *colla*-n baziharduen beste oñatiar batek gonbidatuta, 2011ko irailean hasi zen hura ere: "Euskal Herriari euskal dantzetan ibiltzea bezala da", dio. Aukera ona ikusi zuen hango jendartearen barneratzeko –katalana hobetzen ere lagundu diola dio–, eta animatu egin zen: "Jarraitzeko asmoa daukat, oso gustuko dut".

Eta gustura ibiltzea garrantzitsua, ze dedikazio apur bat eskatzen duen jarduera da eta *casteller*-ena: astean bost orduko



Itziar Larrañaga, beste *casteller* batzuen artean, erdi ezkutuan. | MIREIA G. PABLO

entsegu finakoak izaten dituzte, eta horietatik aparte posizio edo teknika zehatzak ikasteko saioak ere bai aukeran. Eta ikuskizunak, normalean, martxoan hasi eta azarora bitartean, domekero, hilean behin izan ezik.

"*Castell*-ek duten gauza ona da fisikoki zaren modukoa izanda beti dagoela zuretzako proposa den leku bat", dio. Hari oinarrian egotea egokitzen zaio, pisu guztia eusten den lekuan: "Inportantea da ondo kokatzea,



Itziar Larrañaga. | ITZIAR LARRAÑAGA




Euren *castell* bat. | CASTELLERS DE SANTS

eta baita burua ere. Oso-oso zapatuta egoten gara, eta batzuetan kosta egiten da arnasa hartzea. Lasai egonda, ez da sekula oxigenorik falta izaten, baina urduri jarriz gero..."; hark inoiz ez duela arazorik izan dio.

Gora igotzen dutenetakoa izateko irrikarik ez du: "Ez dut uste oso oreka onekoa izango nintzatekeenik"; ezaugarri fisiko egokiak izan behar direla dio, igotzen direnak "oso onak" izaten direla, eta txikitatik hasitakoak, normalean. Euren taldeak egiten duen gaztelu handiena? Bederatzi pisukoa: "*Colla* onenek hamarrekoak egiten dituzte".

### AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



### Zientzia fikzioa

Harrিতuta begiratu nion lehengusuari: "Zure aurpegiarekin mobila aktibatu?". Ez nuen sinesten. Baina bai: telefonoak jabea zu zaren ala ez jakin dezake. Aurpegia eskaneatuta. Proba egin genuen. Telefonoak ez ninduen ezagutu. Bera bai, segituan. "Eta bizarrak moztzen baduzu, zer?", galdetu nion. "Ez dakit, ez dut probatu".

Ahotsarekin ere egin daiteke. Eta hatz markekin. Eta irisarekin. Baina guk jakin gabe ere eskaneatzen gaitzakete. Badaude, begira dagoenaren arabera, era bateko zein beste publikitatearen ematen duten pantailak. *Bezeroaren* ezaugarri fisikoak aztertzen dituzte: altuera, gorpuzkera, keinuak, orrazkera, janzkera... Eta horren arabera (eta beste faktore batzuk kontuan izanda: ordua, temperatura...) erabaki: egoera animikoa, neska ala mutila den, zein adinetakoa, eta zer erakutsi. Zer erosiko lukeen.

Tokioko metroan jarri zuten lehenengo. Eta Europara ere iritsi da. Erakusleihoe-tara, gasolindegietara. Autobus geltokietara, supermerkatuetara. Merkea da, azkarra (segundo dezimak) eta legezkoa. Ez ei du inoren intimitatea urratzen. Ejem. Tom Cruise *Minority report* filmean? Jada ez da zientzia fikzioa.

Zer ikusi hura egin

# EREDU IZAN

DEBAGOIENAKO UDALAK